



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

10 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako 1995eko Kontu Orokorren azterlaritza txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako 1995eko Kontu Orokorren azterlaritza txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Nafarroako 1995eko Kontu Orokorren azterlaritza txostena, Kontuen Ganbarak egina, argitaratzea erabaki zuen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako 1995eko Kontu Orokorren azterlaritza txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua (3. or.).
- II. Norainokoa eta mugak (3. or.).
 - II.1. Norainokoa (3. or.).
 - II.2. Mugak (5. or.).
- III. Iritzia, iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak (6. or.).
 - III.1. Iritzia (6. or.).
 - III.2. Iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak (9. or.).
- IV. Finantza egoerak (13. or.).
 - IV.1. Egoera-balantzea, 1995eko abenduaren 31n (13. or.).
 - IV.2. 1995eko ondare-emaizta eta emaitza ekonomikoaren kontua (14. or.).
 - IV.3. 1995eko aurrekontuaren betetze-maila (15. or.).

Gehigarriak.

- 1. Foru Ogasunaren ekonomi eta finantza egoera, 1995eko abenduaren 31n (16. or.).
 - 1.1. 1995eko aurrekontuaren betetze mailaren azterketa (16. or.).
 - 1.2. Foru Ogasunaren finantza egoeraren azterketa (18. or.).

- 1.3. Aurrekontu agertokiak (20. or.).
- 2. Balantzearen azterketa eta azterlaritza. (21. or)
 - 2.1. Aktiboa (22. or.).
 - 2.2. Pasiboa (31. or.).
 - 2.3. Ondare-emaizta eta emaitza-kontuaren kontua (38. or.).
- 3. 1995eko aurrekontuko kitapenaren azterketa eta azterlaritza (39. or.).
 - 3.1. Aurrekontuaren betetze-maila (40. or.).
 - 3.2. Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren programa (56. or.).
 - 3.3. Azterketa eragilea: eraginkortasuna, zintzotasuna eta ekonomiaren neurketa (58. or.).
- 4. Kontratazio publikoaren azterketa berezia (61. or.).
- 5. Erakunde autonomoak (65. or.).
- 6. Zuzenbide publikoko enteak (66. or.).
- 7. Zerga-gastuen aurrekontuari buruzko azterketa (67. or.).
- 8. Enpresa publikoen sektorea. (73. or)

Eraskinak.

- 1. eraskina. Aurrekontu-aldaketak.(83. or.).
- 2. eraskina. Aurrekontu betetzearen koadroak kapitulu ekonomikoka. (85. or.).
- 3. eraskina. Gastuen egoera-orriaren sailkapen funtzionala. (89. or.).
- 4. eraskina. Erakunde autonomoen 1995eko aurrekontuen kitapena. (89. or.).
- 5. eraskina. Ente publikoen 1995eko aurrekontuen kitapena. (92. or.).
- 6. eraskina. Aurrekontuaren betetzea, programak. (94. or.).

I. HELBURUA.

Indarreko legeriarekin bat etorritik, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1996ko irailaren 6an hartutako erabakia betez, Kontuen Ganbara honek honako txosten hau egiten du, ondoren esaten diren gauzei buruzko **iritzia** emateko:

a) 1995eko Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betetze-mailaren Egoera-orriak modu egokiz islatzen duen aldi horretan burutu den jarduera.

b) Foru Ogasunaren ondasun-egoeraren arazoizkotasuna 1995eko abenduaren 31n, aplikatzen zaizkion eta aurreko ekitaldiko antzekoak diren kontabilitate-hatsapenen arabera.

c) Foru Komunitateko Administrazioaren eta honen erakunde autonomoen ekonomi eta finantza jarduera legezketasunaren hatsapenen menpe ote dagoen.

d) Aurreko Nafarroako Kontu Orokorren azterlaritza txostenentan Kontuen Ganbarak emandako gomendioen betetze maila.

e) Foru Ogasunaren abenduaren 31ko finantza-egoera.

Iritzi hau Nafarroako Gobernuak egindako hainbat jarduera edo eginkizuni atxikitako baliabide publikoen kudeaketan lortu den eraginkortasun eta ekonomia mailari buruzko **ondorio** batek osatuko du, txostenaren ardatzean azaldutako mugak ere kontuan harturik.

II. NORAINOKOA ETA MUGAK.**II.1. NORAINOKOA.**

1 zk.ko laukian Foru Komunitateko Administrazio Orokorren osaketa deskribatzen da, honako hau, hain zuzen ere:

a) Administrazio Publikoaren arloa, hurrengo entitate hauek osaturik:

1. Nafarroako Gobernuako Departamentuak, guztira 10 direnak.


2. Administrazio izaerako Erakunde Autonomoak (aurrerantzean, EAK) :

- Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI)
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ)
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI)
- Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI)
- Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI)
- Nafarroako Mahastilan eta Enologi Zentroa (EVENA)
- Nafarroako Emakumearen Institutua, (NEI) 1995ean sortua.

b) Zuzenbide publikoko enteak (aurrerakoan, ente publikoak), honako hauek, hain zuzen ere:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Nafarroako Su-Itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa (aurrerantzean, Partzuergoa)
- Nafarroako Industri eta Merkataritza Ganbara (aurrerantzean, Merkataritza Ganbara), zeina, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen gomendiei jarraikiz, ondorio hauetarako beste ente publiko bat gehiagotzat hartzen dena.

1. laukia



c) Enpresa publikoen arloa, Nafarroako Gobernuaren kapitalaren erdia edo gehiagoren jabe den enpresa publikoek osatua. 1995ean arlo hau 33 enpresa publikok osatzen dute, eta aurreko ekitaldiarekin konparatuz berrikuntzak honako hauek dira:

– Enpresa publikoaren arlotik kanpo gelditzen dira Compel –Nafincok bereganatua– eta Gráficas Estella –sektore pribatuari saldua–.

– Enpresa publikoaren arloan sartzen dira Suspensiones del Norte (Susnor) –partaidetza ehuneko 100ekoa da– eta Sociedad de desarrollo exterior de Navarra (Sodexna) –ehuneko 92–.

Alabaina, komeni da esatea Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ezartzen duela ezen, bere ondorioetarako, kapital sozialaren gehiengo erabatekoa, zuzen edo zeharkako partaidetzaren bidez, Administrazioarena denean, merkataritza

entitateak sozietate publikoak direla. Irizpide honi zorrotz-zorrotz jarraituz gero, 28 enpresak baizik ez lukete Enpresa publikoaren arloa osatuko.

Aztertzen ari garen Nafarroako Kontu Orokorrek, Gobernuak argitaratuek, honako ezaugarri hauek badituzte:

- Gobernuaren Aurrekontuaren 1995eko ekitaldiko kitapena, bere sailkapen guztiekin.

- 1995eko balantzea eta emaitzaren kontua eskaintzen dira, birsailkapen egokiaren ondoren, 1994an onarturiko Sektorre Publikoko Kontabilitate Plan Orokor berriak proposatzen dituen eskema eta terminologiarekin. Halarik ere, aurkezpen berri hau ez da aplikazio kontablea aldatzearen ondorio, ez eta kontabilitatea Plan berriari egokitzaren ondorioa ere.

- Eraskin moduan, enpresa publikoen ikuska-pen-txostenak era uretako kontuak gaineratzen dira.

- Gure gomendioei men eginez, honako hauek gaineratzen dira:

- Erakunde autonomoen aurrekontu-betetzea, salbu eta Nafarroako Emakumearen Institutuari dagokiona –ekitaldi honetan bertan sortu dena–, nahiz eta aurrekontu-lerroen ondorioz zein den ikus daitekeen.

- Ente publikoen finantza-egoerak.

Ganbarak egin duen lanaren **norainokoa** ondorengo hau izan da:

a) Nafarroako Gobernuaren eta bere erakunde autonomoen Kontu Orokorren azterlaritza, hurrengo finantza egoera hauen birazterketaren bitartez (IV atalean bilduak):

- Egoera balantzea, 95-12-31n (2. Gehigarria).

- 1995eko ondare emaitza eta emaitza ekonomikoaren kontua. (2. Gehigarria).

- 1995eko Aurrekontuaren Betetze-egoera. (3. Gehigarria).

b) Erakunde autonomoen azterketa Nafarroako Gobernuaren kontuenarekin batera egin da, baina 5 gehigarrian horien aurrekontuen inguruko ezaugarri nabarmenenak bereziki aztertu dira.

c) 6. gehigarrian ente publikoen aurrekontu-egoerei buruz egindako analisiaren ezaugarri nabarmanen laburpen bat azaldu da.

d) Enpresa publikoen arloari dagokionez, 8. gehigarrian profesional independentek egindako ikuskapen txostenetatik lortu diren iritzi eta gainerako ekonomi informazioaren ezaugarri nabarmenak bildu dira, eta horiek eraskin gisa agertzen dira Gobernuak aurkezturiko Kontu Orokorren Oroit-ldazkian.

Hau osatzeko, honako txosten honetako 1. gehigarrian Foru Komunitateko Administrazio Orokorren ekonomi eta finantza egoerei buruzko azterketa azaldu da, eta honek 1995eko aurrekontuaren ezaugarri nagusiak zein defizita eta zorpetzearen egoera eta aurrikusten diren proiektio eta bilakaerak aztertzen ditu.

Azkenik, lana osatuz hainbat azterketa berezi egin dira, honako gai hauei dagozkienak:

- Kontratazio publikoa (4. gehigarria)
- Zerga-gastuen azterketa (7. gehigarria)

Laburbilduz, txostena lau ataletan egituratzen da, atalok egindako lana zein iritzia eta ondorio

eta gomendio orokorrak islatzen dituztelarik. Atal hauek osatzeko aurreko ondorioak zabalago azaltzen diren 8 gehigarri bildu dira. Azkenik, aurrekontuei buruzko informazioa ematen duten 6 eraskin gehitu dira.

Metodologiari doakionez, Espainiako Estatu-ko Kanpoko Kontrolerako Erakundearen Koordinazio Batzordeak onetsitako arlo publikoaren ikuska-penari buruzko hatsapen eta arauak erabili dira.

Zehazki, Balantzea eta Emaizta Kontuaren azterketan egokitzat jo ditugun finantza publikoetako ikuskapen-arau eta jardunbideak erabili dira, inguruabarren arabera eta lanaren helburuak kontuan hartuz, eta gainera, horiei antolamendua eta barneko kontrola hobetzeko egoki jo diren iruzkin eta gomendioak erantsi zaizkie.

Aurrekontuaren azterlaritza zein eraginkortasun eta ekonomia mailaren analisia aurreko txostenetan bezala, batik bat aurrekontu-programen edo eginkizun/jarduera publikoen azterketan oinarritu da. Batetik programa horietan epigrafe ekonomiko bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak aztertu ditugu, finantza eta aurrekontu-ikuskapenaren berariazko metodologia erabiliz, eta bestetik, ezarritako helburuen betetze maila, eta ahal izan denean, erdietsitako eraginkortasun eta ekonomia maila ere analizatu ditugu, orokorrean onartuta dauden prozedurak erabiliz.

Berraztertutako programak eta jarduerak honako hauek izan dira:

- Enpleguaren sustapena.
- Industriaren sustapena.
- Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.
- Dietak, joan-etorriak eta bidaiak-gastuak
- Dirua irabazi asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzek sorturiko gastuak.
- Tributuak
- Komunitatetik datozen transferentziengatikiko dirusarrerak

Azkenik, azterturiko laginak aurrekontuaren gastuen %16 egiten du eta dirusarreraren %91.

Txostenak baditu, baita ere, atal ezberdinetan, interesgarri iruditu zaizkigun legezko gorabeherekin zerikusirik dituzten iruzkinak.

II.2. MUGAK.

Egindako lanak izan dituen mugen artean aipatu behar dugu baliabide publikoen kudeaketan erdietsiriko ekonomia eta eraginkortasun mailaren egiaztapena, azterturiko programa jakin bakoitzaren garapen-mailaren menpe dagoela, eta baita ere, horren kudeaketa-mailaren, eskura dagoen informazioaren eta proposaturiko adieraz-

leen kalitatearen menpe. Hortaz, ezin izan dugu beti afera horri buruzko ondorioz eman.

Zelaiko lana 1996ko ekainetik urrira bitartean egin du ikuskari batek, ikuskaritza lau teknikok eta praktiketako laguntzaile batek osaturiko taldeak, beti ere Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzara iraunkorra izan dutelarik.

Eskertu nahi diegu Nafarroako Gobernuak lan-gileei lan hau egiteko azaldu duten lankidetasuna, eta bereziki Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei.

III. IRITZIA. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

III.1. IRITZIA.

Egindako lanaren norainokoaren arabera, Nafarroako Gobernuaren Egoera Balantzea 1995eko abenduaren 31n, 1995eko Emaizta Kontua, eta Nafarroako Gobernuaren 1995eko Aurrekontua analizatu ditugu.

Gure lana egiteko onartu ohi diren ikuskapen publikoko arau eta prozedurak erabili ditugu, inguruabarren arabera eta lortu nahi ziren helburuak kontuan hartuz.

Gure jarduketaren ondorioz, hona hemen iritzia:

a) 1995eko Aurrekontuaren betetze mailari buruz.

1995eko Aurrekontuaren kitapenean azaltzen diren gastu eta dirusarrerak egokiro islatzen dute aldi horretan Nafarroako Gobernuak burutu duen jarduera, hurrengo salbuespen hauek salbu:

- Zergazko dirusarrerak, aurreko ekitaldiekin loturiko kontabilitate-irizpide bati jarraituz, Kontabilitate Laguntzailean erregistratzen ziren datuak egotzen zaizkio aurrekontuari, eta ez, zegoen zergazko kitapena aurkezten zen datuen arabera.

- 1995eko zor-jaulkipenaren ondorioz sartu diren 20.000 milioi eta beste hainbeste jotzen zuen eta 1994ko zorra amortizatzen datorren gastua, aurreko jaulkipenaren baliabideekin finantziatzen dena, ez zaizkio aurrekontuari egotzi. Eragiketa honen eragin garbia (*), alabaina, ez du Nafarroako Gobernuak 1995ean zehar garatu duen jarduera orokorra aldatzen, eta afera hau aurrekontuaren aldetik behar bezala tratatzeak

aurrekontuaren osotasunaren hatsapenaren eta irudi fidelaren hatsapenaren arteko oreka informatiboa bilatzea eskatuko luke.

- Aurrekontuan ez dira sartzen zor geroratu eta zatikatuengatik sortu diren korrituak, 654 milioi jotzen dutenak, nahiz eta Oorit-idazkian esaten den bezala, hau 1996an zuzendu den.

b) 1995eko abenduaren 31ko Egoera Balantzeari buruz.

Nafarroako Gobernuaren Egoera Balantzearen saldoek Foru Ogasunaren ondareko egoeraren ezaugarri nabarmenenak islatzen dituzte, 1995eko abenduaren 31n, hurrengo salbuespen hauek salbu:

- "Ibilgetu materiala eta finantzieroa"

Kontabilitate saldoak analizatu eta berraztertze prozesu baten ezak eta Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko mota horretako ondasunen inbentarioa osatu gabe egoteak saldo horien arazoizkotasanari buruz gure iritzia ematea eragotzi digu.

- "Zerga-zordunak"

Zerga-zordun guztiak berraztertze-prozesua ez da bukatu, eta gure ustez beharrezkoa da zenbait saldo sistematikoki berraztertzen segitzea, batez ere zenbateko hartzekodunak dauzkatenak.

- "Gorabeherak"

Indarrean dagoen Nafarroako Gobernuaren funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen betebeharrak aktuariaren ondorioz dauden gorabeherak ez dira jasotzen.

c) Legezketasunaren hatsapenaren betetzea.

Orokorrean, Gobernuaren ekonomi eta finantza jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasunaren hatsapenaren arabera gauzatzen da, Txostenean zehar aipatzen diren salbuespenak salbu.

d) Aurreko txostenetan Kontuen Ganbara honek emandako aholkuen betetzea.

Ekitaldi bateko Kontu Orokorrei buruzko Txosten bat argitaratzen denetik hurrengo ekitaldikoak ixten diren arte oso epe laburra igarotzen da, eta horregatik ezin daiteke behar bezalako iritzia eman lehengo txostenean azaltzen ziren gomendioak noraino bete ote diren.

Hala ere, ikusten da gero eta ahalegin handiago egiten dela ematen diren gomendioak betetze-

(1) Kontabilitate orokorrean jasotzen da.

ko. Horrela, 1995 urtean honako hau azpimarratuko dugu:

– Zerga-zordunen kudeaketa hobetzen gero eta ahalegin handiagoa egiten da.

– Ikuskapen Atalaren eginkizuna tinkoagotzen da.

– Finantza-egoerak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorraren terminologia eta eskermen arabera aurkezten dira.

– Kontu Orokorrean Erakunde Autonomoen eta Ente Publikoen aurrekontu-kitapena sartzen da.

– Herrilanei buruzko informazio handiagoa eskaintzen da.

– Absentismoaren jarraipena eta kontrola egiteko jardunbide homogeneoak taxutu dira.

Honen osagarri, Kontuen Ganbarak 1996 urtean honako txosten hau argitaratu zuen: Foru Komunitateko Administrazio Orokorrean esparruan emandako gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio txostena, 1991tik a995era bitartekoa (1996ko uztailaren 16ko 46 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua). Han ematen ziren 60 gomendioetatik, Kontuen Ganbarak uste zuen, eta uste du, ondorengo hauek lehentasunez bere behar direla:

Ibilgetua

Nafarroako Gobernuaren jabetzapekoak diren ondasun higigarri eta higiezin Inbentarioa prestatzeko prozesuari bukaera ematea, etengabeko gaurkotzea lortzeko beharrezkoak diren administrazio eta kontabilitate-jardunbideak zein balortzeko irizpideak ezarriz eta bat etorraraziz.

Ibilgetuaren kontabilitate-saldoen berraztertze-ari eta arazteari ekitea, saldo hauek Nafarroaren Gobernuaren jabetzapeko izaera honetako ondasun-multzoaren berri behar den moduan eman dezaten.

Zordunak

Tratamendu informatikoa azkartzea, aurrekontuak ekitaldi bakoitzean sortu diren zerga-izaerako dirusarreraren hauen gorabehera jaso dezan.

Zordunen kontuetako abenduaren 31ko saldoak berraztertzea, batez ere saldo hartzekodunik daukaten horiek.

Gorabeherak

Gaur egungo pentsio-ereduaren ondoriozko betebeharrak aktuarialak zenbatzea, eta finantza-egoeretan erregistratzea.

Epe laburreko zorrak

Betebeharrak aitortuengatik hartzekodunak. Zentru guztietan jardunbide homogeneoa aplikatzea, bai agirizko behar bezalako euskarria eta bai ekitaldia ixtean dauden erresulten zenbatze arrazoizkoa ere edukiko duena.

Oroipen kontuak

Eraturiko abalak. Behar beste bermeak lortzeko betebeharrak betetzea –kontuan hartuz, hala ere, eta zenbait kasutan, ohiartzun ekonomiko eta sozial bereziak– eta hartzen diren arriskuen eta hauen bilakaeraren jarraipen etengabe eta zehaztua egitea.

Langileen kudeaketa

Nafarroako Gobernuaren plantila organikoa egiazko langile-beharretara egokitua den edo ez aztertzea, jakinik zerbitzu publikoak eraginkorki eta arrazoiz zertu behar direla.

Lege agindua, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioak kidego eta taldeetan sartzeko legea prestatu behar dela dioena, funtzionarioen barne-igoera eta mugikortasuna errazteko.

Gizarte Segurantzaren sistemari atxikirik ez diren Nafarroako Gobernuaren funtzionarioei aplikatuko zaien jubilazio eta pentsioen ereduaren zein izango den behin betiko ezartzea, orain bizitzen ari den segurantzaren falta eta iragankortasuneko egoera saihestuz.

Nafarroako administrazio publikoetako ordainketa-ereduan ordainketa-elementu aldakorrek sartzeko, lanpostuaren, produktibitatearen eta lortutako helburuen arabera zehaztuta.

Transferentziengatikoko gastuak

Foru Ogasunari buruzko Legeak arlo honetan arautzen duena osatzea, administrazio jarduerari honi erregimen juridiko amankomuna nahikoa emateko. Horretarako beharrezkoa litzateke arau orokorra prestatzea (), dirulaguntzak emateko jardunbideak, onuradunen betebeharreko baldintzak, eta arautegiak dioena ez betez gero aplikatuko diren zehapenak eta hauen zenbatekoen mugak, besteak beste, erregulatuko dituenak.*

Zeharkako eta zuzeneko zergak

Falta diren zergen informatizazio-prozesua burutzea, abatez ere ondorengotzak, ondare-ekualdatzea eta ekintza juridiko dokumentatuak.

Administrazio-kontratazioa

Kontratuari buruzko foru legea ahalbait lasterren onartzea, foru legea eta estatuko legea, biak batera, egoteak dakarren segurantzaren juridiko falta

eta behin-behinekotasunezko egoera gainditu ahal izateko ()*

Administrazio Kontratazio Batzordeari eman zaizkion funtzioak garatzea, behar dituen baliabideez hornituz, legezketasuna beteko dela hobeki bermatzeko eta kontratuen mailako jardueraren eraginkortasuna hobetzeko.

Barne kontrola eta kontabilitate-informazioa.

Nafarroako Gobernuaren kontabilitate-eredua Sektore Publikoko Kontabilitate Plan Orokor berriari egokitzea aztertzea.

Nafarroako Gobernuaren Kontuhartzailtza Nagusiaren jarduketa-moduak eta edukia errege-lamenduz garatzea.

e) Foru Ogasunaren finantza-egoera

- 1995ean, defizitak edo fianantzatze beharrak nabarmen gutxiagotu dira, eta ia oreka finantzieroa egoerara iritsi da. Horren arrazoia da ohiko dirusarrerak gora egin dutela –ehuneko 19–, ohiko gastuak gutxiago igo diren bitartean –ehuneko 10–, eta kapital gastuak ere poliki poliki behera joan direla –batez ere inbertsioak–.

- 1995eko abenduaren 31n, Nafarroako Gobernuak epe luzera duen zorrak 133.186 milioi jotzen du guztira; horrek Komunitateko BPGren %12 eta finantzaz besteko dirusarreraren %57 egiten ditu.

- 1995ean, ibilkorraren superabita (epe laburreko zordunak gehi erabilgarria ken epe laburreko betebeharrak), 3,5 bider handiagoa da, 1994koarekin alderatzen badugu, eta 20.809 milioi egiten du. Aldaketa honen arrazoia da zerga-dirusarreraren handiagotze bortitza eta pasibo finantzieroa bereganatzea, eta abenduaren 31n aldi baterako inbertsio finantzieroa gauzatu da, batez ere.

Ondorio gisa, esan dezagun Foru Ogasunak 1995ean bete dituela 1995-1997 aurrekontu-ageretokian ezartzen ziren baldintzak finantzazio eta zorpetzeari dagokionez, batez ere dirusarrera ez finantzieroa izan den gorakadarengatik eta, neurri txikiagoan, gastuen kontrolagatik.

Epe luzerako zorrari dagokionez, hala ere, aipatu Agertokiak biltzen zituen aurreikuspen ia guztiak gauzatu dira.

Hortaz, Ganbara honen gomendioek indarrean dira; hau da, beharrezkoa da aurrekontuaren aldetik zorrotz jokatzeko beharrak bere hartan

dirau, datozen ekitaldietan Aurrekontu-agertokia- ren helburuak beteko direla ziurtatu ahal izateko. Beraz, hauek dira guk proposatzen ditugun neurriak:

Nafarroako Gobernuak aplikatzen dituen gastu-programa eta politika guztien berrazterketa sistematikoa eta egituratua.

Baliabide publikoaren kudeaketan emaitza ekonomiko-sozialen bilaketa eragin eta langileak motibatu behar dituzten eginbide eta tresnen ezarpenean sakontzea, baliabide publikoen eraginkortasunaren hobetzea bermatuz.

Administrazio eta hiritar guztiek parte hartu behar duten iruzurraren aurkako erabateko jarduketa bultzatzea.

Neurri hauek guztiak eraginkorrak izango lirateke administrazio eta gizarte-eragile guztiek eta Nafarroako Parlamentuak babestuko luketen epe erdirako jarduketa plan baten barruan sartuko balira.

f) Eraginkortasuna, zintzotasuna eta ekonomia

Norainoaz ari ginenean aipatu ditugun muga eta edukiekin bat etorritik, gure helburua da Nafarroako Gobernuak garatu dituen hainbat programa eta jarduketa kudeatzean lortu den eraginkortasun, zintzotasun eta ekonomiari buruzko zenbait ondorio ateratzea.

1995 urtean honako hauek berraztertu dira:

- Enplegua sustatzeko programa. Programa honek baditu bi sustapen-lerro nagusi: gizarte-enplegua eta prestakuntza. Egindako azterketatik azpimarratu nahi dugu lortu nahi den xedea lortzeko erabiltzen diren helburuak eta adierazleak ez direla egokiak. Haatik, prestakuntza programen ebaluazio "a posteriori" egin da, eta horretatik ateratzen diren ondorio nagusiak azpian aipatzen direnak dira:

- Ez dago zuzeneko harremanik enpresen egiazko beharrak eta ikastaroen eskaintzaren artean.

- Ikastaroen eskaintza errepikakor bihurtu daiteke.

- Prestakuntza-ekintzek ez dute zehazki definitzen lortu nahi diren helburu operatiboak, eta haien ebaluazioa zaila da.

- Hitz batez, industria lehiakorragoa lortzea.

(*) Gaur egun Parlamentuan eztabaidatzen ari dena

• **Industria Jarduera Sustatzeko Programa.** Programa honetako jardueraren helburua Nafarroako industria ehuna hobetzea da, eta industria berriak ezar daitezzen lortzea, inbertsioari eta enpleguari laguntza ematearen bidez. Aurreko programan bezala, helburuak ez direla behar bezala garatu ikusten da, baita jarraipena egiteko beharrezkoak diren adierazleak ez direla ere. Alabaina Oroit.idazkia prestatzen da, programaren laguntzak zatika baizik biltzen ez baditu ere hainbat datu interesgarri mahaigaineratzen duena, eta horien artean honako hauek azpimarratuko ditugu:

– Aztertu den aldian (1992-1995) 1.525 lanpostu diruz lagundu dira, batez ere automozio-industrian –ehuneko 50– eta Iruñea zein Tuterako aldeetan –ehuneko 78–.

– Inbertsioarentzako laguntzei dagokienez, eragin diren inbertsioek 87.000 milioi egin dute, eta hauen parterik handiena ere automozioan –ehuneko 50– eta Iruñea zein Tuterako aldeetan biltzen da –ehuneko 84–.

Honen osagarri, enplegu eta inbertsiorako laguntza guztien zerga-kostua PFEZ eta Sozietatei buruzko 199 eta 1994ko aitortenetan –aurkeztu diren azkenak–, eta hori dela eta, ondorengo hau azpimarratuko dugu:

– PFEZ-n, kuotaren kenkariak, inbertsioengatik eta enpleguarengatik, 394 milioi jo dute, eta horietatik 338 inbertsioari dagozkie, eta 56 enpleguari. 1994ko aitortenaren arabera, 452 milioi aplikatzeke daude oraindik.

– Sozietateetan, kenkariak 5.044 milioi jotzen dute.

– Enpleguarengatik kenkariak nabarmen txiokoagoak dira bi zergetan.

• Dietak, garraio eta bidaia-gastuak. Ondorioa da beharrezkoa dela bidaia-gastuei buruzko azterketa egitea, hauek egiten duten urteko faktura kudeaketa hobearen bidez txikiagotzen saiatzeko.

Aurrean esandakoa eta pilatu duen eskarmen-tua aintzat harturik, hona Kontuen Ganbararen gomendioak:

Nafarroako Gobernuak egungo arautegiaren eta programakako aurrekontu-praktikaren garapena sakondu behar du, eraginkortasun, zintzotasun, ekonomia eta gardentasunen hatsapenen arabera jokatu behar duen kudeaketa publikoak eskatzen dituen baldintzak bete ahal izateko. Azterketa eta gogoeta prozesu honetan estamentu guztiek hartu behar dute parte, eta bate ere Nafarroako Parlamentuak.

Kudeaketa publikoaren fase guzti-guztietan baliabide publikoen erabilera arrazoizkoa bilatzen duten aurrekontu-tekniken filosofiak presente egon behar du, antolamendu guztia balitu behar du eta enplegatuen lanaren pizgarri izan behar du, bidenabar norberaren erantzukizuna eskatzen delarik.

Programa publiko guztiek biltzen dituzten laguntzak aplikatzeak gizartean lortzen dituen egiazko emaitzak analizatzeko azterketak edo ebaluazioak sistematikoki egin behar ditu, lortu nahi ziren helburuak benetan lortzen ari ote diren baieztatu ahal izateko.

Inbertsio eta enplegu alorretan biltzen diren laguntzen aniztasuna berraztertu behar da, eraginkortasuna eta egokitasuna ez ezik gutxiago izatea komeni ote den aztertzeko, hala kudeaketa nola balizko onuradunak eskuratu ahal izatea errazago bihurtzeko.

III.2. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

a) 1995eko Aurrekontuaren betetzeari buruzko ezaugarriak nabarmenenak (1.1. eta 3. gehigarriak).

Nafarroako Gobernuak aurkezturiko informazioaren arabera, hona hemen 1995eko Aurrekontuaren betetzeari buruzko ezaugarriak nabarmenenak:

• 1995eko Aurrekontuak hasieran hurrengo aurreikuspen hauek zituen: 243.095 milioi pezeta-ko gastuak, finantzaz besteko 209.195 milioi pezeta-ko dirusarrerak eta hortaz, 33.900 milioi pezeta-ko kanpo-finantzaketaren beharra.

• Aitorturiko betebeharrak 240.968 milioi jotzen dute eta % 96an bete dira, beraz betetze-mailak 1994ko aurrekonturenak adina jotzen du.

• Bere izaera kontuan harturik, gastuen egiturazko osaketa iraunkorra da 1994koarekin alderatuz, baina ohiko gastuek 3 puntu gora egin dute, kapital gastuen kaltetan.

Horien kudeaketaz arduratzen diren departamentuei dagokienez, Osasun eta Hezkuntzak 1995eko gastu osoaren %43 biltzen dute.

• Aitorturiko eskubideek 259.847 milioi jotzen dute guztira, %104 bete dira, hau da, 1994an baino 7 puntu gehiago.

Horien osaketari dagokionez, ohiko dirusarre-
rek, 1994koekin alderatuz, 5 puntu gora egiten dute, finantzieroen kaltetan.

- Zor publikoari dagokionez, aurreikusten zena zen 33.900 milioi jotzen zuen zorra jaulkitzea, baina aurrekontuari egozten zaion zorrak 23.000 milioi jotzen du.

Aurrekontuak 18.879 milioi pezetako superabita erakusten du, hau da, aurreko ekitaldian baino 14.690 milioi gehiago. Baina zorratik datozen dirusarrerak kontuan hartuko ez balira, aurrekontuek 4.121 milioiko defizita edukiko lukete.

- Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.

- Estatuaren zama orokorretarako egiten zaien ekarpenak, 1995 urtean, 21.164 milioi jotzen zuen transferentzia ekarri du, hau da, aurreko ekitaldian baino 7.400 milioi gehiago.

- Heldu den bosturtekoan aplikatu beharreko magnitude eta parametroak gaurkotu gabe daude.

- 1992-1995 bilakaera.

- Ohiko gastuek gastu guztien gainean egiten duten ehunekoak 7 puntuko gorakada eduki du 1992 eta 1995 urteen arteko epean, eta kapital-gastuek, aldiz, 4 puntu behera egin dute.

- Dirusarreretan, ohikoek 7 puntu egin dute gora, eta finantzieroek beste hainbeste behera.

b) Kontratazio Publikoa (4. gehigarria).

- Administrazio Kontrataziorako Batzarra

- Departamentuek kontratuak eta euren aldatketak igortzearen inguruan dituzten betebeharratatzat batzuk bete gabe jarraitzen dute.

- Batzarraren jardura oro har kontratuen erregistrora eta kontratazioari buruzko oroit-idazkiaren idazketara mugatzen da, eta ez ditu kontratazio publikoaren arloan kontrol eta aholkurako benetako organo gisa aritzeko dituen eginkizunak garatzeko behar dituen baliabideak.

Batzarraren jardura indartzea gomendatzen dugu, departamentu guztiek horrekin dituzten betebeharrak betetzera irmoki premiatuz.

- Kontratuen inguruko jarduna 1995ean

- 1995ean behera jo du jardun honek 1994koaren aldera, eta beherakadak %23 zenbatekoetan eta %17 egindako kontratuen kopuruan izan dira. Beraz, 1991z geroztik ikusten den beheranzko joera mantentzen da, 1995ean esleitu den zenbatekoa ehuneko 47 txikiagoa delako aipatu urtearekin alderaturik

- Kontratuen izaerari dagokionez, zabalduena hornidura-kontratua da –kontratu guztien %44–, baina zenbatekoetan lehenengoak obretakoak dira –esleitutakoaren %68–.

- Esleipen-sistemari dagokionez esan behar da, 1995ean, lehenengo aldiz, lehiaketa dela, zuzeneko kontratazioaren gainetik, Administrazioak gehien erabiltzen duen esleipen-prozedura –egindako kontratuen ehuneko 50, zuzeneko kontratazioaren ehuneko 45 aurrean–; zenbatekoei begiratzen badiegu, nagusitze hau are eta garrantzikoagoa da, lehiaketa baita esleitutako zenbatekoaren ehuneko 78, eta zuzeneko esleipenak egiten duen portzentaia ehuneko 16 baizik ez delarik.

- Lizitazioaren eta esleipenaren zenbatekoak alderatzen baditugu, ikusten duguna da batez besteko beherakada ehuneko 24 dela –1994an ehuneko 21–, azpimarratzekoa delarik kontratuen ehuneko 17k ehuneko 30ko baino beherakada handiagoa daukatela.

- Azkenik, ondorengo koadroan ikusten ahal da Nafarroako Gobernuak 1991 eta 1995 arteko aldirian erabili dituen esleipen-prozeduren bilakera, ehunekoeta, beti ere.

Ekitaldia	Enkantea	Lehiaketa	Z. Esleipena
1991	1	8	91
1992	0,5	15	84,5
1993	0,3	21	78,3
1994	2	33	65
1995	5	50	45

Ikusten denez, zuzeneko esleipenaren bilakera honako hau izan da: 1991 urtean egin ziren kontratu guztien ehuneko 91 prozedura honen bidezkoa izan zen, eta 1995 urtean, aldiz, egin ziren kontratuen ehuneko 45. Alderantziz, lehiaketa, ehuneko 8 baino ez zena, egun kontratuen ehuneko 50 izatera pasatu da.

- Kontuen Ganbarak 1995 urterako zeukan Jarduketa Planarekin bat etorritik, departamentuei eta erakunde autonomoei informazioa eskatu zaie 1996ko martxora arte bukatu diren obrei buruz, 50 milioi baino gehiago jotzen zutenei buruz. Horretan 102 obra sartzan ziren eta emaitzarik deigarrienak honako hauek dira:

- Lizitazio eta esleipenaren batez besteko beherakada ehuneko 23 dela ikusten da.

- Nolabait, beherakada hau konpentsatzen da, zeren esleipenaren zenbatekoa eta azken kitapenaren zenbatekoa alderatzen baditugu, ehuneko 19ko gehikuntza ikusten baita.

- Esleipen-prozedurari begiratzen badiogu, ikusten duguna da enkanteak eskaintzen duela beherakada-ehunekorik nabarmenena –ehuneko 33–, eta ondoren lehiaketa dator –ehuneko 23–,

eta desbideraketa-portzentairik handiena, kitapenaren eta esleipenaren zenbatekoaren artean, zuzeneko esleipenean gertatzen da —ehuneko 54—. Datu hauetatik ateratzen den ondorioa da lehiaketan eta enkantean eraginkortasuna handiagoa dela zuzeneko esleipenean baino, eta horregatik uste dugu komenigarria dela prozedura hauekin aurrera segitzea, obrarik garrantzizkoenen kasuan gutxienik.

— Obren ehuneko 51n, gutxi gora behera, ez dago desbideraketarik epeari buruz; alabaina, haien ehuneko 21ean gaintzen da bukatzeko data gutxienez 90 egunetan.

c) Erakunde autonomoak (5. gehigarria).

• Nafarroako Gobernuak administrazio izaerako zazpi erakunde autonomo ditu, eta horien aurrekontuak Gobernuaren aurrekontuen barruan daude. 1995eko Oroit-idazkian azaltzen dira, aurreneko aldiz, euren aurrekontuak behar bezala banakaturik.

• 1995ean egindako lanaren arabera, bete dituzten gastu guztiek 70.736 milioi jotzen dute —hau da, Gobernuaren gastu guztien %29—, eta euren dirusarrerak 2.136 milioi dira —dirusarrera guztien %1—. Beraz, 68.600 milioiko behar finantzieroa dago, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak behar horien %81 hartu du bere gain eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak %16.

• 1994ko ekitaldiarekin konparatuz, erakunde autonomoen gastuak %4 gehitu dira, Gobernuaren berezkoak %6 handitu diren bitartean; dirusarreretan berriz, erakunde autonomoenak %12 gutxitu dira, Gobernuaren beraren aurrekontukoak beste hainbeste gehitu direnean. Finantzazio beharrak 2.733 milioi gehiago jotzen du.

Gomendatzen dugu:

Zerbitzu jakin batzuk erakunde autonomoen formularen bitartez ematen jarraitzeari buruzko egokitasuna ebaluatzea, are gehiago horietako batzuk oinarrizko eskumenak mugaturik eta baliabide urriak dituztenean.

Aurrekontu-zorroztasunaren politikaren barruan, Erakunde Autonomek gastua ez gehiagotzeko eta kudeaketa hobetzeko neurriak har ditzaten saiatzea.

d) Zuzenbide publikoko enteak (6. gehigarria)

• NUPek 4.623 milioiko gastuak izan ditu, 5.304 milioiko dirusarreraren aurrean. Horrenbestez, 681 milioiko superabita erakusten du aurrekontuan, nahiz eta 280 milioi hurrengo ekitaldian egin beharreko gastuei atxikirikoak izan. Ohiko gastu

eta dirusarrerak dira nagusi bere aurrekontu-egituran.

1994 urtearekin alderaturik, gastuek ehuneko 18 egiten dute gora, eta dirusarrerek ehuneko 32. Beraz, 1995eko aurrekontuko superabita aurreko ekitaldikoa baino 571 milioi handiagoa da.

Dirusarreraren ehuneko 75 transferentzietatik datoz, batez ere Nafarroako Gobernuaren transferentzietatik.

• Partzuergoak 1995ean 2.073 milioiko gastuak erakusten ditu eta bere dirusarrerek beste hainbeste jotzen dute. Beraz, aurrekontu-kitapenak ez du superabitik, ezta defizitik ere. Dirusarrera ia guztiak Gobernuaren transferentzietatik datoz.

1994 urtearekin alderaturik, gastuek ehuneko 6 egiten dute gora, batez ere inbertsioen gain.

• Nafarroako Merkataritza eta Industriaren Ganbarak kanpoko profesional batek eginiko ikuskapen txostena aurkeztu du, eta beronek salbuespenik gabeko iritzia azaltzen du. Kopururik nabarmenei dagokienez, ohiko dirusarrerek 240 milioi jotzen dute, eta gastuek 286. Ekitaldiko emaitza, beraz, 47 milioi pezeta jotzen duen galera da.

e) Zerga-gastuen aurrekontua (7. gehigarria)

• Zerga-gastuen aurrekontuak, 1995 urtean, 42.968 milioi pezeta jotzen zuen, hau da, zerga-dirusarrera guztien ehuneko 25. Zergaz zerga, azpimarratzekoak dira PFEZren zerga-gastuek jotzen duten portzentaia —ehuneko 33— eta Sozietateena —ehuneko 38—.

• Aurrekontuan sartzen diren aurreikuspenak betetzen ote diren edo joraino betetzen diren jakiteko azterketarik edo jarraipenik egiten denik ez da jaso.

• 1992 eta 1995 urteen arteko Administrazio Zentraleko zerga-gastuen aurrekontuarekin konparatzen badugu, eta hauek prestatzean dauden zailtasun eta muga teknikoa aintzat harturik, honako hau azpimarratuko dugu:

— Orokorrean, zerga-gastuen egiturazko osaketa antzekoa da, gastu hauek goranzko joera daukatela baieztatzen delarik.

— Zerga-irudiei dagokienez, Nafarroak badu zerga-gastu/PFEZko dirusarrera ratio handiagoa, eta Sozietateen gaineko zergan, aldiz, ratioa txikiagoa da.

Gomendioak

Zerga-gastuen zenbatze eta zenbateste-saiolak areagotzea, lortu nahi diren helburuak aintzat

harturik, baita zenbatesten diren kopuruak eta egiazkoak alderatzea, ematen diren alderaketak eta hauek geratzeko arrazoiak aztertuz eta, hala badagokio, zuzenketa-neurri beharrezkoak hartuz.

Kontu Orokorrean zerga-gastuak noraino betetzen diren gaineko informazioa sartzea.

f) Enpresa publikoen sektorea (8. gehigarria).

- Nafarroako Gobernuak kapitalaren gehien-goia –hau da, ehuneko 50 edo gehiago– du 33 enpresatan. 1994 urtearekin konparatuz, aldaketarik garrantzizkoenak hauek dira: Sociedad de desarrollo exterior de Navarra (Sodexna) eta Suspensiones del Norte (Susnor) gaineratzea; Nafinco-k Compel bereganatzea, eta Nafincok Gráficas Estella-n zeukan partaidetza saltzea.

- Profesional independenteeek zein Nafarroako Gobernuaren Kontuhartzaitzak berak 22 enpresa ikuskatu dituzte guztira eta hurrengo emaitza hauek izan dira:

- 14 enpresek iritzi garbiarekin dituzte ikuskaritza txostenak.

- 8 enpresek iritzia salbuespenekin azaltzen dute.

- Enpresa publikoen arloaren datu ekonomiko garrantzizkoenak azpimarratzekotan:

- Enpresa hauetako langileak, 1995 urtean, 1.126 dira. Langileon batez-besteko kostua –soldatak eta gizarte zamak– urteko 4,5 eta 5 milioi bitartekoa da. 7 enpresek ez dute langilerik.

- Enpresa publikoen arloko negozio-zifren zenbateko garbiak 16.072 milioi jotzen du, eta 1.500 milioi baino gehiagoko fakturazioa daukaten lau enpresa nabarmentzen dira –Magnesitas de Navarra, Audenasa, Vinsa eta Funvera–.

- Lortutako dirulaguntzek edo eta emaitzei eratzikitakoek 1.644 milioi egiten dute, eta %2 gutxitu dira, 1994koekin alderatuz.

- Arloko galera garbiek 660 milioi jotzen dute, 1994an izan ziren 1.636 milioiko galeren aurrean, hau da, ia mila milioi gutxiago. Galeretan aipagarriak dira Nafinco –1.062 milioi– eta Soles Systems –569 milioi–. Mozkinetan, 100 milioi baino kopuru handiagoak dituzte Tracasak, Vinsak eta Sodenak, Audenasa emaitza positiboetako sailean sartu delarik.

- 1994koekin alderatuz %29 gehiagotu diren epe luzerako zorrek 26.978 milioi jotzen dute. Zenbateko honetatik 6.088 milioi Nafarroako Gobernuari berari dagozkie.

- Azkenik aipatu behar da Nafarroako Gobernuaren arrisku ekonomikoak bereganatzen ari dela zenbait enpresatan, berorietan aplikatzen ari delako hainbat formula finantziario, abalak, maileguak, aurrerakinak eta gerorapenak, eta ez beti behar diren bideragarritasun-bermearekin.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 22a

Kontuen Ganbarako Lehendakaria: Fco. Javier Tuñón San Martín

IV. FINANTZA-EGOERA

IV.1. EGOERA BALANTZEA 1995/12/31 (PEZETATAN)

2. koadroa

Aktiboa	1995eko ekitaldia	1994ko ekitaldia
A) Ibilgetua	137.377.003.590	130.398.785.429
III. Ibilgetu materiala	96.428.161.229	88.109.111.252
1. Lursailak eta eraikinak	65.217.871.984	59.764.757.674
2. Instalazio teknikoak era makineria	5.010.895.847	4.838.741.662
3. Tresneria eta altzariak	13.546.667.632	12.135.049.200
4. Bestelako ibilgetua	12.652.725.766	11.370.562.716
V. Inbertsio finantziero iraunkorrak	40.948.842.361	42.289.654.177
1. Epe luzeko balore-kartera	18.674.991.179	18.674.926.179
2. Beste hainbat inbertsio eta epe luzeko kredituak	22.273.761.182	23.614.637.998
3. Epe luzerako eraturiko fidantzak eta gordailuak	90.000	90.000
B) Hainbat ekitalditan banatu beharreko gastua	260.707.118	388.349.710
C) Aktibo ibilkorra	80.400.009.382	69.873.306.937
I. Izakinak	536.216.365	557.538.693
2. Lehengaiak eta beste hainbat hornidura	536.216.365	557.538.693
II. Zordunak	26.341.862.836	32.191.722.454
1. Aurrekontuko zordunak	53.781.218.683	54.796.960.861
3. Beste hainbat ente publikoen baliabideak kudeatzeagatiko zordunak	743.483.200	479.067.965
5. Beste hainbat zordun	264.585.321	489.071.129
6. (Hornidurak)	(28.447.424.368)	(23.573.377.501)
III. Aldi baterako inbertsio finantzieroak	53.274.020.520	25.056.821.610
2. Beste hainbat inbertsio eta epe laburreko kredituak	52.775.885.024	24.624.487.649
3. Fidantzak eta epe laburrean eraturiko gordailuak	498.135.496	432.333.961
IV. Diruzaintza	247.909.641	12.067.224.180
Guztira (A+B+C)	218.037.720.070	200.660.422.076
Pasiboa	1995eko ekitaldia	1994ko ekitaldia
A) Norberaren fondoak	25.543.647.055	26.970.891.663
I. Ondarea	19.963.844.281	48.220.796.113
1. Ondarea	19.963.844.281	48.220.796.113
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	7.007.047.382	5.720.763.810
1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	7.007.047.382	5.720.763.810
IV. Ekitaldiko emaitzak	(1.427.244.608)	(26.970.668.260)
C) Epe luzeko hartzekodunak	133.439.114.965	110.373.626.268
I. Obligazio eta beste hainbat balore negoziagarrien jaulkipena	129.706.430.000	106.727.000.000
1. Obligazioak eta bonoak	129.705.430.000	106.727.000.000
II. Beste hainbat epe luzeko zorrak	3.732.184.965	3.645.126.268
2. Beste zor batzuk	3.480.591.417	3.396.214.034
4. Epe luzera jasoriko fidantzak eta gordailuak	251.593.548	248.912.234
III. Akzioen gaineko despoltsapen eskatu gabeak	1.500.000	1.500.000
D) Epe laburreko hartzekodunak	59.054.958.050	63.315.904.145
III. Hartzekodunak	59.054.958.050	63.315.904.145
1. Aurrekontuko hartzekodunak	57.563.340.361	52.212.896.487
2. Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak	500.000.000	–
3. Beste hainbat ente publikoen baliabideak kudeatzeagatiko hartzekodunak	586.819.031	432.068.050
4. Administrazio publikoak	159.129.257	364.023.518
5. Beste hainbat hartzekodun	148.514.695	192.806.662
6. Fidantzak eta epe laburrean jasoriko gordailuak	97.154.706	114.109.428
Guztira (A+C+D)	218.037.720.070	200.660.422.076

IV.2. ONDARE-EMAITZA ETA EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA
(BATERATUA) 1995EKO EKITALDIA

3. koadroa

Z O R	1995eko ekaldia	1994ko ekaldia
A) Gastuak		
2. Hornidurak	8.015.375.666	7.890.830.978
b) Ekitaldiko kontsumoak	8.015.375.666	7.890.830.978
3. Ohiko kudeaketari dagozkion beste hainbat gastu	96.233.635.063	91.153.011.529
a) Langileria gastuak		
a.1) Soldatak eta alokairuak	61.602.812.213	59.189.735.194
a.2) Zama sozialak	8.850.678.154	9.132.038.637
b) Mailegu sozialak	3.609.566.057	3.334.998.731
e) Beste hainbat kudeaketa-gastu		
e.1) Kanpoko zerbitzuak	12.261.360.276	11.890.667.084
e.2) Tributuak	274.559	407.548
e.3) Ohiko kudeaketari dagozkion beste hainbat gastu	385.531.572	379.656.585
f) Gastu finantzioak eta antzekoak		
f.1) Zorren arabera	9.523.412.232	7.070.354.788
f.2) Galerak inberstio finantzioetan	–	155.152.962
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	105.213.218.343	93.004.185.934
a) Ohiko transferentziak	78.871.729.699	67.855.146.198
c) Kapital transferentziak	26.341.488.644	25.149.039.736
5. Galerak eta aparteko gastuak	24.575.157.157	29.899.691.291
a) Ibilgetutik datozen galerak	172.868.260	368.671.155
c) Aparteko gastuak	18.814.962.670	26.011.340.329
d) Gastuak eta beste ekitaldietako galerak	5.587.326.827	3.519.679.807
GUZTIRA	234.037.386.829	221.947.719.732
H A R T Z E K O	1995eko ekaldia	1994ko ekaldia
B) Dirusarrerak		
1. Ohiko kudeaketatik dirusarrerak	194.882.513.464	160.946.538.651
a) Zor-dirusarrerak		
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	75.972.305.328	66.400.513.516
a.2) Sozietateen gaineko zerga	21.886.676.617	13.611.706.667
a.3) Ondorengotzak eta dohaintzen gaineko zerga	687.131.417	386.525.937
a.4) Ondarearen gaineko zerga	3.364.852.878	3.030.694.000
a.6) Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga	–	2.333.091.256
a.9) Ondare eskualdatze eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	9.543.297.361	8.136.817.271
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	74.756.976.957	61.734.422.342
a.11) Zerga bereziak	8.671.272.906	5.312.767.662
2. Ohiko kudeaketatik datozen beste hainbat dirusarrera	14.198.271.929	10.987.656.937
a) Salmentak eta zerbitzu-emateak	4.995.589.818	4.682.430.200
b) Kudeaketatik datozen beste hainbat salmenta	4.409.209.648	3.499.364.074
d) Kapitalean parte hartzeagatik dirusarrerak	2.003.566	2.006.567
e) Beste balore negoziagarri batzuetatik eta aktiboko ibilgetuaren kredituetatik datozen dirusarrerak	4.791.468.897	2.803.856.096
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	18.180.946.281	18.438.894.968
a) Ohiko transferentziak	18.180.946.281	18.438.894.968
4. Irabaziak eta aparteko dirusarrerak	5.348.410.547	4.603.960.916
a) Ibilgetutik datozen mozkinak	75.194.274	194.492.914
c) Aparteko dirusarrerak	3.761.401.421	3.792.328.505
d) Beste hainbat ekitalditako dirusarrerak eta mozkinak	1.511.814.852	617.139.497
Saldo zorduna (Desaurrekia)	1.427.244.608	26.970.668.260
GUZTIRA	234.037.386.829	221.947.719.732

IV.3. GASTU-AURREKONTUAREN BETETZEA, KAPITULU EKONOMIKOKA
(milaka pezetatan)

4.1. koadroa

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Betetz. %	Aitor %
1. Langileen gastuak	72.906.681	1.708.168	74.614.849	73.515.153	99	31
2. Ohiko Ond. eta Zerb. gastuak	21.218.576	634.235	21.852.811	21.189.124	97	9
3. Finantza-gastuak	8.202.876	1.333.717	9.536.594	9.524.991	100	4
4. Ohiko transferentziak	78.609.645	2.302.073	80.911.718	78.871.730	97	33
Ohiko eragiketak, guztira	180.937.778	5.978.193	186.915.972	183.100.998	98	76
6. Inbertsio errealak	31.742.208	- 725.016	31.017.193	28.293.115	91	12
7. Kapital transferentziak	27.227.823	1.287.905	28.515.729	26.341.489	92	11
Kapital eragiketak, guztira	58.970.031	562.889	59.532.922	54.634.604	92	23
8. Finantza-aktiboak	2.971.251	143.477	3.114.729	3.094.129	99	1
9. Finantza-pasiboak	215.887	18.152	234.039	138.038	59	0
Finantza-eragiketak, guztira	3.187.138	161.629	3.348.768	3.232.167	97	1
Gastuak, guztira	243.094.947	6.702.711	249.797.662	240.967.769	96	100

DIRUSARRERA-AURREKONTUEN BETETZEA, KAPITULU EKONOMIKOKA
(milaka pezetatan)

4.2. koadroa

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Betetz. %	Aitor %
1. Zuzeneko zergak	93.325.000	-	93.325.000	101.910.966	109	39
2. Zeharkako zergak	79.075.000	34.000	79.109.000	92.971.547	118	36
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	6.688.990	141.409	6.830.399	9.404.004	138	4
4. Ohiko transferentziak	17.416.916	440.201	17.857.117	18.180.946	102	7
5. Ondare dirusarrerak	3.555.822	-	3.555.822	4.795.211	135	2
Ohiko eragiketak, guztira	200.061.728	615.610	200.677.338	227.262.674	113	87
6. Inbertsio errealak besterenganatzea	1.050.910	-	1.050.910	1.680.652	160	1
7. Kapital transferentziak	4.057.913	414.614	4.472.527	3.664.022	82	1
Kapital eragiketak, guztira	5.108.823	414.614	5.523.437	5.344.674	97	2
8. Finantza-aktiboak	4.024.396	5.672.490	9.696.886	4.240.119	44	2
9. Finantza-pasiboak	33.900.000	-	33.900.000	23.000.000	68	9
Finantza-eragiketak, guztira	37.924.396	5.672.490	43.596.886	27.240.119	62	10
Dirusarrerak, guztira	243.094.947	6.702.714	249.797.662	259.847.467	104	100

GEHIGARRIAK.**1. GEHIGARRIA. FORU OGASUNAREN EKONOMI ETA FINANTZA EGOERA 1995EKO ABENDUAREN 31N.**

Atal honetan Foru Ogasunaren ekonomi eta finantza egoeraren berri eman nahi dugu 1995eko abenduaren 31n, ikuspegi hauetatik ikusirik:

– 1995eko aurrekontu-betetzearen azterketa zehatza

– Foru Ogasunaren finantza-egoeraren azterketa

– Aurrekontu-agertokia noraino bete den.

Ondoren atera ditugun emaitzik nabarmenak azalduko ditugu.

1.1.1995EKO AURREKONTUAREN BETETZEAREN AZTEKETA.**1.1.1. Hasierako aurreikuspenak/aldaketak.**

1995eko Aurrekontua 243.095 milioko gastuekin onartu zen, eta finantzaz besteko dirusarrera teorikoak 209.195 milioikoak ziren, beraz kanpotik finantziatu beharreko kopurua 33.900 milioi zen.

Aurrekontu honek eduki zituen aurrekontu-aldaketa garbiak 6.703 milioi izan ziren, hau da, hasierako aurrekontuko ehuneko 2,8. Alabaina, egiazko aldaketek 7.161 milioi jo zuten, horietatik 458 milioi gastu-gutxiagotzearekin finantziatzen diren arren. Kopuru hauetan ez dira sartzen egin diren aurrekontu-transferentziak, aurrekontuaren kopuru osoaren aldaketariki ez dakartenez.

Ondorengo koadroak 1991 eta 1995 urteen arteko aldaketa garbien ehunekoen bilakaera azaltzen du.

Ekitaldia	aldaketen %
1991	11,3
1992	2,5
1993	1,5
1994	3,3
1995	2,8

Ikusten denez, Aurrekontuaren betetzea, zenbatekoen aldetik, nahiko ehuneko onargarrietan mantentzen da, eta hasierako aurreikuspenekiko dauden desbideraketak ez dira sobera nabarmenak.

Aldaketa garbi hauen zenbatekoa eta izaera, 1995eko aurrekontuan, ondoren adierazten dena da (milioitan):

Aldaketa	1994	1995
Aparteko Kredituak	–	86
Kreditu osagarria	776	2.236
Kreditu gehikuntza	4.476	3.027
Kreditu gainerapena	1.295	305
Dirusarrerengatiko sorkuntza	1.014	1.049
Guztira	7.561	6.703

Azpimarratzekoa da kreditu gehigarrien garrantzia, aldaketa guztien ia %45 azaltzen baitute. Gehikuntzarik nabarmenena zor publikoaren korrituak finantzatzeko kredituaren gehikuntza izan zen –1.174 milioi–, kontusail honek hainbat kreditu-gutxiagotzea jasan baitzuen Parlamentuan Aurrekontua eztabaidatu zenean.

Kreditu-osagarrien artean, nabarmenenak izan dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren behar finantzieroengatik eman behar izan direnak –1.275 milioi, batez ere botika-prestazioak eta Gizarte Segurantzakoak– eta Hezkuntza Departamentura arrazoi berberaz joan direnak, –961 milioi lan kontratupeko langileentzat–.

Kredituen gainerapena Europako Batasunak emaniko ekarpenetatik dator, batez ere –368 milioi–, eta hitzartu gabeko tributuetan parte hartetik –221 milioi–.

1. eraskinean aurrekontu aldaketen informazio zehatza jasotzen da, departamentuka eta kapitulu ekonomikoka.

Kapituluka, aldaketen bidez hazkunderik handiena izaten dutenak Ohiko Transferentziak –2.302 milioi– eta Langileria –1.708 milioi–. Alderantzizko norabidean, Inbertsioak gutxiagotu egiten dira, 725 milioi, hain zuzen. Ehunekoetan, hala ere, azpimarragarria da Korrituen kapituluak jasaten duen gehiagotzea –ehuneko 16ko hazkundera–.

Departamentuka, kreditu-hazkunderik handiena Ogasun eta Ekonomia Departamentuan eta Osasun Departamentuan gertatzen dira, ehuneko 8ko eta 2ko hazkunderarekin, hurrenez hurren; gutxiagotzerik handiena Herrilan Departamentuari dagokio.

Kreditu transferentziek, aurrekontua bere osotasunean aldatu ez baina hasierako aurreikuspenak, aldiz, aldatu egiten dituztenek, 200 milioi egiten dute –departamentuka– eta 339 milioi –kapituluka–.

1.1.2. Betetze ekonomikoa.

Aitorturiko obligazioek 240.968 milioi egiten dute, eta lehengo ekitaldiarekin alderaturik ehuneko 6 handiagotu direla ikusten da.

Gastuak ehuneko 96an bete dira, hau da, 1994an adina.

Kapituluka, Langileriarenak, finantza-gastuarenak eta finantza-aktiboarenak ia ehuneko 100ean betetzen dira, Pasibo Finantzieren Aldaketa ehuneko 59koa baizik ez den bitartean.

Ondorengo koadroan azaltzen dira bai gastutalde bakoitzak, bete den guztiarekin alderaturik, daukan garrantzia erlatiboa, eta bai 1992 eta 1995 urteen bitartean izan den bilakaera:

	1992	1993	1994	1995
Ohiko gastua	70	74	73	76
Kapital-gastua	27	24	25	23
Finantzieroa	3	2	2	1
Guztira	%100	%100	%100	%100

Nahiko egoera egonkorra mantentzen da, nahiz eta 1995 urtean ohiko gastuek hiru puntu gora egin duten, kapital-gastuetan bi puntu eta finantzieroetan puntu bat galtzetik datozenak.

5. koadroan gastu guztia azaltzen da, departamentuka, baita aurreko ekitaldiko gastuarekiko alderaketa ere.

5. koadroa – Gastuak departamentuka
(milioi pezetatan)

Departamentua	1994 urtea	Guztiaren %	1995 urtea	Guztiaren %	Aldaketaren %
P. Parlamentua	747	0,33	824	0,34	10
0. Lehendakartiza	12.355	5,41	12.724	5,28	3
1. Ekonomi eta Ogasuna	24.641	10,80	33.746	14,00	37
2. Toki Administrazioa	22.436	9,83	23.342	9,69	4
3. Lurraldearen Antol. eta Ingurugiroa	1.920	0,84	1.947	0,81	1
4. Hezkuntza eta Kultura	43.410	19,03	46.220	19,18	6
5. Osasuna	56.854	24,92	58.247	24,17	2
6. Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	23.709	10,39	17.821	7,40	(25)
7. Nekazaritza, Abeltzantza eta Mendiak	11.774	5,16	13.386	5,56	14
8. Industria, Merkat., Turismo eta Lana	9.999	4,38	10.579	4,39	9
9. Gizarte Ongi., Kirola eta Etxebizitza	20.320	8,91	22.132	9,18	9
Guztira	228.165	100	240.968	100	6

Azterketa honetatik ateratzen duguna da oinarrian gastuaren egitura mantendu egiten dela, Osasuna eta Hezkuntza artean gastu guztiaren ehuneko 43-44 egiten dutelako, 1994 urtearekin alderaturik ehuneko 2 eta 6 gehitu direlarik. Alabaina, hazkunderik handiena Ekonomi eta Ogasunean gertatzen da, ehuneko 37 –batez ere Hitzarrena dela eta–, ekitaldiko gastu guztiaren ehuneko 14 harrapatzen duelarik..

Gastuaren murrizketari buruz, Herrilan Departamentua da bere gastuetan gutxiagotzea duena, ehuneko 25, hau da, 1995 urtean 1994 urtean baino 5.888 milioi gutxiago gastatu ditu.

Aitorturiko eskubideek 259.847 milioi egin dute, aurreko ekitaldiarekin alderatuz ehuneko 12 igo direlarik.

Dirusarreraren betetze maila ehuneko 104 izan da, 1994ko Aurrekontukoa baino 7 puntu gehiago.

Kapituluka, inbertsio errearen besterengantzea –ehuneko 160ko betetzearekin– eta tasak, salneurri publikoak eta bestelako dirusarrerak –ehuneko 138koarekin– nabarmentzen dira. Zuzeneko zein zeharkako zergetan lortu den eguneko handia ere azpimarratzekoa da.

Zor publikoarengatik dirusarreretan, 33.900 milioi aurreikusten baziren ere, jaulkipenetan benetan 23.000 milioi baizik ez dira gauzatu.

Dirusarrera-talde bakoitzaren pisu espezifikoak, aitortu den guztiarekin alderaturik, eta bakoitzaren 1992 eta 1995 urteen arteko bilakaera, ondorengo hau da:

	1992	1993	1994	1995
Ohiko dirusarrera	80	81	82	87
Kapital dirusarrera	2	2	1	2
Finantzieroa	18	17	17	11
Guztira	100%	100%	100%	100%

Ikusten ahal denez, egoera, 1995 urteaz geroztik, nabarmen aldatu da, ohiko dirusarrerak

pisu espezifiko berreskuratu baitute -5 puntu-, finantzierok galdu duten biartean.

6 zk.ko koadroan departamentu bakoitzari dagozkion dirusarrerak eta 1994 urtearekiko alde-raketa ikusten ahal dira. Argi denez, Ekonomiaren nagusigoa mantentzen da dirusarreretan -ehuneko 94-, eta azpimarratzekoak da, baita ere, Herrilanak izan duen gehiagotzea -ehuneko 141, Europako Batasunaren fondoei esker-.

6. koadroa - Dirusarrerak departamentuka (milioi pezetatan)

Departamentua	1994 urtea	Guztiaren %	1995 urtea	Guztiaren %	Aldaketaren %
0. Lehendakaritza	890	0,38%	1.022	0,39%	15
1. Ekonomi eta Ogasuna	218.372	93,98%	243.198	93,59%	11
2. Toki Administrazioa	4.135	1,78%	4.616	1,78%	12
3. Lurraldearen Antol. eta Ingurugiroa	243	0,10%	439	0,17%	81
4. Hezkuntza eta Kultura	820	0,35%	1.219	0,47%	49
5. Osasuna	1.103	0,47%	1.166	0,45%	6
6. Herrilan, Garraio eta Komunikazioak	454	0,20%	1.092	0,42%	141
7. Nekazaritza, Abeltzantza eta Mendiak	1.987	0,86%	1.835	0,70%	(8)
8. Industria, Merkat., Turismo eta Lana	1.809	0,78%	2.589	1,00%	43
9. Gizarte Ongi., Kirola eta Etxebizitza	2.541	1,09%	2.672	1,03%	5
Guztira	232.354	100%	259.848	100%	12

2 zk.ko eraskinean, eta informazioa zehaztasun-maila handiagorekin emateko, sailkapen ekonomikoaren arabera 1995eko Aurrekontuaren betetzea aurkezten da, kapituluka eta artikuluka.

Azkenik, esan behar dugu gure iritziz Gastuen eta Dirusarreraren Egoera 1995eko zor publikoaren jaulkipenetik datozen 20.000 milioirekin gehitu beharko litzatekeela. Jaulkipen honen helburua zen beste hainbeste jotzen duen 1994ko zorra amortizatzea, eta Gobernuak aurrekontuaz kanpoko trataera ematen dio eragiketa honi.

1.1.3. Aurrekontuaren emaitza.

Aurrekontuaren emaitzak (aitorturiko eskubi-deak, guztira, ken aitorturiko betebeharrak) 18.879 milioiko superabita aurkezten du, hau da, 1994 urtean baino 14.690 milioi gehiago. Geroago iruzkinduko ditugu magnitude honen alderik esanguratsuenak.

1.4. Gastu-egoeraren betetze funtzionala.

Atal hau bukatzeko, 3 zk.ko eraskinean 1994ko aurrekontu betetzea aurkezten da, **sailka-**

pen funtzionalaren arabera, eta aurreko ekitaldiekiko alderaketa.

Azterketa egin eta gero azpimarratu behar da "Izaera sozialeko ondasunen produkzioa" (batez ere osasungintza, irakaskuntza eta etxebizitza) gastu funtzionalaren ardatza dela -ehuneko 49-, eta zenbateko hau, gainera, urtero hazitzen dela -4 puntu 1994 urtearekin alderatuz-. Ondoren, "Sektore Publikoarentzako Transferentziak" (Hiltzarmena Estatuarekin eta Udalbatzak) eta "izaera ekonomikoko ondasunen produkzioa" (batez ere azpiegiturak) direlakoek gastuaren ehuneko 15 eta 11 azaltzen dute, hurrenez hurren, nahiz eta azkena bere garrantzia emeki emeki galtzen ari den -1992an baino 9.107 milioi gutxiago-.

1.2. FORU OGASUNAREN FINANTZA-EGOERAREN AZTERKETA.

7. koadroan aurrekontuko zenbaki garrantzikoenen bilakaera biltzen da, 1992tik 1999era eta

Nafarroako Gobernuak eman duen informazioaren arabera.

Azterketa egin eta gero, hona azpimarratu nahi duguna:

7. koadroa.- Aurrekontu atalen bilakaera 1992-1995
(milioi pezetatan)

	1992	1993	1994	1995
Ohiko dirusarrerak	173.067,2	189.154,1	190.373,5	227.262
Ohiko gastuak	161.238,8	174.681,3	166.786,5	183.101
Aurrezki gordina	11.828,4	14.472,8	23.587	44.161
Ohiko dirusarreraren gaineko aurrezki g. %	6,8%	7,6%	12,4%	19,4%
BPG gaineko aurrezki gordinaren %	1,3%	1,5%	2,4%	3,9%
Kapital dirusarrerak	4.503	5.787,8	3.821,8	5.345
Kapital gastuak	62.223,8	56.292,2	56.627,6	54.635
Finantziatu beharrekoa	(45.892,4)	(36.031,6)	(29.218,8)	(5.129)
Finantzaz besteko dirusarreraren g. FBren %	25,8%	18,5%	15,1%	2,2%
BPGren gaineko FBren %	5,1%	3,9%	2,9%	0,5%
Epe luzean metaturiko zorra	40.859,8	76.591,1	110.123,2	133.186
Dirusarrera ez finantzieren g. zorraren %	23%	39,3%	56,7%	57,3%
PBGren gaineko zorraren %	4,6%	8,2%	10,1%	11,8%
Estat. kargei ematen zaien ekarpena	27.374	28.318,8	13.765,3	21.164
Dirusarrera ez finantz. g. ekarpenaren %	15,4%	14,5%	7,1%	9,1%
PBGren gaineko ekarpenaren %	3,1%	3%	1,4%	1,9%

Aurrezki gordina: Ohiko dirusarrerak-ohiko gastuak

Finantzazio beharra: Aurrezki gordina + kapital dirusarrerak –kapital gastuak

1. Aurrezki gordinak –ohiko dirusarreraren eta gastuen arteko diferentziak– gorantza duen joerari eutsi egiten zaio, bai zenbateko osoak aintzat hartuz, baita Foru Komunitateko BPGren eta ohiko dirusarreraren ehunekoen gainean. Bereziki azpimarratzekoa da 1995 urtean jasotzen den gehikuntza –aurreko ekitaldian baino 20.574 milioi gehiago–; gehikuntza honen arrazoia da ohiko dirusarreraren igoera –ehuneko 19–, ohiko gastuen igoera –ehuneko 10– baino askoz ere handiagoa izan dela.

2. Finantziatu beharrekoa edo defizita –Aurrezki gordina gehi kapital dirusarrerak ken kapital-gastuak– nabarmen jaitsi da 1995ean, oreka finantzieren egoerara iristen delarik, ia ia. Aurreko lerroaldean esaten denaz gain, honen arrazoia bilatzeko jakin behar da kapital gastuen hurrenez hurreneko gutxiagotzea badagoela –1995ean 1992an baino ehuneko 12 gutxiago–.

Alabaina, ondorengo koadroan alderatzen dira finantzazio beharren ehuneko finantzieren ez diren dirusarreraren gaineannahiz BPGren gainean, bai Nafarroan eta bai Estatuko Administrazioan, eta emaitzak ondorengo hauek dira:

Finantzazio beharrak	Nafarroa	Estatua
Finantz. ez diren dirusar. %	2,2	22,4
BPGren gaineko %	0,5	4,5

Ikusten denez, Nafarroako portzentaia Estatuan ikusten direnak baina nabarmen bajuagoa da. Alabaina, komeni da esatea 1996 urterako aurreikusten dela, konbergentzia helburu gisa, Administrazio guztiek BPGren gaineko ehuneko 0,2ko ratioa edukitzea.

3. Epe luzeko Zor Publikoari dagokionez, 1992 urtetik aurrera hazitzen joan da nabarmen, 1995 urtean 133.186 milioikoa izatera iristi delarik, hau da, BPGren ehuneko 11,8, eta finantzaz besteko dirusarrera guztien ehuneko 57. 1994 urtearekin alderaturik, zorra ehuneko 21 gehitu da. Aitzitik, 1994n, 1993 urtearekin alderaturik, igoera ehuneko 44 izan zen. Beraz, zorraren hazkundea gutxiagotze edo beherantza bidean sartu dela esan daiteke.

Halaber, zorraren gehikuntza honek ekarri du, baita ere, kredituak gehitzea Gastuen Aurrekontuko 3. kapituluan “Korrituak” eta 9. “Amortizazioak”

izenekoetan, zeinak, izan diren betetzeen arabera, ondoko bilakaera hau baitauka (milioi pezetatan):

	1992	1993	1994	1995
3. Kapituluak	381	5.099	7.082	9.525
9. Kapituluak	187	269	446	138
Guztira	568	5.368	7.528	9.663
Aurrekontuaren %	0,2	2,3	3,3	4

Hots, aztertu den epean, 3. eta 9. kapituluaren dotazioak gastu guztien ehuneko 0,2 izatetik bien artean ehuneko 4 izatera pasatu dira. Bestalde, esan behar da ezen, orokorrean, Nafarroako zorra erabat amortizatzen dela indarreko epearen ondoren, eta horregatik etorkizuneko aurrekontuei pasatzen ari zaie gerorapen horren ondorioa den amortizazioaren zenbatekoa.

Azkenik, ondorengo gertaera bezala, adierazi behar da 1996ko urtarrilean 1.554 milioi jotzen duen Gizarte Segurantzarekiko zorraren birsaikakapena egin dela, lehen epe laburreko hartzekodunetan –erresultak– sartuta zeudenak. Hau honela izan da Gobernuak eskatu eta lortu egin duela epe luzeko gerorapena. Beraz, epe luzeko zorrak

gerorapenak beste egiten duen gehikuntza dauka, kopuru osoak 134.740 milioi egiten duelarik.

4. Estatuarekin izenpetu zen Hitzarmen Ekonomikoaren ondorioz Estatuko karga orokorreari ematen zaien ekarpena. 1994 urtearekin alderaturik, karga hauentzako ekarpenak 1995ean izan duen gehikuntza 7.399 milioi pezeta izan da. Honek finantzaz besteko dirusarreraren ehuneko 9 egiten du eta Nafarroako BPGren ehuneko 1,9.

Alabaina, gogorarazi behar da ezen, 1994ko txostenean esaten zen bezala, ekitaldi hartan zerbaki honek izan duen gutxiagotzea aurreko ekitaldietako behin betiko egozpenen ondorioz gertatu zela.

5. Aurrekontuaren emaitzaren bilakaera –finantzazio beharrak gehi/ken finantza-eragiketen emaitza–, 8. koadroan biltzen da.

Ikusten denez, 1993 urtean hasiriko joerari eutsi zaio, eta bai 1994 urtean nola 1995 urtean ere aurrekontu kitapena superabitarekin ixten da –19.000 milioi 1995ean–.

Alabaina, jarduketa honen jatorria Zor Publikoaren jaulkipenak –23.000 milioi 1995ean– izan dituen emaitza finantziario positiboetan bilatu behar da.

8. koadroa – Aurrekontuaren emaitza (milioi pezetatan)

	1992	1993	1994	1995
Finantziario beharra edo finantzaz besteko emaitza	(45.892,4)	(36.031,6)	(29.218,8)	(5.129)
Emaitza finantziarioa	33.071	34.856,6	33.407,5	24.008
Aurrekontuaren emaitza	(12.821,4)	(1.175)	4.188,8	18.879

6. Azkenik, ondorengo koadroan alderatzen ditugu, 1994 eta 1995 urteetan, epe laburreko zordunen zerrenda eta epe laburreko betebeharrak (milioitan)

	1994	1995
Epe laburreko zordunak	32.192	26.342
Aldi baterako inbertsio finantziarioak	25.056	53.274
Diruzaintza	12.067	248
– Epe laburreko hartzekodunak	(63.316)	(59.055)
libikorraren superabita	5.999	20.809

Hitz batez, ibilkorrak nabarmen egiten du gora, dirusarrerara likidoak nabarmen igotzen direlako, batez ere (pasiboak eskuratzea eta zerga izaerakoak, endemas). Erabilgarri honen zati handia, abenduaren 31n, aldi baterako inbertsio finantziarioen barruan sartuko litzateke

Erabilgarritasun hauek eta zerga-dirusarreraren joerari eusteak ahalezko bihur dezakete zor publikoaren amortizazio-planak aurreratzea komenigarria ote denaztertzeari ekitea.

1.3 AURREKONTU AGERTOKIA.

Monetaren Batasun Ekonomikoaren hirugarren fasera sartu ahal izateko beharrezkoa da, Maas-tricht-eko Itunak azaltzen duen bezala, konbergentzia ekonomiko-maila bat lortzea, eta honek eskatzen du, beste hainbat adierazleen artean, finantza publikoak ukitzen dituzten bi adierazle ezartzea: defizita edo finantziatu beharrezkoa ez izatea BPGren ehuneko 3 baino gehiago eta zor publikoaren bolumena ez izatea BPGren ehuneko 60 baino handiagoa.

Bi helburu hauek lortzearen, Administrazio Publiko guztiek Aurrekontu-agertokia taxutzen dute, 1992 eta 1996 urteen artekoa.

Haatik, Espainiako egoera ekonomikoak, batez ere 1992ko bukaeran hasi zen atzerapenak, aurrekontu-agertokian aurreikusitako helburuak lortzea eragotzi egin dute; hortaz, helburuak doitu

eta berrikusi egin dira aurrekontu-agertoki berri bat egin delarik, Administrazio Publiko guztiei aplikagarria dena, 1995ean izenpetu zena eta 1997 urtera arte luzatzen dena.

9 zk.ko koadroan Foru Komunitateko Administrazioari dagozkion zenbatespenak bildu ditugu

9. koadroa.- 1995-1997 aurrekontu agertokia
(milioi pezetatan)

	1995	1996	1997
Finantzaz besteko dirusarrerak	209.423	226.729	244.397
Finantzaz besteko gastuak	232.460	243.213	253.305
Finantziatu beharrekoa edo defizit	23.037	16.484	8.908
Finantzaz besteko dirusarreraren g.ko %	11%	7,3%	3,6%
Zorra	134.660	152.744	162.452
Finantzaz besteko dirusarreraren g.ko %	64,3%	67,4%	66,5%

Ondoren, eta 1995 urterako, aurrekontu bete-tzearen ondoriozko egiazko datuak eta Agertokian islatzen ziren aurreikuspenak alderatuko ditugu (milioitan)

	Agertokia	Betetzea	Alderaketa
Finantzaz besteko dirusarrerak	209.423	232.607	
Finantzaz besteko gastuak	232.460	237.736	
Finantziatu beharrekoa (FB)	23.037	5.129	
FBk finantzaz besteko dirusarreretan egiten duen %	11%	2,2%	SI
Zorra (Z)	134.660	133.186 *	
Zk finantzaz besteko dirusarreretan egiten duen %	64,3%	57,3%	SI

* 1996ko urtarrilean Gizarte Segurantzarekin egin den birsailkapena kontuan hartu gabe.

Foru Ogasun Publikoak bete du, beraz, Agertokiak 1995 urterako aurreikusten zuen agertokia, batez ere finantzaz besteko dirusarrerak eduki duten gehikuntza handiari esker, eta neurri apalagoan izaera bereko gastuen kontrolari esker. Alabaina, Zor Publikoaren alorrean, egiazko bolumena aurreikuspenei hurbildu zaiela esan behar da, are eta gehiago kontuan hartzen badugu lehengo lerroaldean komentatu dugun Gizarte Segurantzarekiko 1.554 milioiko zorra epe luzeko zortza hartzen dela kontsideratzen badugu.

Ondorio bezala, 1995 urtean finantza publikoek ezarri diren aurrekontu-zorroztasuneko neurriei egoki erantzun dietela esan dezakegu. Hala ere, ez da aiantzi behar erantzun egoki honen alde etorri dela ekitaldiko egoera ekonomiko ona -zerga-dirusarrerak handiagoak izatea ekarri

duena-, zeren, beste aldetik, Agertokiko finantzaz besteko dirusarrerak aurreikusitakoa baino 5.276 milioi handiagoak izan baitira.

Hori dela eta, gastuaren saneamendu eta murrizketarako nola baliabideen izendapen eta kudeaketara neurriak aplikatzen segitu behar da. Horrek ekarri behar du Nafarroako Gobernuak aurrera eramaten dituen politika eta programa guztien aldizkako berrazterketa sistematikoa eta egituratua, arrazoizkoak eta egokiak ote diren analizatzeko, eta oihartzun ekonomikoa eduki dezakeen edozein jarduketa publikori ekin baino lehen, aurrekontuaren aldetik balorazioa egin beharra derrigorrez bete beharreko arau gisa sartzeara.

Neurri hauen hartzeak, 1994ko Konturi buruzko txostenean esaten zen bezala, eraginkortasun handiagoa hartuko luke denak batera hartuko baliara aintzat epe ertaineko Jarduketa Plan baten barruan, gizarte guztia ukituko zuena eta aurrekontu-izaerako ekintzak, zerbitzuen antolakuntza-ekintzak, langileriaren politikari buruzkoak eta zerga-izaerako ekintzak bilduko zituen, eta, beharrezkoa izanez gero, hainbat funtzio edo jardueren arauak aldatzearen aldeko ekintzak ere, zeinak, noski, Parlamentuaren babes nahikoa beharko baitzuen.

2. GEHIGARRIA. BALANTZEAREN AZTERKETA ETA AZTERLARITZA.

Iruzkindu bezala, 1995eko Balantzea eta Emaizta Kontua -eta 1994koekin alderatzea- Kon-

tabilitate Plan berrian ezarritako eskema eta eta kontzeptu terminologiko berrien arabera aurkeztu dira.

Ondoren jarriko ditugu egindako lanetik ateratzen diren alderdirik behinenank, aurkezteko eskema berriarekin bat.

2.1. AKTIBOA.

2.1.1. Ibilgetu materiala eta ez materiala.

Azpitalde honen saldoak ondoren erakusten den bilakaera izan du (milioi pezetetan)

I. Materiala-Ez materiala	1994/12/31	1995/12/31
Lursailak eta eraikinak	59.765	65.218
Instalazioak	4.839	5.010
Tresneria eta altzariak	12.135	13.547
Beste hainbat ibilgetu	11.370	12.653
Guztira	88.109	96.428

Hau da, saldoaren gehikuntzak 8.319 milioi jotzen du, hau da, ehuneko 9ko gehikuntza. Honen arrazoia lursailetan eta beste eraikinetan bilatu behar da.

Goian esandako ibilgetua, Oroit-idazkiak dioenaren arabera, Foru Komunitatearen Administrazioaren -71.339 milioi- eta bere erakunde autonomoen artean banatzen da, ondoren aipatzen den banketaren arabera (zenbatekoa milioitan):

EA	Zenbatekoa
NGOI	1.947
O-NOZ	21.988
EVENA	620
NAPI	119
NKGI	314
NLOI	101
Guztira	25.089

Arlo honetako lanak ondorengo gorabehera hauek hartu ditu kontuan:

– Kontabilitateari buruzkoak, ibilgetuaren errejistroa eta Inbentarioaren egungo egoera.

– Aurrekontu-kontabilitate eta kontabilitate orokorraren arteko berdinkatzea.

Ondoren atera diren ondorioak eta interesgu-neak aipatuko ditugu, 1994ko txostenean eman zirenen oso antzekoak direla aurretik esanda:

Inbentarioa eta kontabilitatea

• Ibilgetuaren kontu iragankorren berrazterketa eta arazketa egin gabe daude, eta hau ezer baino

lehen egitea beharrezkoa da ondare-masa honen kontu behin betikoek Nafarroako Gobernuaren ondasun-multzoa egoki islatuko badute.

• Ez da definitu Kontabilitatea eta Higiezin Inbentarioaren arteko lotura egiteko metodoa, eta berau beharrezkoa da Inbentarioa etengabe eguneratua eduki ahal izateko.

• Inbentarioari dagokionez:

– Ekitaldian zehar ez da horren arduradunik izan.

– Programa informatikoaren garapena bukatzen ari da.

– Ondasun higikorren inbentarioa bukatzeke dago, higiezin berrazterketari eman baitzaio lehentasuna.

– Inbentarioa eta katastroko informazioa harremanetan jarri nahi da.

– Zenbait departamentuk, bere jarduera dela eta, badu bitxikeriarik beren ondasunak inbentarioan sartzeko. Departamentu hauekin bilerak egin ari dira.

Aurrekontu-kontabilitatea eta kontabilitate orokorra berdinkatzea.

• Gastuen aurrekontuko 6. kapituluan, "Inbertsioak" izenekoan islatzen diren zenbateko guztiak zordunketa bezala egotzi dira Ibilgetuaren kontuetan.

• Kontu horiek aurrekontuetatik datozenak baino zordunketa handiagoak islatzen dituzte, badirelako aurrekontuarekin zerikusirik ez duten zenbait eragiketa, aldi berean Ibilgetuan oihartzuna badutena. Hala aipatzen ahal ditugu salmenten baliogabetzeak, emateak, erregularizazioak eta zuzenketak-doiketak.

• Ibilgetuko baje artean Nafarroako Unibertsitateari eginiko lursail-salmenta bat nabarmentzen da. Beronek 199 milioi jotzen du. Espedientea berraztertu eta gero, hona azpimarratu beharrezkoa irisitu zaiguna:

– Balorazioa peritazioaren bidez egin da, bi aldeak –Gobernua eta Unibertsitatea– ez direlako adostasunera iritsi.

– Ondasuna inbentarioan sartuta zegoen, baina ez zegoen baloratuta.

– Besterenganatzearen ondorioz, baja ematen da bai inbentarioan eta baita kontabilitatean ere, bigarren honetan salmentaren salneurriaren arabera, hasieran ematen zitzaion balioa zenbatekoa zen jakiten ez den arren. Hitz batez esanda, baja

ematen zaie kontabilitatean aurrez erregistraturik ez dauden ondasunei.

Ondorioz, eta lehen esan dugunarekin bat etorrituz, ezin dezakegu iritzirik eman libilgetu material eta ez materialen saldoei buruz, hau da, saldo hauek 1995eko abenduaren 31n Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko izaera honetako ondatsunen berri egoki ematen duten edo ez.

Horregatik Ganbara honek berriz errepikatzen du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak inbentario egoki osatua izatea, beren finantza-egoerek Gobernuaren jabetzapeko ondatsunak zeintzuk diren ahalik eta fidelen jakinaraz dezaaten.

Gure gomendioa:

Nahi den inbentario-eredutik abiatuz, prozedura orokorrak garatzea, aplikatu beharreko irizpide teknikoak ezartzea eta beharrezkoak diren giza eta gauzako balibideak paratzea.

Inbentarioaren eta kontabilitate-sistemaren arteko koordinazio zuzena ziurtatuko duten mekanismoak ezartzea, inbentarioa beti eguneratua egon dadin.

Libilgetuaren kontabilitate-saldoak arazteari ekitea, hauek errealtatean ongi ordezkatu dezaten.

2.1.2. Finantza-ibilgetua.

Ondare-masa honek ondoren adierazten den bilkaera izan du (milioitan):

Finantza-ibilgetua	1994/12/31	1995/12/31
Epe luzeko balore-kartera	18.675	18.675
Epe luzeko beste hainbat inbertsio	23.615	22.274
Guztira	42.290	40.949

Hau da, aldaketa garbia 1.340 milioi txikiagoa da, batez ere sektore publiko eta pribatuko maileguengatik.

Ondorengo koadroan, eta informazioa ahalik eta gehien garatzeko asmoz, aurreko bi kontzeptuak ikusten ahal den moduan banakatuko ditugu:

Finantza-ibilgetua	1994/13/31	1995/12/31
Sektore Publikoko Inbertsioak	18.440	18.439
Sektore Pribatuko Inbertsioak	236	236
Sektore Publikoari eginiko maileg.	14.934	13.966
Sektore Pribatuari eginiko maileg.	8.680	8.308
Guztira	42.290	40.949

Eta hemendik ateratzen den datua da sektore publikoaren maileguen kopurua 968 milioi jaitsi dela, sektore pribatuarena 372 jaitsi den bitartean.

Ikus ahal izan da gastu eta dirusarreraren 8. kapituluetakoa ia aurrekontu-lerro guztiak finantza-ibilgetuaren kontuei egotzi zaizkiela, Merkataritza Ganbarari eman zaion aurrerakina izan ezik, hau 5. taldeko kontuetan, hots, Finantza-kontuetan erregistratzen delarik.

“Sektore Publikoko Inbertsioak”. Orokorrean aldaketa garbirik ez duen arren, bere osaketa, aldiz, aldatu egiten da, zeren, alde batetik, Gobernuak ITG del Vacuno y del Porcino direlakoetako kapitalean zeukan partaidetza desagertzen baita, Selganara aldatzen direlako partaidetza horiek, eta beste alde batetik, Selgana izenekoaren kapitalean daukan partaidetza handiagotu egiten baita, hasieran aipaturikoak bereganatu ahal izateko, eta bi eragiketek ia kopuru berdina egiten dute, 20 milioi.

“Sektore Publikoari eta Pribatuari eginiko maileguak” txikiagoak dira, 1.340 milioi jotzen dutelarik. Mailegu hauetatik ondoren aipatuko ditugunak dira azpimarratzekoak; izan ere, beroriek dira 1.000 milioi baino gehiago jotzen dutenak:

	(milioitan)
Iruñeko Udalari eginiko mailegua	2.100
Birlandatzeko maileguak	2.531
Krisiak jotako enpresei maileguak	2.449
Industria Sustapenerako maileguak	1.064
Etxebizitzak sustatzeko maileguak	2.614
Etxebizitzak eraikitzeako maileguak	1.493
Enpresa publikoentzako maileguak	2.885
Ikerketa eta Garapenerako maileguak	1.596
Funtzionarioen Bahituretxearen maileguak	2.417

Ganbarak egin duen lanetik eta Gobernuko Ikuskapen Atalak egin dituen txostenetatik mailegu eta aurrerakin hauei buruzko informazio hauek aterako ditugu:

– Birlandatzeko maileguak. Toki entitateen zorra kalkulatu behar da, eta hori hainbat irizpideren arabera egiten ahal da; zer irizpide ibiltzen den, maileguen saldoetako zenbatekoak ezberdinak dira. Horregatik beharrezkoa da erabiliko den irizpidea zein izango den finkatzea –gaurkotzearekin edo gaurkotzerik gabe–, toki entitate bakoitzaren kontua berregiteari ekitea, itzultzeko plana taxutu eta, beharrezkoa izatera, birlandatzeko maileguen saldoa doitzea.

– Enpresa publikoentzako maileguak (Riegos de Navarra). Egindako lanaren ondorioz ikusten da hala Nekazaritza Departamentuak nola Riegos de Navarra sozietateak mailegu hauen kontrol

egokia eramaten dutela. Alabaina, Ikuskapen Atalak gomendatzen du honako hau aztertzea: 1996 urtean hobekuntza eta ureztalur bihurtzeko espedienteen birfinantzatzeko arau bat aplikatzeak saldo hauen gainean eduki ditzakeen ondorioak.

– Beste hainbat mailegu. Azken ekitaldietan mugimendurik ez duten aurrerakin eta maileguei buruzko hainbat lan. Horietatik ondoren aipatzen dena azpimarratuko dugu:

- Hiru toki entitateri eginiko maileguak –6 milioi– industria sustapenerako; hauetan itzulketen egutegia bukatu edo taxutu gabe dago.

- Krisiak jota dauden enpresentzako maileguak; alde batetik, badira Graficas Estellaren ize-nean dauden hiru aurrerakin, 550 milioi jotzen dutenak, eta hiru hauek, 1995eko abenduaren 31n Nafincori eskatu beharko litzaizkioke; beste alde batetik, Soles Systems enpresak –400 milioi– eta Cárnicas del Sadar enpresak –100 milioi– erabaki behar dute euren aurrerakinak nola itzuliko dituzten.

- Ikerketa eta garapenerako maileguak; badira arrakastatsuak izan diren edo erreka jo duten kalifikatzearen zain dauden 16 mailegu. Erreka jo dutela irizten bada fondo galdurako dirulaguntza bihurtuko dira.

- Hotelak sustatzeko maileguak, euren kudeaketari buruzko kontrol egokia ez da aurrera eramaten.

– Ondoren gertaturiko gauza bezala, aipatu behar da Nafarroako Gobernuak, 1996 urtean, 1996ko Aurrekontuei buruzko Foru Legeko seigarren xedapen gehigarriaren babesean, zor-barkamena egiten diola Nafinco enpresa publikoari, eta 550 milioi jotzen zuten aurrerakikak barkatzen dizkiola; gogorarazi behar da aurrerakin hauek Gráficas Estella-ri eman zitzaizkiola, eta, enpresa honen besterenganatzearen ondorioz, aipatu enpresa publikoak bereganatu zituela aurrerakinok.

Hitz batez, goian esandakoek nabarmen uzten dute zalantza handiak daudela mailegu eta aurrerakinetan egindako inbertsio finantzieroen kobrantzagarritasunari buruz eta hauek zenbat egiten dutenari buruz. Egoera honek galarazten digu, beraz, aurreko saldoen arrazoizkotasunaren gainean iritzirik ematea.

Gure gomendioak

Saldoen berrazterketa eta aratze prozesuarekin segitzea, ondare-masa honek izaera honetako inbertsioak behar bezala isla ditzan.

*Kobrantza-kudeaketarako prozedurak azkar-
tzea, behar izanez gero bide betearazlea erabiliz.*

Kontu eta arreta berezia ematea ondare eta finantza-egoera zailean dauden enpresen finantza-inbertsioen metatzeari.

2.1.3. Hainbat ekitalditan banatu beharreko gastuak.

Bilakaera honako hau izan da (milioietan)

Hainbat ekitalditan banatu beharreko gastuak	94/12/31	95/12/31
Geroraturako finantza-gastuak	388	261

Txikiagotzea ehuneko 33 izan da, hau da, 127 milioi.

Txikiagotze hau Nafarroako Zor Bereziaren amortizaziotik dator, eta bere jatorria da poltsaritze-balioaren era aipatu Zor horren jaulkitze-balioaren artean dagoen diferentzia.

Gastu hauek, urtero, aipatu Zorra amortizatze-ko ezarri edo/eta aplikatu den amortizatze-planaren arabera, emaitzei egotzen zaizkie. 1995 urtean 127 milioi egotzi dira.

2.1.4. Izakinak.

Bere saldoaren bilakaera hauxe izan da (milioietan)

Izakinak	1994/12/31	1995/12/31
Nafarroako Ospitalea	135	108
Bideko Ama Birjina Ospitalea	150	158
Ubarmin Klinika	31	24
Anbulategiak	24	26
Tuterako Arloa	89	80
Lizarrako Arloa	61	63
Oinarrizko Laguntza	68	77
Guztira	558	536

Hau da, izakinen barruan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik (O-NOZ) datozenak baizik ez dira sartzen. 1994 urteari dagokionez, 22 milioi gutxiago izan dira, eta honek ehuneko 4ko gutxiagotzea egiten du.

Izakinen izaerari bagagozkio, azpimarragarrienak “botikagaiak” dira –izakin guztien 32– eta “kontsumorako osasun-materiala” –ehuneko 48–.

O-NOZ-en kontsumo, gordetegiko gorabehera, erosketa eta eskaeren jarraipen-sistemak gero eta hobeak direla ikusten da, eta horri esker laster kontusail hauen gaineko kontrola egokia izango da. Honek erabakiak hartzeko informazio beha-

rrazkoaren hobekuntza nabarmena ekarri behar du.

Gure gomendioa da barne kontroleko sistemaz hornitzea xede duten ahaleginei euts dakiela, osasun etxeetako izakinen jarraipen eta arrazionalizazio egokia bermatzeko.

2.1.5. Zordunak.

Haien saldoak bilakaera hau izan du (milioitan):

Zordunak	1994/12/31	1995/12/31
Aurrekontuetakoak	54.797	53.781
Administraziokoak.		
Bestelako ente publikoetakoak	479	743
Bestelako zordunak	489	265
Zordunen hornidura	(23.573)	(28.447)
Zordunak, guztira	32.192	26.342

Alegia, Foru Ogasunaren aldeko eskubideak 5.850 milioitan gutxitu dira, hots, ehuneko 18.

Ekitaldi honetan, lehen esan bezala, balantzearen aurkezpena Kontabilitaterako Plan Publiko berriko eskemen arabera egiten da. Horren ondorioz, zordunen barruan, lehen ondarean eta erre-serbetan sartzen zen hornidura bat sartzen da, izan litezkeen kaudimengabeziatarako.

Hala ere, Nafarroako Gobernuaren aldeko zorren benetako zenbatekoa zehazteko, zordunen kontuak pasiboan agertzen direnekin erlazioan jarri behar dira, hots, haien saldo hartzekodunekin –fiskalekin eta banaketa kontuarekin–. Zehazki,

	1994/12/31	1995/12/31
Zordunak	32.192	26.342
Zordunak– Saldo hartzekodunak (24.514)		(22.854)
Banaketa kontu hartzekoduna	(432)	(587)
Guztira	7.246	2.901

Atal honetan bakarrik aurrekontu zordunak eta bestelako ente publikoen baliabideen administraziokoak, hurrengoan “bestelako zordunei” dagozkienak iruzkinduko direlarik.

Eskubide horietariko gehienek trataera eta jarraipena Hirugarren Kontabilitate Laguntzaileko sistemaren bidez. Horrek Kontabilitatea-SGEFi ematen die informazioa. Bi sistemak koadratu dira Hirugarren Kontabilitate Laguntzaileak kudeaturiko zor guztiak Kontabilitateari eskualdatu zaizkiola egiaztatzeko. Ikusi da honetan zordunen zifra 3,5 milioi gutxiago daudela. Bestaldetik, 1994ko txostenean ikusirikoa aldea, 1.618 milioikoa, erregulari-

zatu da, ekitaldi honetan egoera berezietako zorrak eskualdatzeagatik sorturiko korrituekin zerikusia duena.

“Aurrekontuetako zordunak” (hemendik aurrera, AZ) honela sailkatzen da (zenbatekoa milioitan):

AZ	1994/12/31	1995/12/31
AZ zentro kontableetan	2.877	2.643
Zordunak. Ohiko Kudeaketa	21.895	12.837
Z, luzapenarekin	9.590	13.643
Z, egoera bereziak	–	481
Z, premiamendu bidean	21.355	26.366
Aurrekontuetako alde zordunak		
aurreko dirusarrerak	(1.109)	(1.977)
Kobrantsak eta aplikatzeke dauden sortak	183	(212)
Aurregutzitza	54.791	53.781
AZ, ohikoa, saldo hartzekoduna (24.514)		(22.854)
Zordunen hornidura	(23.573)	(28.447)
AZ garbiak, guztira	6.704	2.480

Auditoretza Atalak txosten bat egin du “eskubide aitortuak, zentro kontableetan” kontuari buruz. Hona hemen haren ondorio nagusiak:

- 1995eko abenduaren 31n guztira zegoen saldotik, 2.115 milioi Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoarekin zerikusia duten kontusailei dagozkie, Insalud-en eta Insersoren kitapenei buruz, egiteke daudenei buruz.

- Orokorrean, zentroek egokitasunez kontrolatzen dituzte zor hauek, gorabehera hauek hobetu behar badira ere:

- Zordunak egokiro identifikatzea.

- Kobratu gabe dauden zorrak Ekonomi eta Ogasun Departamentura garai igortzea

- Preskribaturik edo preskribatzeke dauden zorrei dagokienez:

- Ekonomi eta Ogasun Departamentura eramatera, zorduna guztiz identifikaturik. Eskubide pribatuko zorrak badira, kobratzeko kudeaketak arintzea, eta eskatzea, hala bada, Gedesa enpresa publikoaren edo Gobernuko Aholkularitza Juridikoaren lankidetzara.

- Preskripzioaren kasuan, zio eta guztizko txostenarekin Ekonomi eta Ogasun Departamentura igortzea.

- Ekonomi eta Ogasun Departamentuak esku-bide horien kobrantzari buruzko arauak prestatzea.

- Departamentu bakoitzeko organo kudeatzaileen eta zentro kontablearen arteko koordinazioa bultzatzea, zordunen kontrol handiagoa sustatzearen.

Gure gomendioa da aurreko neurriak hartu eta aplikatzea.

“Zordunak ohiko kudeaketan” kontuak 12.837 milioiko saldu zorduna du eta 22.854 milioiko saldo hartzekoduna.

Izaera fiskaleko zordunetan izaniko lana, alde batetik, Hirugarren Kontabilitate Laguntzailearen zorrak kontabilitatera eskualdatu direla egiaztatzea izan da alde batetik eta, bestetik, zerga figura nagusien oharrazpenen kontabilitate egokitasuna aztertzea –bai kontu zordunetan, bai kontu hartzekodunetan–, haren arrazoizkotasuna aztertzeko. Lorturiko emaitzak hauek izan dira:

- Kontu hauek denak Hirugarren Kontabilitate Laguntzailearen bidez kudeatzen dira, egiaztatuta delarik haren saldo guztiak Kontabilitatea-SGEFi eskualdatu direla, BEZa eta PFEZa zergak eziz, alde txiki azaldugabeak dauzkatenak, 8 eta 2 milioikoak, hurrenez hurren.

- PFEZeko zordunak. Azkeneko saldo garbia 1.195 milioikoa. Saldo zordunek 2.002 milioi eta saldo hartzekodunek, 807 milioi egiten dute.

Saldo zordunak. Milioi batetik goitiko ohartarazpenak, saldo honen ehuneko 18 egiten dutenak, azterturik, ondorioztatzen da azterturikoaren ehuneko 79 ongi kontabilizaturik dagoela. Ehuneko 3 gaizki dago, gehienbat aitortpenak bi aldiz aurkezteagatik. Akats hori 1996an zuzendu da. Ehuneko gainerako 18 gaizki aplikaturiko ordainketei dagokie, baina, kontuen guztirako saldoa ukitzen ez dutenei.

Saldo hartzekodunak. Milioi batetik beheitiko ohartarazpenak aztertu dira, saldo hartzekodunen ehuneko 30 egiten dutenak. Azterketa honen emaitza gisa, ondorioztatzen dugu, alde batetik, saldoaren ehuneko 53 gaizki dagoela, dagokien hartua sortzeke duten ordainketak direlako eta, bestetik, ehuneko 26, ordainketen aplikazioei dagokiena, azkeneko saldoa ukitzen ez dutenei.

- Sozietateen gaineko zergako zordunak. Azkeneko saldo garbia 1.644 milioikoa da. Saldo zorduna 4.139 milioikoa da eta saldo hartzekoduna, 2.495 milioikoa da.

Saldo zordunak. 50 milioitik goitiko gainean laginketa bat egin da. Saldo zordunaren ehuneko

55 eta 16 zorduni dagokie. Lorturiko emaitzak honela laburtzen dira: azterturiko saldoaren ehuneko 88 zuzena da azterketa kontabletik; ehuneko 12 –227 milioi –, ordez, gaizki dago, hartu bikoiztuak baitira, 1996an zuzendu direnak.

Saldo hartzekodunak. 25 milioitik beheitiko zenbatekoak aztertu dira. Ondorio gisa, saldo horien ohartarazpen kontableak zuzenak dira, kasu batean salbu – 35 milioiko zenbateko hartzekoduna duena – 1995eko konturako ordainketa bada ere, 1994ko ekitaldian egotzi dena. Dena dela, 1996an zuzendu da.

- Ondarearen gaineko zergako zordunak. Saldo garbia 28 milioikoa da, Gobernuaren aldeko zorrak, 108 milioi, eta Gobernuaren zorrak, 80 milioi, adierazten dituena.

Saldo zordunak. Bi milioitik goitiko saldoak –alegia, saldoaren ehuneko 52 – azterturik, ikusi da 8na milioiko hiru ohartarazpen – alegia, azterturiko saldoaren ehuneko 14 – gezurrezko zordunei dagozkiela. Izan ere, edo ez zegoen zorrik edo hori lehenago kobratua eta kontabilizatua izan zena.

Saldo hartzekodunak. Milioi batetik beheitiko zenbatekoak azterturik –alegia, saldoaren ehuneko 34– gure ondorioa da azterturiko 27 milioietatik 12 –ehuneko 44– oker daudela, ordainketar horietarako ez baita egin dagokion kitapen edo aitortpena.

- BEZeko zordunak. Azkeneko saldo garbia 13.295 milioikoa da. Saldo zorduna 5.607 milioikoa da eta saldo hartzekoduna 18.902 milioikoa da.

Saldo zordunak. 50 milioitiko goitiko ohartarazpenak aztertu dira –saldoaren ehuneko 9, hots, 500 milioi. Atera da gutxi gora behera aztertuaren ehuneko 65ek ez lukeela kontu horietan adierazirik egon, ezabatua izan ez diren hartuei edo nahitaezko bidera eramanak izan beharko ziratekeen zorrei baitagokie.

Saldo hartzekodunak. 50 milioitik beheitiko saldoak aztertu dira. Nabarmentzekoa da:

– Ohartaraziriko oinarritzko 4 kontuetatik, 334 milioi egiten dutenetik, hiruk kontuaren izaerarekin bat ez datozen saldoak dauzkate –167 milioi– bai akatsengatik, bai aitortpena grabatu ez delako.

– Konpentsatu beharreko BEZ osoa. Urtero ekitaldi bakoitzari dagokion ordainketa edo kobrantzarik sortzen ez duten hartuak erregistratzeko. 1994an hornitu zen lehenbizikoz. Horregatik izen hori duten bi oinarritzko kontu daude. Hona

hemen haien saldoa (milioitan), 1995eko abenduaren 31n:

Ekitaldia	1995/12/31
1994	(10.592)
1995	(3.698)
Guztira	(14.290)

Saldo osotu horrek ondorengo zergaldietan bilduko ez den edo zordunek kobrantza eskatzen badute itzuli beharko den BEZ kontzeptuko kantitatea. Zerga honetako saldo hartzekodunen ehuneko 76 egiten du.

- Zerga berezietako zordunak. Haren azkeneko saldo garbia 97 milioikoa da. Haren saldo zorduna 28 milioikoa da eta hartzekoduna, 125 milioikoa. Saldo hartzekodunik nabarmenenak aztertutik, ondorioa da 121 milioi egiten duten ohartarazpenak kontabilizazio edo grabazio akatsak direla. 1996an saldo hartzekodun guztiak erregularizatu dira eta horren ondorioz ezabatu egin dira.

- Garraiobidearen gaineko zergako zordunak. Saldo hartzekoduna 62 milioikoa da, zorraren izaerarekin bateraezina dena. Kudeaketa jardunbideak aztertutik, aitopenen grabazioa nabarmenki atzeratu dela ikustena. Horrek justifikatzen du saldo hartzekoduna, bakarrik dagokion kobrantza kontabilizatu da eta. 1996an zor horren sortzapeen jarraipena eta kontrola aldatu egin dira.

- Jokuaren gaineko zerga tasako zordunak. Haren saldo hartzekoduna 57 milioikoa da, tasaren izaerarekin bateraezina dena. Ohartarazpenak aztertutik, saldo horren azalpena, gehienbat, zordunen aitopenen ez grabatzean datza. Bestaldetik, 1994 baino lehenagoko saldoek ez dute bermerik edo ez daude garbiturik.

Labur bildurik, eginiko lanetik eta lorturiko ondorioetatik aurreko kontuak aztertu beharra agertzen da, bereziki saldo hartzekodunak dituztenak., Foru Ogasunaren egoera zentzuzko moduan adierazteko.

“Atzerapen-zordunak” bai printzipalean, bai zorren atzerapenaren ondoriozko korritu ez iraungietan agertzen dira, azkeneko horiek “aurrekontuetako dirusarrera aurreratuak” kontuan kentzen badira ere. 1995ean, ondorio garbiarekin, 4.000 milioi egiten duten zorrak azteratu dira, gehienbat, tributu izaerakoak – BEZa eta Sozietateen gaineko Zerga–.

“Egoera berezietako zordunak” kontuak hasiera batean zero pezetako saldua zuen, 1994an haren zenbatekoan beste zordun batzuen kontue-

tan birsailkaitu baitziren. Hala ere, 1995ean, 481 milioiko saldoarekin, berriro erabili da zergak Foru Ogasunari ordaindu beharrean Administrazio Zentralari ordaintzeak sorturiko akatsen ondorioak zorrak biltzeko.

Mugimendu nagusiak bildurik ikusten dugu:

- 1995ean, Administrazio Zentralari 976 milioi eskatu zaizkio, Administrazio horri eginiko ordaintzen ondoriozkoak, Foru Ogasunari zegozkionak.

- 45 milioiko konpentsazioak egin dira eta 450 milioiko kobrantzak hartu.

“Premiamendu bideko zordunak” kontua, 1994arekiko, 5.011 milioitan gehitu da, hots, ehuneko 23.

Premiamendu bideko ohiko zordunak aztertutik, ikusi da Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailearen saldoa SGEFarekin bat datorrela. Salbuespen bakarra da 13 milioiko aldea, Hirugarren Kontabilitate Laguntzailearen eguneroko zamaren errefusapenen ondoriozkoa eta 1996ko ekitaldian egokituko dena.

Ekitaldian Nahiatezko Dirubiltetarako Agentziara 5.401 milioi egiten duten zorrak eskualdatu dira. Horietarik, 746 milioi sorturiko errekarquei dagozkie. Bestaldetik, 485 milioi egiten duten zorrak preskribitu dira, kobrantzek 1.078 milioi egin zutelarik eta konpentsazioek, 297 milioi.

Azkeneko saldoaren osaketari dagokionez, 658 milioi, alegia, ehuneko 3, Agentziak emaniko eta ez ordaintzeagatik ezabaturiko zatikako ordaintzen ondoriozko dira. 29 zergadunek 375 milioi biltzen dituzte guztira saldo honetan.

Saldoaren gainerakotik, 18.686 milioi izaera fiskaleko zorrei dagozkie, gehienbat BEZari, lan atxikipenei eta PFEZari. 62 zergadunek 25etik goitiko zorra dute, alegia, saldoaren ehuneko 22 eta bi zergadunek, Porcelanas del Nortek eta Curtinovak 928 milioiko eta 545 milioiko zorrak dauzkate, hurrenez hurren.

“Aurrekontuetako aurreko dirusarrerak” kontuak azteraturiko eta zatituriko zor iraungigabeen, ondoriozkoak diren korrituak biltzen ditu. Zor horiek kasuan kasuko zordun kontuan kontabilizatu ziren eta, iraungi ahala, kontabilitate eta aurrekontura eskualdatzen dira.

Hala ere, 1995ean, eginiko lanean ikusten denez –gero Gobernuaren oroit-idazkian egiaztatutik– ekitaldi horretan iraungiriko korrituak, 654 milioi egiten dutenak, ez dira erregistratu. Horren ondorioz, gainera, zenbateko berean fiskalizaturiko dirusarrera aurrekontuaren betetze-maila txikiagoa da.

Saldo zordunek eta hartzekodunek osatzen duten "aplikatzeke dauden kobrantza eta sortak" kontuaren barruan, bankuek egiten diuzten hama-bostaldien dirusarrera eta kobrantzei aplikatzeke dagoen PFEX atxikia azaltzen da, gehienbat. Ikusi da, itxierari buruzko Foru Aginduak ezarri ez bezala, abenduaren 31n, ez dute beti zero pezetako saldorik edo, hala bada, saldoa ez dago behar bezala justifikaturik.

"Eskubide ezabatuak" izeneko kontuetako apuntuak aztertu dira, kontu iragankorreko izaeragatik, zero pezetako saldoa daukatenak, hain zuzen ere. Azterketa horren emaitzak 1994ko txostenean adierazten dena erakusten du, kontu horien erabilera okerrari dagokionez. Adibidez:

– Kaudimengabeziengatik ezabaturiko eskubi-deen barruan preskripzioen ondoriozko ezabapenak ere biltzen dira.

– Haien kontabilizazioa ez da homogenoa, bereizketarik gabe ohartarazpen positiboak eta negatiboak sartzen baitira.

Bestaldetik, 1995ean, guztira kondonaturiko eta preskribaturiko zorraren zenbatekoak 634 milioi egiten du, gehienbat, premiamendu bideko zordunei –ehuneko 77–, zordun ez fiskalei –ehuneko 22– eta zerga zorrei –ehuneko 1–dagozkienak–.

Eragiketa horien azterketatik nabarmentzekoa da Solano, S.A.ri eginiko kondonazioa, 130 milioitik goiti, ordainketa etendurako hartzekodunen hitzarmenaren ondorioz.

Nahitaezko Dirubilketarako Agentzian preskripzioak eta kondonazioak egin dira, 485 milioi egiten dutenak. Horietarik, gutxi gora behera ehuneko 20 bere garaian onartu eta ondoren ezabaturiko zatikako espedientei dagozkie.

Azkenik, esan behar da 1996ko uztailen Ebazpen bat onartu zela, 547 zorretatik, 1.113 milioi egiten duten zorrei ofiziozko preskripzioa aplikatu zaie. Zenbateko horretatik, 1995ean 228 milioi kontabilizatu dira guztira. Hortaz, ez dira formalki onartu.

"Zordunen hornidura" delakoari dagokionez, esan behar da, lehenbizi, gure gomendioen arabera, 1994 arte erabiliriko "aurreikuspena" hitza aldatu dela eta haren zenbatekoak ekitaldiko zordun negatiboen barruan sartu direla.

1994ari dagokionez, hornidurak 4.874 milioiko gehikuntza garbia izan du, aurreko ekitaldietako eskubide eta obligazioak aldatzeko kontuaren kargu. Horiek, gehienbat, nahitaezko dirubilketarako agentziako zorrei dagozkie.

1995ean, 1994an aplikaturiko estaldura porzentaiek beren horretan iraun dute. Honela:

	maila %	Estaldura
Zor mota	1994	1995
Ohiko diruzaintza	25	25
Gerorapenen diruzaintza	25	25
Nahitaezko dirubilketarako ohiko agentzia	90	90
Nahitaezko dirubilketarako gerorapenen agentzia	75	75
Tributarioak	25	25

Aurreko ekitaldian bezala, hornidura kalkulazterakoan, ez dira BEZeko zordunak kontutan hartu.

Hala ere, lehen aipatu eta 1995ean iraungi baina 1996an kontabilizaturiko gerorapen eta zatikapen korrituen ondoriozkoa den doiketak, 654 milioi egiten duenak, horniduraren aurreko zenbatekoa ukituko luke. Bere ekitaldian behar bezala egoitzi izan balitz, hornidura eta galerak 169 milioitan gehituko ziraatekeen.

Aurreko kontuei buruz adierazi dugunetik,

Hona hemen gure gomendioak:

Saiatzea ekitaldi bakoitzak bertan sorturiko dirusarrerak bil ditzan. Horretarako arindu egin beharko da aitopenak aztertzeke jardunbidea.

Hirugarren Kontabilitate Laguntzailearen jarraipen osoa egitea, aitopenak dirusarrerekin bat etor daitezzen. Horrela saldo negatibo justifikatugabeak saihestuko lirateke.

Sistematikoki tributu zordunen kontuen saldoak aztertzeari ekitea, bereziki saldo hartzekodunak dituztenak.

Teorian preskribaturik edo preskribatzeotan dauden ekitaldietako zorrak sistematikoki aztertzea, eskubide galera hori saihesteko.

Eskubide ezabatu, kondonatu eta preskribatuei buruzko irizpide kontableak eta erregistro kontuak modu parekatuan aplikatzea.

Zorrak Nahitaezko Dirubilketarako Agentziara eskualdatzeko ezarriko epeak betetzea.

"Banaketa kontuko zordunak" kontuak Nafarroako Gobernuak Nafarroako toki entitateekin dituzten kontuen saldo zorduna –743 milioi– biltzen du. Zenbateko hori kontu berak eskaintzen duen eta Gobernuaren balantzearen pasiboan biltzen den saldo hartzekodunarekin –587 milioi–, non behar diren iruzkinak egiten baitira.

2.1.6. Bestelako zordunak.

Haien saldoa honela sailkatzen da (milioitan):

Bestelako zordunak	1994/12/31	1995/12/31
Justifikatu beharreko fondoak	33	32
Burutu beharreko eragiketak	445	212
Nominaren kontrola	11	20
Guztira	489	264

“Justifikatu beharreko fondoan” barruan, justifikatu beharreko ordainketarako aginduak eta kutxa finkoko aurrerapenak sartzen dira.

- “Justifikatu beharreko ordainketarako aginduak”. Ekitaldian 13 kontu mugitu dira, 92tik. Haietarik, zenbatekoagatik, ondarekoak, 941,5 milioi, eta Gizarte Ongizatekoak, 734 milioi, dira nabarmentzekoak. Eginiko azterketatik, nabarmentzekoak dira:

- Orokorrean, ez da agertzen noiz eskatu zen gordailua.

- Ez da lauhileko txostenik egiten banku-kontziliazioarekin.

- Pertsona batek bakarrik izenpetzen ditu taloia.

- Orokorrean, ezin da egiaztatu bi hilabeteko epea justifikatzeko, ez baita eskaeraren data agertzen.

- Ez dira beti erabiltzen eskatu ziren xederako.

- “Kutxa finkoko aurrerapenak”. Guztira kutxa finkoko aurrerapenen 56 kontu erabili dira. Haien lagin bat aztertu da, gorabehera hauek direlarik nabarmentzekoak:

- Ez da beti lauhileko txostenik egiten, banku-kontziliazioarekin.

- Ikusten da aurrerapenaren soberakinak Diruzaintzara hurrengo ekitaldiko urtarilaren 10a baino lehen itzultzeko betebehara ez dela behar den zehaztasunaz betetzen.

- Baliabideak eskura jartzeko behar diren izenpean gaurkotzea ez da behar bezala kontrolatzen.

- Zenbait aurrerapen aurreko ekitaldiko saldoa itzuli baino lehen birrezartzen dira.

Gure gomendioa da ordainketa tresna hori buruzko arauteria behar den zehaztasunaz betetzea, fondo horiek behar bezala erabiltzen direla osorik bermatzeko.

- “Burutu beharreko eragiketak” kontua 212 milioiko saldo zordunean eta 148 milioiko saldo

hartzekodunean sailkatzen da. Taldea osatzen duten 34 kontuetatik, 13k izan dute mugimendua eta 6k azkeneko saldoa izan dute. Haien edukia denetarikoa da, baina nabarmentzen dugu:

- 140,4 milioi zorduneko zenbatekoa, funtzionari publikoek Gobernuak 1990-XII-5ean harturiko erabakiaren konpentsazio gisa itzuliriko kopuruei dagokiena, 1995ean, gradua eta antzintasuna berriro kalkulatzeko aplikatu dira.

- Kontabilitate Laguntzaileak burutu beharreko eragiketak, 153 milioiko zenbateko zorduna dutenak. Saldo hori aurreko ekitaldietatik etorri da eta ez da aztertu ez eta erregularizatu ere.

- 1995ean Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren aldeko 18 milioiek, Insaluden lanean ari ziren langileen lansarien aurrerapengatik itzultzeke dauden kantitateei dagozkienek, ez dute mugimendurik izan.

- Enpresa publikoetako zerbitzu berezietako funtzionarioen lansariak, 29 milioi egiten dutenak, 1996an saldatzen direnak.

- FASaren zorra – 81 milioi – ofiziozko preskripzioaren bidez erregularizatu da.

- Behin betikoz kontableki aplikatzeke dauden zenbait saldo.

Gure gomendioa da kontu horien saldoa zehatz-mehatz aztertzea, saldoak eragiketak izenarekin bat azaltzeko behar dituen doiketa eta erregularizazioak aplikatzeari ekinen zaiolarik.

2.1.7. Aldi baterako finantza inbertsioak.

Bilakaera hau izan dute (milioitan):

Aldi baterako finantza inbertsioak	1994/12/31	1995/12/31
Bestelako inbertsio eta epe laburrerako kredituak	24.624	52.776
Fidantzak eta epe laburrerako gordailuak	432	498
Guztira	25.056	53.274

Alegia, ondare masa hori 28.218 milioitan gehitu da, hots, ehuneko 112, gehienbat epe laburrerako inbertsioak gehitu direlako.

- “Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak”. Kontu horietan biltzen den saldoa, honela sailkatzen da:

Epe labur. beste. inbertsioak	1994/12/31	1995/12/31
Inbertsio kontuak	24.623	52.716
Emaniko aurrerapenak	–	59
Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	1	1
Guztira	24.625	52.776

“Inbertsio kontuei” dagokienez, maiatzaren 20ko 71/1995 Foru Dekretuak Foru Komunitateko diruzaintzako fondo likidoen kokapena arautzen du, deuseztatzen delarik lehen ohiko eta ohiz kapoko fondoan artean zegoen aldea, denak berdin jotzen direlarik.

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren eskumenaren arabera, segurtasun eta errentagarritasun irizpideak eta gizarte interes bereziko jarduerak finantzatzeko partaidetza kontutan harturik, finantza entitate eta tresnetan kokatzen dira. Horren arabera:

– Kontu korrenteez funtzionamendurako gutieneko kopuruak Mibor errentagarritasunean mantentzen dituzte, hiru hilabetera, minus 2,25 puntu. Aurreko sibilekoko azkeneko hilabetetik hurrengo hilabeterako lortzen da.

– Gainerako fondoak egun luzagarri bateko, aste bateko, hilabete bateko edo beste epe bateko gordailuetan kokatzen dira. Haien errentagarritasuna finantza entitateek luzaturiko abiapuntuzko eskaintzetatik lortzen da eta Espainiako Bankuak argitaratu zueneko eguneko batezko besteko Milborri dagozkie.

Banku zirkularizaziotik lorturiko datuekin batera, aurreko saldoak inbertsio kontuetan kokaturiko saldoak zentzuzko moduan adierazten ditu.

“Emaniko aurrerapenak” kontuak 1995eko hauteskundeengatik alderdi politikoei emaniko aurrerapena adierazten du. Hala ere, dirulaguntza kitatzen denean, aurrekontuari kobratzeke dagoen kopuruan egozten zaio, aurrerapena ezabatu gabe. Zenbatekoa ere ez da aurrekontuko kitapean erregistratzen.

Gure gomendioa da aurreko aurrerapena erregularizatzeari ekitea da.

“Aurrekontutik kanpoko zordunak” saldoak, 1992az geroztik, babes ofizialeko bi etxebizitzaren salmenta eta alokairuaren ondoriozko gainprezioa. Auditoretza Atalaren txostenean ondorioztatzen da Departamentuak kobrantza kudeatu edo, zio eta guztizko txostenaren bidez, aurreko txostena erregularizatu egin behar duela.

“Epe laburrerako fidantza eta gordailuak” saldoa ehuneko 15 gehitu da eta bakarrik gordailuz dago osaturik.

Gure gomendioak kontutan harturik, Auditoretza Atalak prokuradoreen eta Eguesibarko Udalaren gordailuei dagozkien saldoak aztertu ditu. Horren ondorioa izan da beharrezkoa dela gutxi gora behera 173 milioi egiten duten gordailuak (1996ko doiketak) bertan behera uztea eta, hor-

taz, ezabatzea. Arduradunei gomendatu zaie gestioei euts diezaietela, zenbait gordailu baliagarriak diren argitzearren.

Ekitaldiko mugimenduei dagokienez, gehitzea Acería de Sestaoko gordailutik dator (95 milioi) eta haren helburua, Nafarroako Aurrezki Kutxak enpresa horretan duen partaidetza bermatzea da.

2.1.8. Diruzaintza.

Haren saldoak bilakaera hau izan du (milioitan):

Diruzaintza	1994/12/31	1995/12/31
Kutxa	193	13
Kontu korrenteen kontuak	11.874	235
Guztira	12.067	248

Alegia, Diruzaintzako saldoa 11.819 milioitan gutxitu da, gehien bat banku-kontu korrentean kokaturiko fondoak gutxitu direlako, aldi baterako finantza inbertsioetara eskualdatzean.

Ondoren, ondare masa horren alderdi esanguratsuenak garatuko ditugu.

“Kutxan” 6,3 milioi erregularizatu dira “Helbideratzeen kutxa” kontuan. 1994ko txostenean esan genuen bezala, 1993ko urrian bertan behera utzi bazen ere, haren saldoak segitzen zuen kontabilitzatzen.

“Kontu korrenteen bankuetan” eginiko lanetik, ondorioztatzen dugu haren saldoaren zenbatekoak Nafarroako Gobernuak eskura dituen fondo likidoak zentzuzko moduan adierazten dituela. Hala ere, adierazten dugu:

– Kontabilitatea eta diruzaintza itxi ziren daten arteko aldeak saldoak elkarrekin batera ez etortzea eragiten du, ez modu nabarmenean, baina.

– Banku-zirkulazioan ikusten da oraindik kontuetan baimenduriko izenpeak ez direla behar den azkartasunarekin eguneratzen.

Azkenik, komeni da esatea, finantza entitateek igorri zuten informaziotik, ikusten da Nafarroako Gobernuak, dirubilketa-kontuak dauzkala – ordainsaririk gabe –. Haien saldoak, 1995eko abenduaren 31n, 96 milioi egiten zuen. Saldo horiek ez dira kontabilitatean erregistratzen kontu korrente normaletara eskualdatu arte, hilabetero, 5 eta 20 egunetan.

2.2. PASIBO GARBIA.

2.2.1. Norbere fondoak.

Masa horren saldoak bilakaera hau izan du (milioitan):

Fondo propioak	1994/12/31	1995/12/31
Ondarea	48.221	19.964
Aurreko ekitaldietako emaitzak	5.721	7.007
Ekitaldiko emaitza (galera)	(26.971)	(1.427)
Guztira	26.971	25.544

Alegia, ondarezko garbiak edo Nafarroako Gobernuaren fondo propioek 1995ean, 1994aren aldean, 1.427 milioitan egin dute beheiti, alegia, ehuneko 5.

Ondoren iruzkin hauek eginen ditugu aurreko puntuei buruz, kontutan harturik "ekitaldiko emaitzak" eraskin honetako 2.3 atalean egiten direla modu berezian.

Lehenengo eta behin, adirazi behar da ondare masa eten gabe gutxitzen ari dela, gehienbat Ondarea atalean. Hori horrela, 1992ko ekitaldia abiapuntutzat harturik, hurrengo koadroan bilakaera azter dezakegu, osagarrien zenbaki indizeetan:

	1992	1993	1994	1995
Ondarea	100	77	52	22
Aurreko ekitaldietako emaitzak	100	40	29	35
Ekitaldiko emaitza (galera)	(100)	(77)	(81)	(4)
Guztira	100	68	34	32

Alegia, Gobernuaren fondo propioak ehuneko 68 gutxitu dira lau urte honetan. Bereziki nabarmentzekoa da "ondareagatik" gutxitu dena, ehuneko 78.

"Ondarea" kontuak, 1995ean, gehienbat, ondare masa guztiak izaniko gutxitzea. Haren gutxitzea – 28.257 milioi – 1994ko emaitza negatiboaren aplikazioaren ondoriozkoa da –horrek 26.971 milioi egiten zuelarik – eta "aurrekontuak finantzatzeko fondoan aldaketak" izenezkoen ondoriozkoa, alegia, ekitaldiko aurrekontuko superabita/defizita plus aurreko ekitaldietako eskubide eta obligazioen saldoa, horrek denak, 1.286 milioi egiten zuelari.

"Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontua 1.286 milioitan gehitu da. Hori, "ondarea" lerroaldean iruzkindu bezala, aurrekontuak finantzatzeko fondoan gehitzearen ondoriozkoa da.

"Kapitaleko dirulaguntzak", sektore publikoari aplikatzen zaizkion kontabilitate irizpide berrien arabera, ekitaldiko emaitzari egozten zaizkio edo bertara eskualdatzen dira, oso-osorik, bestelako ohiz

kanpoko emaitzen bidez. Pentsatzekoa denez, ekitaldi bakoitzak abenduaren 31n duen egoera balantzean ez dira agertzen. Hala ere, balantzeko kontu horiek erabili egiten dira, hartu ahala erregistratzeko. Ondoren emaitzetara eskualdatu egiten dira.

1995ean, 3.664 milioi egiten duten kapital dirulaguntzak eman dira. Zenbateko hori dirusarrera aurrekontuko 7 kapituluarekin bat dator.

Kontu horiek eskualdatu edo erregularizatu aitzin, beharrezkoa izanen litzateke, gure iritziz, bertan kontabilizaturiko zenbatekoen izaera sistematikoki aztertzea eta horiek beste kontu batzuetan duten eragina. Horrela, neurri handi batean, hurrengo ekitaldian doiketak egin beharra saihestuko litzateke.

Hori horrela, 1994an, 5 doiketaren jatorria igorri zen, aurreko jardunbideko akatsen ondorioz. Ba, 1995ean, ez dira denak adierazi, zenbateko txikikoak egiteke badaude ere.

Gure gomendioa da jardunbide batzuk ezartzea, erregularizazio eragiketak zentzuzkoak direla sistematikoki ziurtatzeko.

2.2.2. Epe luzerako hartzekodunak.

Bilakaera hau du (milioitan):

Epe luzerako hartzekodunak	1994/12/31	1994/12/31
Obligazioak eta bonoak	106.727	129.705
Epe luzerako bestelako zorrak	3.645	3.732
Ordaintzeke dauden akzioak	2	2
Guztira	110.374	133.439

Gobernuaren epe luzerako zorra ehuneko 21 gehitu da. Horrek zor garbia 23.066 milioitan gehitzea dakar, gehienbat obligazio eta bonoengatik.

Ondoren, aurreko kontuetako alderdirik esan-guratsuenak.

• "Epe luzerako obligazio eta bonoak" kontuaren saldoa, milioitan, 1995eko abenduaren 31n. Hona hemen ezaugarri nagusiak:

Zor publikoa	Luzapen-eguna	Errenbolts zenbatekoa	Korritu tasa	Muga-eguna
ZP berezia	91-10-7	6.705	2*	7-10-1997
ZParen 2. luzapena	93-7-5	30.000	10,5	5-7-1996
ZParen 3. luzapena	93-11-30	36.000	8,30	30-11-1998
ZParen 6. luzapena	94-12-2	14.000	11,20	2-12-1999
ZParen 1. luzapena	95-5-12	23.000	12,35	12-5-2005
ZParen 7. luzapena	95-10-18	20.000	10,85	18-10-2000
Guztira		129.705		

* Korritu implizitua

Hona hemen ekitaldiko mugimenduak:

– Nafarroako Zor Bereziaren amortizazio aurreratua, guztira 21,5 milioi egiten duena.

– 1993ko Zor Publikoa. Ez du saldo aldaketarik izan, amortizazioa ez baita 1996 eta 1998 arte aurreikusten.

– 1994ko Zor Publikoa. Ekitaldi horretan 5. eta 6. zor luzapenak egin ziren. Azkeneko luzapenean aurreko ekitaldiko baldintzak dira.

20.000 milioi egiten duen 5.ari dagokionez, aurreikusten zen 1995eko urrian amortizatuko zela. Orduan, Nafarroako Gobernuak 7. zor luzapena eman zuen, 20.000 milioi egiten zuena, haren xedea aurrekoa bertan behera gelditzea finantzatzea. 5. luzapenaren amortizazioak ez du ondoriozik izan aurrekontuko likidazioan.

– 1995eko Zor Publikoa. 1995eko Aurrekontuei buruzko Foru Legeak baimena eman zion Nafarroako Gobernuari maileguak edo kredituak ituntzenko eta zorra luzatzeko. Horretarako muga zen 1995eko abenduaren 31ko saldo bizia ezin zitekeela izan urte bereko saldoa baino 33.900 milioikoa izan. Zenbateko hori dirusarrera aurrekontuan agertzen da. Baimen horren ondorioz, 1995ean eragiketa hauek egin ziren:

- 23.000 milioiko luzapena obligazio sinpletan, ekitaldiko aurrekontuan aurreikusiko inbertsioak finantzatzeko asmoz.

- Zor Publikoaren 7. luzapena, 20.000 milioitan. Horren xedea da lehen aipaturiko 5. luzapena amortizatzea. 7. luzapena ere ez da aurrekontuan agertzen.

Azkenik, esan beharra dago saldoa 22.978 milioitan gehitu dela, horrela Foru Legean ezarritako betebeharra betetzen delarik.

Finantza izaerako balorazioetan sartu gabe, Ganbara honek uste du, orokorrean onartuak diren eta Sektore Publikoari aplikatzekoak diren kontabilitate hatsapenen arabera, 20.000 milioi egiten duten zorren amortizazio eta luzapena, ezaugarriengatik, ezin daitekeela aurrekontutik kanpoko eragiketatzat jo –izan ere, bihurtze bat da –. Hori dela eta, 1995eko aurrekontuaren kitapenari egotzi behar zitzaiokeen, bai gastuak bai dirusarrerak 20.000 milioitan gehitu direlarik.

“Epe luzerako bestelako zorrak” azpialdea honela sailkatzen da:

Bestelako zorrak	1994/12/31	1995/12/31
Epe luzerako maileguak	891	976
Audenasako hartzekodunak	2.505	2.505
Epe luzerako fidantzak	249	251
Guztira	3.645	3.732

“Epe luzerako maileguak” kontua honela sailkatzen da:

	1994/12/31	1994/12/31
Etebizitzak sustatu eta zaharberritzea	739	943
Banco de Crédito Local	152	33
Guztira	891	976

Ekitaldiko mugimenduak 1994ko txostenean aurikitu eta azalduko doiketaren ondoriozko 203 milioiko altan, etxebizitzarako maileguetan, eta 119 milioi egiten duten Banco de Crédito Localen maileguen amortizazioan laburtzen dira.

Etebizitzarako maileguei dagokionez, 1994ko txostenean, 1995eko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko 19. Xedapen Gehigarrian ezartzen da: “Autonomi Elkarteei uzten zaizkio ... Etebizitzaren Sustapen Publikorako Institutuak etxebizitzak finantzatzeko bere garaian eman zituen kredituak ...”. Horregatik, ematen du mailegu horiek kondonatuko direla, zelaiko lana bukatu arte, horretaz inola ekintzarik agertzen ez bada ere.

Gure gomendioa da aurreko egoera argitu eta konpontzeko behar diren gestioak egitea eta, hala bada, egoera kontableak doitzea.

“Audenasako akzioen hartzekodunak” kontuari dagokionez, ekitaldian ez du mugimendurik izan. Izan ere, aurreikusirik dago 2.014an amortizatuko dela.

“Epe luzerako fidantza eta gordailuak” kontuari dagokionez, Gobernuak Auditoretza Atalak txosten bat egin du. Horrek Hiri Jabetzako Ganbarari buruz dituen ondorio nagusiak dira 1995ean lau hiruhilekoetako eragiketak egotzi direla. Bestalde, txosten horretan esaten da, Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretuaren bidez, kendu egin duela Jabetza Ganbara. Hala ere, Foru Dekretu hori, 1996ko apirilaren 15eko data badu ere, ez da agertzen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dela. Argitaratu ez denez, Dekretu horrek ez du ondorio juridikorik. Hori dela eta

Gomendatzen dugu egoera hori argitzea.

“Ordaintzeke dauden akzioak” kontuko saldoak –1,5 milioi– Gobernuak “Oficina de Congresos de Pamplona, Convention Bureau, S.A.” enpresan harturiko akzioetatik ordaintzeke dagoen kapitalaren ehuneko 50 azaltzen du –eskatzen ez dena–.

2.2.3. Epe laburrerako hartzekodunak.

Epe laburrerako hartzekodunak	1994/12/31	1995/12/31
Aurrekontuetako hartzekodunak	62.213	57.563
Aurrekontuetatik kanpoko hartzekodunak	–	500
Bestelako baliabideetako hartzekodunak	432	587
Administrazio Publikoak	364	159
Bestelako hartzekodunak	193	149
Harturiko fidantzak	114	97
Guztira	63.316	59.055

Alegia, 1994tik 1995era bitarte, epe laburrerako zorra ehuneko 7 gutxitu da. Horrek 4.261 milioiko gutxitzea ekarri du. Zenbateko hori gehienbat aurrekontuetako hartzekodunen gutxitzearen ondoriozkoa da.

Ondoren, ondare masa horren kontuak ukitzen dituzten gorabeherarik esanguratsuenak.

“Aurrekontuetako hartzekodunak” azpitaldea kontu hauetan garatzen da:

Aurrekontuetako hartzekodunak	1994/12/31	1994/12/31
Obligazio aitortuetako hartzekodunak	17.666	14.259
Antolaturiko ordainketetako hartzekodunak	19.021	20.289
Hartzekodunak, dirusarrerak itzultzeagatik	1.012	161

Zordunak (saldo hartzekoduna)	24.514	22.854
Guztira	62.213	57.563

“Aitorturiko obligazioen edo erresulten ondoriozko hartzekodunen” egoerak 14.259 milioiko saldoa du, aurreko ekitaldiaren aldean, ehuneko 19 gutxiago egiten duena. Atal horren epe laburrerako zor osoaren ehuneko 25 egiten du. 10. koadroan haren osaketa agertzen da:

Jatorriko ekitaldiari dagokionez, saldoko ehuneko 35 aurreko ekitaldien ondoriozkoa da, ehuneko 64 1995eko ekitaldiaren ondoriozkoa eta gainerako ehuneko 1 Toki Ogasunen fondoaren ondoriozkoa.

Aurreko txostenetan bezla, adierazi behar dugu zentro kudeatzaileek ez dutela behar bezala erresulten mantenimendua justifikatzen, gehienbat, aurreko ekitaldietakoena. Hori dela eta ezabapenak eta zuzenketak gertatzen dira, bai euskarrik ez dutelako, bai aurreko okerrak zuzentzeko asmoz.

1995eko erresultak gehienbat Toki Administrazio Departamentuari (%40) eta Gizarte Ongizateko Departamentuari (%21) dagozkie. Kapitulu ekonomikoa kontutan harturik, ehuneko 62 kapital transferentzietan dagozkie eta ehuneko 25 inbertsioei.

Aurreko ekitaldietako erresultei dagokienez, 1990ari dagozkionak – 28 milioi –, teoriar, preskribaturik leudeke, preskripzioa ez baita eten.

10. koadroa., hartzekodunen bilakaera eta bilakaera erakusten duena (pezetatan)

Kontzeptua	Mugimenduak				
	94-12-31ko saldoa	Erregularizazioa	Ezabapena	Ordainketak	95-21-31ko saldoa
Aitorturiko obligazioetako hartzekodunak					
1987ko erresultak	4.224.418	-2.292.581	164.026	1.767.811	0
1988ko erresultak	17.974.316	-12.485.605	314.468	5.174.243	0
1989ko erresultak	26.328.532	—	14.004.899	12.323.633	0
1990ko erresultak	43.784.879	-2.291.053	2.973.201	10.580.418	27.940.207
1991ko erresultak	153.811.694	17.560.526	2.026.986	129.719.686	39.625.548
1992ko erresultak	2.009.997.965	-60.221.279	7.086.957	278.833.271	1.663.856.458
1993ko erresultak	1.327.215.177	-18.600.549	79.509.607	584.830.570	644.274.451
1994ko erresultak	14.028.973.916	-29.773.931	315.624.182	11.051.107.563	2.632.468.240
Ber. izend. behar diren erres.	53.249.922	110.356.442	—	—	163.606.364
Aurreko ekitaldiko erres., guztira	17.665.560.819	2.251.970	421.704.326	12.074.337.195	5.171.771.268
1995eko erresultak	—	—	—	—	9.087.164.532
Guztira	17.665.560.819	2.251.970	421.704.326	12.074.337.195	14.258.935.800

Azpiatal honetan epe laburrerako zorrak agerzen badira ere, horiek ordaintzeko epea ekitaldiko baina askoz luzeagoa da. Adibidez, 1990etik 1993ra bitarteko erresulteko saldoaren ehuneko 47 egiten dute. Partikularzki, Toki Ogasunen Fondoaren ondoriozkoak dira aipatzekoak, arauteriaren bidez baimendurik, hurrengo ekitaldietan aplikatzen ahal direnak.

Azkenik, 1996an, epe luzerako zorren azpitaldean Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekiko ordainketa obligazio batzuk, 1.554 milioi egiten dutenak, 1992ko eta 1993ko ekitaldien ondoriozkoak.

Gure gomendioa da kontu talde honetan adierazten diren zorrak benetan epe laburruena ordaintzekoak izatea. Horrek behartzen ditu zentroak ordaintzeke dituzten obligazioak dokumentazera eta justifikatzera.

“Aginduriko ordainketetako hartzekodunak” kontuak hirugarrenetik obligazioak biltzen ditu, ordaintzeko aginduak luzatu zaizkienak. Epe laburrerako zorren ehuneko 34 egiten dute eta aurreko ekitaldiaren aldean ehuneko 7 gehitu dira.

Hona hemen haren saldoa (milioitan):

Aginduriko ordainketetako hartzekoduna	1994/12/31	1995/12/31
Oraingo ekitaldiko libramenduak	24.794	20.257
Aurreko ekitaldiko libramenduak	44	32
Formalizazioa	(5.817)	–
Guztira	19.021	20.289

Oraingo ekitaldiko libramenduen barruan bi kontu daude – libramendu singularrak (hasierako saldo hartzekoduna 5.917 milioi) eta kontuetako zuzeneko karguak (hasierako saldo zorduna 99 milioi), kontrol eginkizuna badute ere, hori ez da betetzen urte bukaeran haietarik bakoitza modu globalean konpentsatzen denean – eta ondorioz konpentsatzen denean –. Eragiketa horrek ez du inolako justifikaziorik kontabilitateko agirietan. Hala ere, horren zioa izan liteke diruzaintzako eta kontabilitateko ordainketa sistemen arteko itxiera egunak bera ez direlako.

Bestaldetik, libramendu negatiboak ere aurkitu dira – hala ere, zenbateko txikikoak –. Horrek ez dirudi bat datorrela kontu horien definizioarekin berarekin.

1996ko irailean oraingo ekitaldian ordaintzeko dauden libramenduen saldoak 8 milioi egiten du.

Gomendioak:

Saiatzea kontabilitateko ohartarazpen guztiak behar bezala justifikaturik eta behar bezalako euskarriarekin egon daitezen.

Beren osaketan beren izaeraren kontrako ezaugarriak dituzten kontuak aztertzea.

“Hartzekodunak, dirusarrerak itzultzeagatik” kontuak ekitaldia ixtean burutu ez diren dirusarrera itzulerak biltzen ditu. 1995eko abenduaren 31n 161 milioiko saldoa du, 1994aren aldean, 850 milioiko gutxitzen garbia egiten duena.

Eginiko lanetik nabarmentzen dugu:

– 1995ean dirusarrera itzuleren ondoriozko eskubideak aitortu dira, gutxi gora behera 39.054 milioi egiten dutenak. Horietarik, 37.034 milioi ordainketak sortzen dituzten itzulerei dagozkie eta generakoa zergadunaren zorren konpentsazioei.

– 1995eko abenduaren 31n bi azpikontuk saldo zorduna zeukaten. Hori, hasiera batean behintzat, kontu horien izaera eta definizioaren aurkakoa da.

– 1996ko eginiko itzuleren jarraipena eginik, 1995ekoei dagokienez, ikusten dugu kontabilizaturiko saldoaren gaintik itzuli dela, 7,8 milioitan.

Horren ondorioz, aurreko txostenetan eman izan dugun gomendioa emanen dugu berriro ere,

Kontu horien saldoak sistematikoki aztertzea, horiek benetan Administrazioaren zorrak adierazteko eta, hala bada, behar diren erregularizazio eta zuzenketak egiteko.

“Aitorturiko eskubideetako zordunei” dagokienez (saldo hartzekoduna), 2.1.5 atalera igortzen dugu.

“Aurrekontuetatik kanpoko hartzekodunak” kontuak 500 milioiko diru-ekarpina du, Nafarroako Aurrezki Kutxatik hartua, obretako partaidetza eta Planetarioko ekipamendua (Nafarroako Gobernuaren ibilgetuan bere kostu osoagatik kontabilizaturik dagoena) finantzatzeko, aurreko erai-kina eskrituratu eta gero behin betikoz aplikatuko dena. Hortaz, ez da Gobernuaren epe laburrerako zorra, baizik eta Gobernuak osorik finantzaturik ez dagoen eraikin higiezinaren kostua konpentsatzen duena.

“Bestelako ente publikoen konturako baliabideen administrazioako hartzekodunak” kontuak banaketa kontuko saldo hartzekodunak bitzen ditu.

Banaketa kontua Gobernuaren eta Nafarroako toki entitateen arteko kontu korrentea da. Haren korritu tasa, bai saldo zordunetarako, bai saldo hartzekodunetarako, ehuneko 8koa da, sei hilabete behin aplikatzen dena.

1995ean, saldo zorduna duten kontu guztien zenbatekoak 743 milioi egiten du eta balantze aktiboaren barruan erregistratzen dira –2.1.5 eras-

kina—. Saldo hartzekodunek 587 milioi egiten dute guztira eta pasiboan sartzen dira.

Hurrengo koadroan saldo horiek 1992tik 1995era bitartean izaniko bilakaera ikusten da (zenbatekoa milioitan):

Ekitaldia	Saldo zorduna	Indizea	Saldo hartzekoduna	Indizea
1992	802	100	303	100
1993	721	90	360	119
1994	479	60	432	143
1995	743	93	587	194

Alegia, saldo zordunak nahiko egonkor dirauen bitartean, 1994an ezik, saldo hartzekodunak gehitu dira, aztertutako epean, ia-ia bi halako egin arte.

Toki entitateei dagozkien korrituen kitapena gastuen egoerari aplikatzen zaio eta Gobernuaren aldekoak, dirusarrerenei. Ohi bezala, aurreko ekitaldiekin bat datorren irizpidearen arabera, aurreko ekitaldiko azkeneko hiruhilekoak eta indarra duen edo fiskalizaturik dagoen ekitaldiko lehena egozten dira. Hori horrela, 1995erako ohartarazpen hauek egin dira (zenbatekoa milioitan):

Epea	TEen aldeko korritua	Gobernuaren aldeko banaketa kontua
94ko 2. seihilekoa	35	6
95eko 1. seihilekoa	36	7
Guztira	71	13

Aurreko ekitaldiari dagokionez, Gobernuaren aldekoek ia-ia zenbateko berean diraute, toki entitateenak ehuneko 18 gehitu diren bitartean.

Iruzkindu bezala, korritu tasa ehuneko 8koa da, bai Gobernuaren alde, bai Gobernuaren aurka. Hori gutxienez ere 1993az geroztik aplikatu izan den tasa. Merkatuan, baina, Banco Bilbao Vizcaya delakoaren datuen arabera, korritu tasek bilakaera hau izan dute:

Ekitaldia	Batez-besteko tasa
1993	7,16
1994	4,91
1995	5,54

Gomendioak

Saiatzea ekitaldi bakoitzak dagozkion gastu eta dirusarrerak bere gain hartzea.

Aztertzea komenigarri eta egokia den banaketa kontuko korritu tasa merkatuaren bilakaerari loturik egotea.

“Administrazio Publikoak” izeneko kontuan, zor hauek agertzen dira:

Administrazio Publikoak	1994/12/31	1994/12/31
Gizarte Segurantza hartzekoduna	155	159
Hartzekodunak, transferituriko langileen kuoten arabera	209	–
Guztira	364	159

Azpitaldearen saldoa 205 milioitan gutxitu da, hots, ehuneko 56. Horren zioa da hartzekodunak transferituriko langileen kuoten arabera birsailkatu direla.

“Gizarte Segurantza hartzekoduna” kontua 4 milioitan gehitu da 1994ko ekitaldiaz geroztik. Kontzeptu horren barruan Nafarroako langileen lan eta enpresa zorrak sartzen dira eta ikastetxe itunduetako irakasle langileei dagozkienak, ordainketa delegatu gisa eta ikastetxeko titularraren izenean egiten direnak.

Saldo hori, aurreko urteetan bezala, lan kuotaren nominako atxikipenez dago osaturik bakarrik. Alegia, ez du Nafarroako Gobernuak gizarte zamengatik Gizarte Segurantzarekin duen zor guztia (bai lan kuota, bai enpresa kuota) adierazten. 1995eko abenduaren 31n 920 milioi egin zuen guztira, gutxi gora behera balantzean adierazten dena baino ehuneko 600 gehiago.

Labur bildurik, gastu aurrekontuan eta kontabilitate orokorrean aurreko ekitaldiko kontuak eta fiskalizaturik dagoen edo indarra duen ekitaldiko urtarriletik azarora bitartekoak erregistratzen dira.

Gure gomendioa da Gizarte Segurantzako zama guztiak behar den ekitaldian kontabilizatzeko, informazio kontable publikoaren egokitasun hatsapenaren arabera.

“Transferituriko langileen kuotetako hartzekodunak” kontuak (eskubide pasiboak, Muface eta bestelako mutualitateak) langile publikoek gizarte aurreikuspeneko sistema bati dakarkioten dirua biltzen du. Haren saldoa ia-ia zero da, 1991z geroztik egiteke dauden saldoak eta 1995ari dagozkionak birsailkatu dira eta “aginduriko ordainketetako hartzekodunak” kontuan adierazi, dagozkien ordainketa-libramendua luzatzean.

“Bestelako hartzekodunak” kontuan 2.1.5 erasikinean iruzkintzen diren kontu iragankorrak eta formalizaziokoak biltzen dira. Hala ere, ondoren haien edukia zehazten da:

Bestelako hartzekodunak	1994/12/31	1995/12/31
Aplikatzeko dauden dirusarrerak	5	–
Formalizatu beharreko eragiketak	188	149
Guztira	193	149

“Epe laburrerako fidantza eta gordailuak” kontuak 97 milioiko saldoa du. Horrek esan nahi du ehuneko 15eko gutxitze garbia izan dela, aurreko ekitaldiarekiko, gehienbat, gordailuak gutxitu direlako.

Hona hemen zehaztasuna

Fidantzak eta gordailuak	1994/12/31	1995/12/31
Gordailuak	25	4
Fidantzak	89	93
Guztira	114	97

“Gordailuak” 21 milioitan gutxitu da, Ospitale Psikiatrikoko gordailugileen saldoen gainean eginko erregularizazioaren ondorioz.

“Epe laburrera harturiko fidantzak” kontua kontratazioari buruzko arauteria betetzean harturiko dirubidezko fidantzen egiturari ordaintzen da. Ikusten da, hasiera batean epe laburrean – urtebetean, gehienez ere – itzuli beharreko fidantzak badira ere, 1995eko ekitaldiaz geroztiko zenbatekoak daudela. Hori horrela, saldoen ehuneko 49 1995 baino lehen harturiko fidantzei dagozkie.

2.2.4. Aurrekontua kontrolatzeko kontuak eta antolamenduzkoak.

Hurrengo ekitaldietako aurrekontua kontrolatzeko kontuak eta antolamenduzkoak ez dira nahitaezko zat jotzen entitate publikoen balantzeko eskema berrian. Izan ere, ulertzen da biltzen duten informazioa oroit-idazkian garatzen dela.

Hala ere, Gobernuaren gaurko oroit-idazkiak haiek daukaten informazio guztia adierazten ez duenez, aurreko txostenetako egiturari eusteko, kontu hauek aurkezten ditugu, bilakaera hau dutenak (milioitan):

Aurrekontua kontrolatzeko kontuak eta antolamenduzkoak	1994/12/31	1995/12/31
Ondorengo ekitaldietako gastu konpromezuak	24.695	24.362
Agiri bermagarriak	447	428
Harturiko abalak	23.673	21.512
Osaturiko abalak	4.994	6.726
Berme gisa eskainiriko agiriak	5.804	11.915
Kanpoko euskarriak	7.041	–
Guztira	66.654	64.943

Ondoren haien gorabeherarik nabarmenenak.

“Ondorengo ekitaldietako gastu konpromezuak” kontuek 24.362 milioiko saldoa daukate, 1994az geroztik ia-ia aldaketarik izan ez duena.

Zenbateko guztia honelaxe sailkatzen da:

(milioitan)

Ondorengo ekitaldietako gastuetarako eskuragarri	6.993
Baimentzeke	17.369
Baimendua, guztira (Kontabilitatearen arabera)	24.362

Hurrengo koadroan, portzentaietan, azaltzen da zer ekitalditan konprometitu diren aurreko gastuak:

Ekitaldia	%
1996	61
1997	31
1998	7
1999	1
Guztira	100

Departamentuko, nabarmenenak Industria –ehuneko 35–, Nekazaritza –ehuneko 32– eta Herrilanak –ehuneko 30–.

Aurreko txostenetan bezala, berriro aipatuko dugu kontabilitate sisteman agertzen diren gastu konprometituen eta Kontu Orokorrei buruzko Oroit-idazkian agertzen diren daten arteko aldea. Hori horrela, Oroit-idazkian informazio hau agertzen da:

(milioitan)

Ondorengo ekitaldietako gastuetarako eskuragarri	10.407
Baimentzeke	17.280
Baimendua, guztira (Oroit-idazkiaren arabera)	27.687

Alegia, Oroit-idazkiaren eta kontabilitate informazioaren arabera, guztira, 3.326 milioiko aldea dago, gehienbat hurrengo ekitaldietarako eskuragarri edo konprometituari dagokionez.

Horregatik, Ganbara honek berriro dio kontabilitate egoerek –kontrol kontuak edo laguntzaileak izanik ere– adierazgarri zintzoak izan behar dutela, gastuak hartzen ari diren garrantzia kontutan harturik.

Gure gomendioa da erregistro eta kontrol jardunbideak prestatu eta ezartzea, Nafarroako Gobernuaren kontabilitate sistemak hurrengo ekitaldietako gastu-konpromezuak behar bezala adierazi ahal izateko.

“Agiri bermagarriak” kontuak Hiri Jabetzako Ganbarari aurkezturiko fidantza paperen mugimenduak biltzen ditu. Horregatik, abenduaren 31ko saldoak Biltzar horren fidantza papera adierazi behar du.

Mugimenduak azterturik, nabarmentzekoa da:

– Inbentario edo kontaketa akta bat dago, Jabetza Ganbarako langileek ez bestek abalantzen dutena.

– Ez dira 1995eko ekitaldiko paper salmentak kontabilizatu. 1995eko laugarren hiruhilekoko kitapenarekin bat – 1996ko kontabilitatean erregistratzen denarekin – Ganbarak 1995eko abenduaren 31n zuen fidantza paperak 367 milioi egiten zuen, hots, Balantzean agertzen dena baino 61 milioi gutxiago.

Gure gomendioa da kontabilitate saldoak ekitaldiari egozten zaizkion eragiketak adieraztea eta aski den frogagiriak eustea.

Hala ere, komeni da esatea izaera horretako sendotze prozesu guztia, gaurregun, aztergai dagoela, Jabetza Ganbara bera.

“Harturiko abalak” kontua honela sailkatzen da (zenbatekoa, milioitan):

Harturiko abalak	
Obra eta hornidura kontratuetakoa abalak	14.688
Abal bereziak	6.323
Nahitaezko Dirubilletakoa abalak	501
Guztira	21.512

Eginiko azterketatik, nabarmentzen dugu:

– Ikusi da kontu zordunen eta hartzekodunen artean 2.487 milioiko aldea dagoela, azkenekoen alde. Akatsa jakinarazita, 1996an zuzendu zen.

– Etxebizitzan Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako emaniko dirulaguntzen bermagarri harturiko abalak ez dira erregistratzen ez eta kontabilizatzen. Zenbatekoa 5.200 bat milioitan zenbatetsi da.

– “Obra eta hornidura kontratuengatik harturiko abalak” kontuaren barruan ikusi da beharrezkoa da aldi-aldi saldoak ongi eginak daudela egiaztatzea. Kontu horrek gerorapenen ondoriozko abalak ere biltzen ditu.

– “Abal bereziak” kontuan, aipatzekoa da Laminaciones de Lesakaren abalaren, 1985eko zorren gerorapenengatik 8.907 milioi egiten duenaren, ordez Gobernuak harturiko bermea ezarri dela, Corporación de la Siderurgia Integral delakoak luzaturiko ezagutza gutun batean gauzatua, 1995eko gerorapen baten ondoriozko 4.837 milioi ziurtatzeko. Gainerako abaletatik, Auditoretza Atalaren txosten baten arabera, abal batzuk bertan behera utzi beharko liriateke edo 1.034 milioiko bermeak itzuli.

Gomendioak:

Etxebizitza arloan lorturiko abalak behar bezala erregistratzen eta kontrolatzen direla bermatzeko jardunbideak prestatu eta aplikatzea.

Abalen indarraldia aztertzeari eustea.

“Osaturiko abalak” kontuak formalizaturiko abalen saldoen bilakaerari dagokionez, bilakaera hau izan du:

Enpresa/Sektorea	1994/12/31	1995/12/31
Audenasa	3.000	3.000
Etxebizitza Patronatua eta beste	18	114
Krisialdian dauden enpresak *	1.549	2.778
Ikerketa eta Garapena *	427	834
Guztira	4.994	6.726

* Industri jarduera sustatzeko programan argibide gehiago aurki daitezke abala hauei buruz.

Saldo hau 1.732 milioitan gehitu da, hots, ehuneko 35. Eginiko azterketatik, nabari da:

– “Etxebizitza patronatua eta beste”. 1995az geroztik, patronatuaren abalaz gain, inbertsioa eta enplegua sustatzeko plan bereziaren ondoriozkoak eta Sociedad Navarra de Garantía Reciproca, Sonagar, delakoak enpresei ematen dien abala bermatzekoak. 1995ean 3 abal eman dira, 238 milioi egiten dutenak. Dena dela, bakarrik 2 formalizatu dira, 166 milioi egiten dutenak. Beherakadak Patronatuaren 6 milioiren eta Sonagar-ek onuradunak bete ez duelako bere gain hartu behar izan duen 64 milioiko abalaren burutzearen ondoriozkoak dira.

– “Krisialdian dauden enpresendako abalak”. Guztira, 1.495 milioi formalizatu dira, 100 milioi egiten duten bi abal burutu direlarik. Alten barruan, Comercial Europea de Porcelanas, SAK 1.200 milioitan eginiko abala da nabarmentzekoa. Halaber, beste abal bat baimendua da, baina formalizatu gabe, zenbateko berean, Papelera de Navarra, S.A.rendako. Abenduaren 31ko saldoa 20 enpresarekin formalizaturiko abalei dagokie.

– “Ikerketa eta garapenerako proiektuetarako abalak” Industri Politikarako Kointura Neurri eta Inbertsio eta Enpleguaren Sustapenari buruzko Arauan aipatzen dira eta maielgu abalatueterako eta korrituen hobarietarako, 232/1993 Foru Dekretuaren bidez garatuak.

Hortaz, 1994ko txostenean adieraziarekin bat, uste dugu Nafarroako Gobernuak emaniko abalak hartzen ari diren garrantziak, eragiketa zenbaiti dagokien arrisku ekonomikoak eta bermeen eska-siak Nafarroako Parlamentu eta Gobernuari pentsarazi beharko lieketela egin den abal politika egokia den, ahortzi gabe, bistan denez, lortu nahi diren gizarte xedeak.

Gomendatzen dugu aztertzea ea komenigarria den Abalen eta Nafarroako Gobernuak emaniko gainerako bermeen Erregistro Orokorra ezartzea.

“Berme gisa eskainiriko agiriak” honela sailkatzen da:

(milioitan)

Aurkezturiko abalengatik	4.265
Gerorapen eta zatiketengatik	7.649
Guztira	11.914

Alta bada, gure iritziz, saldo hori zuzendu egin behar da:

a) Akats batengatik, kontu hartzekodunei 2.487 milioi gutxiago egotzi zaizkie zordunei baino.

b) 1.700 milioi daude soberan, abal bikoiztuen ondoriozko bi bermerengatik.

Inguruabar hauek jakinarazirik, aurreko zenbaitekoak 1996an doitu dira.

Ondoren, azpikontu horietarako gorabeherarik nabarmenenak:

– Aurkezturiko abalen ondoriozko kontuko saldoa ez da egokia, lehen bikoiztasunaz iruzkindu denaz gain, bajaran edo bertan behera utzirik dauden bermeak, burutuak diren abalak edo abal bati ere ez dagozkion bermeak biltzen dituelako.

– Gerorapen eta zatiketengatik aurkezturiko agiriei dagokienez, gutxi gora behera 2.500 milioitan gehitu dira, ekitaldi honetan izan diren 10 altengatik. Aipatzekoa da Sarrió Papeleraren 2.037 milioiak dira aipatzekoak. Haietarik 8 1995 baino lehenagoko eskriturei dagozkie. Bajei dagokienez, dagoena Porcelanas del Norte SAL-i dagokio, 715 milioikoa, zorra nahitaezko dirubiltzara eramaten baita.

Aurreko ekitaldian bezala, gerorapen batzuk aurkitu dira, non doakien bermeak oraindik hartu ez baitira.

Bestaldetik, zerikusia duten zerbitzuen arteko koordinazioa hobetu beharra dago, berme bera gerorapen eta abaluetarako legokeelako.

Gomendioak:

Agiri horien jarraipen eta kontrolean zerikusia duten zerbitzuen arteko koordinazioa hobe izatea.

Ekitaldi bakoitzari kontableki izaera horretako eragiketak egozteak, hala bada.

Aski diren bermeak lortzeko eginbeharra betetzea, kontutan harturik, hala ere, kasu batzuetan, gizarte interes batzuek lehentasuna izan lezaketela.

“Kanpoko laguntza” kontuek ospitaleetako eta laguntza zentroetako osasun prestazioaren fakturazioa adierazten dute. Urtean, kotabilitate atalak erregularizatu egiten ditu, saldoa zeroan utziz, 1994an jarduketa hori egin ez bazen ere.

2.3. EKONOMI ETA ONDARE EMAITZAKO KONTUA.

Ondoren, emaitza kontuaren edukia garatuko dugu laburki. Haren sailkapena eta 1994arekiko alderapena txosten honetako IV.3 atalean biltzen da, aurkezpen eskema berriaren arabera.

1995eko ekitaldiko ekonomi eta ondare emaitzak saldo zorduna du (galera), 1.427 milioikoa. Horregatik, emaitza negatibo horrek esan nahi du gastu ekonomikoak eta galerak ekitaldiko dirusarrerera ekonomikoak eta irabaziak baino gehiago direla. Alegia, Nafarroako Gobernuak ez dituela bere gastuak finantzatzeko adina dirusarrerara sortu. Horrela desaurrezki bat sortu da eta fondo propioen aldaketa negatiboa, aurrekontuko eta aurrekontutik kanpoko eragikiten ondorioz. Hala ere, 1994aren aldean, galera horiek 25.544 milioitan gutxitu dira.

Hurrengo koadroan haren osaketa eta aurreko ekitaldiarekiko alderapena (milioitan) erakusten dira, aurkezpen berriaren arabera:

Emitza	1994/12/31	1995/12/31
Ohiko kudeaketa	72.890	104.832
Transferentzien eta dirulaguntzen saldoa	(74.565)	(87.032)
Ohiz kanpokoak	(25.296)	(19.227)
Guztira	(26.971)	(1.427)

Alegia, emaitza negatiboa – galerak – asko gutxitu da 1995ean, ehuneko 95. Osagaiak aztertzen baditugu, ikusten dugu:

- Ohiko kudeaketaren emaitza.

Ekitaldiko ohiko kudeaketaren emaitza 31.942 milioitan gehitu da, alegia, ehuneko 44. Gehitze horrek posible egiten du emaitza osoko gasinera-ko osagaietan izaniko desaurrezkiak konpentsatzea.

Ohiko dirusarrerak ia ehuneko 22 gehitu dira 1994aren aldean. Osagaika, proportzio handiengan gehitzen direnak tributu dirusarrerak dira, bereziki, balio absolutuetan, PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga.

Ohiko gastuei dagokienez, ehuneko 5 gehitu badira ere, dirusarrerak baino gutxiago gehitu dira. Kontzeptuka, aipatzekoa da zorren ondoriozko finantza gastuak ehuneko 35 gehitu direla.

- Transferentzien eta dirulaguntzen saldoa.

Transferentzien ondoriozko gastuak, 1995ean, ehuneko 13 gehitu dira, ohikoak gehitu egin direlako, ehuneko 16, kapitalekoak bakarrik ehuneko 5 gehitu direlako. Izaera horretako dirusarrerak, ordea, ehuneko 1 gutxitu dira.

Horren ondorioa da emaitzetako osagai horren saldo zorduna nabarmenki gehitu dela, 12.467 milioi.

- Ohiz kanpokoak

Ekitaldiaren ondoriozko ohiz kanpoko galerak ehuneko 32 gutxitu dira – 7.242 milioi –. Gutxitze hori gehienbat erabilera orokorrerako jabetza publikoko ondasunetan gutxiago inbertitu delako.

Aurreko ekitaldien ondoriozko emaitza negatiboa ehuneko 40 gheitu da. Horrek esan nahi du desaurrezkia 1.174 milioitan gehitu dela, aurreko ekitaldietako eskubideak gehiago ezabatu direlako.

Aurreko osagarrien kasuan kasuko mugimenduak balantzeari buruzko epigrafeetan aztertzen dira.

Azkenik, hurrengo koadroan ekonomi eta ondare emaitza erakusten da, Administrazio Orokorraren eta Erakunde Autonomoen artean banaturik.

Ekonomi eta ondare emaitza	1994	1995
Administrazio Orokorra	36.852	65.003
O-NOZ	(52.027)	(53.453)
NGOI	(9.990)	(11.154)

EVENA	(90)	(99)
NAPI	(292)	(275)
NKGI	(1.009)	(1.046)
NLOI	(415)	(403)
Guztira	(26.971)	(1.427)

Erakunde autonomo guztiek desaurrezkiak dauzkate bi ekitaldietan, gehienbat Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan.

Erakunde autonomoen emaitza negatioben baturak Administrazio gainerakoak eskuraturiko aurrezkiak zurgatzen ditu. Hala ere, 1995ean, emaitzak nabarmenki gehitu ziren – ehuneko 76 – eta horrek posible egiten du galera orokorrak nabarmenki gutxitzea.

3. ERASKINA. 1995EKO AURREKONTUAREN BETETZE-MAILAREN AZTERKETA ETA ZENTSURA.

“Norainokoak eta mugak” atalean adierazi bezala, aurrekontuaren betetze-mailaren azterketa Nafarroako Gobernuak garaturiko programa eta jarduerak fiskalizatuz egin da.

Jarduketak eta haien zenbateko osoa (milioitan) hauexek izan dira:

Programa/jarduera	Zenbatekoa	
	Gastuak	Dirusarrerak
Enpleguaren sustapena	1.834	108
Industriaren sustapena	5.110	869
Dietak eta bidai gastuak	505	–
Irabazi asmorik gabeko erakundeendako transferentziak	9.003	–
Tributuak	–	194.883
Estatuarekiko Hitzarmena	21.734	34.960
Europako transferentzien ondoriozko dirusarrerak	–	4.371
TGuztir	38.186	235.191
Aurrekontuaren %	16	91

Eginiko landaren ondorioak hiru bloke handitan bildurik agertzen dira. Lehengo aurrekontuaren kapituluko betetze-mailaren sailkapen ekonomiko edo ohiko azterketari dagokio. Bigarren sortan, haren berezitasunagatik, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoko Programa aztertzen da bakarrik. Azkenik, jarduera publikoaren zentzuzkotasuna egiaztatzen eta ebaluatzen dugu, aurrekontuetako baliabide publikoak erabiltzerakoan ekonomia,

eraginkortasun eta zintzotasun hatsapenak kontutan harturik.

3.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA, KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA.

Atal honetan, gastu eta dirusarrera kapitulu ekonomikoak ukitzen dituzten izaera orokorreko gorabeherak aztertzen ditugu. Kapitulu horien betetze-mailaren sailkapena 2 eraskinean agertzen da.

G A S T U A K

3.1.1. Langileak.

Alor honetan eginiko lana atal hauetan egitura-tzen da:

- 1995eko gastu aurrekontuko 1. kapituluko aurrekontuaren betetze-mailaren azterketa.
- 1995eko abenduaren 31ko plantila organikoaren azterketa
- 1995eko batez-besteko lansari iraunkorren azterketa.
- 1995eko absentismoa

Azken atal hauetako datuak Lehendakaritza Departamentuko Langileri Zerbitzuak prestaturiko txostenetik datoz gehienbat. Eskerrak eman nahi dizkiegu horregatik.

a. Aurrekontuaren betetze-mailaren azterketa

Hastuen 1. kapituluko obligazio aitortuek 73.515 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 99koa da eta ekitaldian gauzaturiko gastuaren ehuneko 31 egiten du. Horregatik, 1994an bezala, gastatu diren ehun pezetetatik 31 langileen gastuetan erabili dira.

1. kapituluko hasierako kredituak bi kreditu osagarriren bidez gehitu ziren: bata, 961 milioi-koa, Hezkuntza Departamenturako, aldi baterako kontratazioa finantzatzeko, eta bestea, 253 milioi-koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako, "Gizarte Segurantzza" kontzeptua dela eta.

Aurrekontuko arikuluen arabera, kontzepturik esanguratsuenak funtzionarioen eta kontratupekoen lansariak dira – langileen gastuaren ehuneko 78 –, gizarte kuotak – ehuneko 11 –, gizarte prestazioak – ehuneko 5 – eta langileen lansari aldakorrak – ehuneko 5 –.

Departamentuka, gastuaren ehuneko 79 Osasunari eta Hezkuntzari egotzi zaie.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, langileen gastuak ehuneko 3,3 gehitu dira. Gehitze horren zioa da, langile publikoei eta goi karguei aplikaturiko lansari-izozketa izanik ere, Nafarroako Gobernuak zenbait lanpostu eta mailatarako, graduz igotzeko eta antzintasunerako izenpeturiko Hitzaremanak betetzeak eraginiko lansari-gehitzea eta langile pasiboen sarien ehuneko 3,5 gehitzea.

b. Plantila organikoa.

1995eko abenduaren 31ko plantila organikoari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Langileri Zerbitzuak prestaturiko azterketaren arabera, datu interesgarri hauek nabarmentzen ditugu:

- Plantilan agertzen diren lanpostuak 15.754 dkra. Horietarik, ehuneko 6 –997– "ez oinarrizkoak" (1) dira. Gainerakoak, hots, 14.757 "oinarrizko" lanpostuak dira (2).

- Oinarrizko lanpostuen barruan, 12.984 betetarik daude eta horietarik ehuneko 79 Osasun eta Hezkuntza departamentuetan biltzen dira. 1.773 lanpostu betegabe daude, hots, ehuneko 12. Osasun Departamentuan daude gehienak – 900 lanpostu betegabe–.

- Betetako lanpostuen artean, ehuneko 41 gizonetakoek betetzen dituzte eta ehuneko 59 emakumeetakoek.

- Adina kontutan harturik, beteriko lanpostuak horrengo tarteen arabera egituratzen dira:

Urte tartea	%
-30	5
30-39	35
40-49	37
50-59	17
+60	6
Guztira	100

Alegia, langileen ehuneko 72 30tik 49 urte bitartekoak dira. Nabaria da oso gutxi direla 30 baino gutxiago urte dituztenak.

– Koadro honetan, portzentaietan, araubide juridikoa eta aurreko ekitaldiarekiko alderapena kontutan harturik erakusten dira beteriko lanpostuak.

(1) Lanpostu ez oinarrizkoak dira Administrazioaren egitura hierarkikoaren ondorioz sortzen direnak eta Gobernuak unean-unean ezartzen duen antolamenduaren arabera dira. Aldi baterakoak dira.

(2) Oinarrizko lanpostuak dira Gobernuak ematen dituen zerbitzu publikoei eusten dien egitura iraunkorra osatzen dutenak dira.

Araubide juridikoa	1994	1995
Funtzionarioak	78	92,4
Estatutukoak	13	5,7
Langile finkoak	8,6	1,5
Langile jarraigabeak	0,4	0,4
Guztira	100%	100%

Alegia, argi eta garbi ikusten da gero eta gehiago direla funtzionarioak Nafarroako Gobernuaren zerbitzuko langileen artean.

Maila aintzakotzat harturik, koadro honetan, portzentailetan, lanpostu beteak eta betegabeak erakusten dira.

Maila	Beteak, %	Betegabeak, %
A	23	22
B	39	17
C	8	6
D	21	42
E	9	13
Guztira	100	100

Alegia, lanpostu beteak ehuneko 62 A eta B mailetakoak dira. Betegabeen artean, portzentailetan altuena D mailan dago – ehuneko 42–.

c. 1995eko batez-besteko lansari finkoak

Nafarroako Gobernuak Langileri Zerbitzuak 1996ko aurrekontuan plantilako lanpostu bakoitzerako ezartzen diren diru-kopuruetatik abiatuak lortzen ditu datu horiek. Bakarrik lanpostuaren berezko sariak eta norberarenak daude bakarrik ezarriak. Aldakorrak (ordu estrak, ekoizkortasuna) ez dira kontutan hartu.

Batez-besteko lansariak, milioitan, mailaka, hauexek dira:

Maila	Zenbatekoa	Indizea
A	5,3	230
B	4	174
C	3,1	135
D	2,7	117
E	2,3	100
Sexuaren arabera		
Gizonezkoak	4,2	
Emakumezkoak	3,6	

Departamentuka, Hezkuntzako 4,1 milioien eta Gizarte Ongizateko 2,9 milioien artean daude.

Mailakako lansarien artean, haien arteko tartea 1etik 2,3ra bitartekoa da. Horrek erakusten du, Ganbara honek Langileriaren Kudeaketari buruzko Txostenean (1996ko ekainaren 28ko 42 zk.ko NPAO) adierazi bezala, laztasun eta homogenizazio handia dagoela langile publikoen sarietan.

d. Absentismoa, 1995

1995ean, gure gomendioei jarraiki, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak lan absentismoa neurtzeko jardunbide parekatua ezarri du. Horretan, lan baja (gaisotasun edo istripuagatik, baja medikoarekin edo gabe) eta amatasun-baimena ez ezik, gaurko arauterian aurreikusten diren bestelako zioak ere (prestakuntza, euskara, norberaren aferak eta sindikatuen jardura) sartzen dira.

Prestaturiko jardunbidea Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoetako langile guztiei aplikatzen zaie, irakasleei salbu, Hezkuntza Departamentuak beste sistema bat aplikatzen die eta.

Lorturiko emaitzak hauexek dira:

- 1995ean, langile publikoen absentismoa (irakasleena ezik) 7,2 egunekoa da.

- Zioak aintzakotzat harturik, absentismoa honela sailkatzen da:

Zioak	Absentismoa
Lan baja (*)	4,25
Amatasuna	0,65
Prestakuntza eta euskara	0,68
Norberaren aferak	0,28
Ordainduriko baimenak eta sindikalak	1,32
Guztira	7,20

(*) Baja medikoarekin eta gabe

- Zentroka, absentismoa honela sailkatzen da:

Zentroak	Absentismoa
Lehendakaritza	10,18
Economia eta Ogasun	2,66
Toki Administrazioa	5,08
Ingurugiroa	4,65
Hezkuntza	8,33
Osasuna	9,23
Herrilanak	9,47
Nekazaritza	4,36

Industria	7,70
Osasunbidea	6,82
Nafarroako Lan Osasunaren Institutua	17,96
EVENA	4,80
Gizarte Ongizatearen Institutua	9,43
Kirol eta Gazteriaren Institutua	11,79
Guztira	7,20

• Hezkuntza langile irakasleei dagokienez, aurkezturiko datuek erakusten dute 167.042 lanordu galdu direla, gehienbat, gaisotasunagatik, bisita medikoagatik eta haurdunaldiagatik.

Langileen gastuen kapitulua bukatzeko, 1994ko txostenean emaniko gomendiorik esanguratsuenak bilduko ditugu, funtsean indarrean diraute eta.

Langileria alorra arautzen duen marko juridikoa ez betetzea.

Arlo honetako marko juridikoa garatzeko legezko aginduen ez-betetze nabarmenen artean hauek daude:

• Ez dago legerik Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioak talde edo kidegoetan sailkatzen dituenik. Horrek zailago egiten ditu funtzionarioen barne-igoera eta mugikortasuna.

• Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen eskubide pasiboen arautzea.

Nafarroako Gobernuari gomendatzen diogu legezko aginduak betetzeko edo, hala bada, bestelako langileri politikarik prestatu eta ezartzeko.

Langileriaren kudeaketa

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan hiru sailkapen – ekonomikoa, organikoa eta funtzionala – erabiltzen direnez eta horiek aurrekontuetako programen bidez aurkezten direnez, aurrekontu-lerro asko erabili behar dira. Hori dela eta oso nahasia da aurrekontuetako saldoak saldoak kontrolatzea eta beharrezkoa izaten da giza eta gauzazko baliabide garrantzitsuak ibiltzea.

– Nomina kontabilizatzeko atzerapenek, neurri batean, aurreko zioengatik, zailago egiten du haiek erregistratu, jarraitu eta kontrolatzea. Horrek eraginez, kontu horretan, Nafarroako Gobernuaren kontabilitatea ez da beti osagai erabilgarria langileria kudeatzeko ez eta euskarri bat erabakiak hartzerakoan ere.

Gure gomendioa da Nafarroako Gobernuko langileria gastuak aurkeztu eta burutzeko gaurko jardunbidea aztertzea, gaurko aurrekontu-informazioak dakarren kostua eta erabilgarritasuna kontu-

tan harturik, bai jarraitzeko, bai baliabide publikoak behar bezala kudeatzea posible egiten duten neurriak hartzeko.

Lansari eredia

Gure gomendioa da Nafarroako Administrazio Publikoetako lansari eredian zenbait osagai aldatzeko sartzeko ikerketak egitea, lanpostuaren, ekoizkortasunaren eta lorturiko xedearen arabera. Neurri horiek ekarriko dute osagarriak aplikatzea, motibazio eta barne-igoerarako, langile publikoei bihotz emateko.

3.1.2. Ohiko ondasunak eta zerbitzuak.

Aurrekontuko 2. kapituluan aitorturiko obligazioek 21.189 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 97koa da eta gastu guztien ehuneko 9 egiten dute.

1994ari dagokionez, izaera horretako gastuak ehuneko 2 gehitu dira, hots, KPI baino gutxiago.

Osaketari dagokionez, nabarmentzekoa da:

• Beste artikulua bat sortu dela itunen kostua adierazteko, 3-041 milioi egiten duena. Clínica Universitaria de Navarra (1.281 milioi), Clínica San Juan de Dios (1.008 milioi) eta ambulanzietako (509 milioi) itunei dagokie.

• Zenbatekoetan, aurreko artikulua sorkutza onduz, "materialak eta hornidurak" gutxitu da gehien. Haren gastua 2.500 milioitan gutxitu da 1994az geroztik.

• Departamentuka, nabarmenenak Osasuna (13.220 milioi), Hezkuntza (3.006 milioi) eta Lehendakaritza (1.688 milioi) dira, kapituluko gastuen ehuneko 84 egiten dutenak.

Berezko lan gisa, txosten bat egin da dietei, joan-etorriei eta bidai gastuei buruz. Haren finantza ondorio nagusiak hauek dira:

• Osaketa. Gastu horiek honela sailkatzen dira (zenbatekoa milioitan):

Kontzeptua	Zenbatekoa	%
Dietak	76	15
Kilometroak	245	49
Bidai-gastuak	184	36
Guztira	505	100

• Ondorio orokor gisa, aurreko gastuak indarra duen arauteriaren arabera kudeatu eta kontrolatu dira. Behar bezala erregistraturik eta behar bezalako euskarriarekin daude, baita eginiko gastuaren frogagiriarekin ere, eta zentzuzko moduan kudeatu dira. Hala ere, komenigarria izan liteke

departamentuek gastu hauetan ezarriko sailkapenak erabiltzea, haiek osatzen dituzten kontzeptuak azterketa fidagarriak egin ahal izateko, eta bidaia bakoitzaren guztirako kostuaren laburpena egitea, gastuak kitatzeko inprimakiari erantsiz.

3.1.3. Finantza gastuak.

Aurrekontuko 3. kapituluko obligazio aitortuek 9.525 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 100ekoa da eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 4 egiten dute.

1999aren aldean, ehuneko 34 gehitu dira, gehienbat Zor Publikoaren ondoriozko finantza gastuengatik (9.525 milioi, 6.934 milioiren aldean).

Hurrengo koadroan, kapitulu honek 1992tik 1995era bitarte izaniko bilakaera azaltzen da:

Ekitaldia	Zenbatekoa
1992	261
1993	5.006
1994	7.082
1995	9.525

Alegia, ia eraginik ez zuen kapitulu bat izatetik Gobernuaren gastu guztien ehuneko 4 egitera pasa da.

Dena dela, txostenean esan bezala, kapitulu honetan aitorturiko obligazioak 1.085 milioitan gutxitu dira, bi finantza trukaketaren (SWAP) emaitza positiboa izan dela, korritu tasen gainena. Labor bildurik, 1995eko zor publikoko egitezko korrituek 9.508 milioi egiten dute.

3.1.4. Ohiko transferentziak.

4. kapituluko obligazio aitortuek 78.872 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 97koa da eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 33 egiten dute.

1994aren aldean, zenbatekoa 11.017 milioitan gehitu da, alegia, ehuneko 16, gehienbat, Estatuarrekiko Hitzarmen Ekonomikoaren diru-ekarpenen ondorioz Estatuko Administrazioarendakoetan.

Transferentzia horien xede diren sektoreak koadro honetan biltzen dira (zenbatekoa milioitan):

Sektoreak	Zenbatekoa	%
Estatua	21.174	27
Enpresa eta ente publikoak	6.559	8
Udalak eta kontzejuak	16.906	22
Enpresa pribatuak	2.531	3
Familiak eta erakundeak	31.702	40
Guztira	78.872	100

Ganbara honek behin eta berriro adierazi duen bezala, laguntzak eta dirulaguntzei buruzko arauteria orokorrik ez dagoenez, asko dira haiek emateko eta jarraikitzeo kasuan kasukoak. Horiek elkarrengandik ezberdinak dira eta oinarritzko gorabehera batzuk ez ditu biltzen edo ez behar bezala, hala nola:

- Hautatzean aplikaturiko irizpideen definizioa.
- Diruz laguntzen ahal den gehieneko zenbatekoa objektiboki zenbatzeko irizpideak ezartzea.
- Zehaztea zer gastu laguntzen ahal diren diruz.
- Onuradunak zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izateko eginbeharra.
- Espreski finkatzea, hala bada, zer kontrapartida Nafarroako Gobernuaren alde dakartzan berarekin dirulaguntza lortzeak.
- Dirulaguntzaren onuradunak arauak betetzen ez baditu, dirua itzuli eta berriro ordaintzeko tresnak.

Gure gomendioa da Nafarroako Gobernu hor-nitzea arau bilduma batez, alde batetik, dirulaguntzak ematerakoan, zabalkunde, lehiakortasun eta aukera berdintasun hatsapenak aplikatzen direla bermatzeko eta, bestetik, haiek egokiro aplikatzea, behar diren barne kontrola tresna eta jardunbideak ezarritz.

Arlo honetan eta kapital transferentzietan eragina duten lan gisa, hauek egin dira:

a. Irabazi asmorik ez duten erakundeendako transferentziak (1996ko urriaren 4ko 52 zk.ko NPAO).

b. Enplegua sustatzeko laguntzak.

c. Industri jarduera sustatzeko laguntzak.

Lan horietarik, labor disa, hau nabarmentzen dugu:

a. Irabazi asmorik ez duten erakundeendako transferentziak.

• Antolamendu juridikoak ez du irabazi asmorik gabeko erakundeen definizio baliagarri orokorrik ematen.

• Eginiko lanetik, zuzenean, jakin dezakegu, 1995eko aurrekontuari egotziriko gastuaren ehuneko 53k, hasiera batean, irabazi asmorik gabeko erakunde bat zuela onuradun. Gainerako hartzaileendako, kasuz kasu, aztertu beharko litzateke, haien izaera juridikoa eta harturiko laguntzaren xedea egiaztatzeko.

- Nafarroako Gobernuko departamentu guztiek ez dute lehentasunik ezarri jarduerak eta programak diruz laguntzerakoan. Horregatik, dirulaguntzak departamentuaren aldi baterako helburuekin zerikusirik ez duten jarduerari ematen zaizkie.

- Ikusten da dirulaguntza batzuk langileen, gizarte segurantzaren eta onuradun entitateen funtzionamendu gastuak neurri batean edo bestean finantzatzeko, haien jarduerari edo gizarte eginkizunari dagozkien ekintza edo programen kaltean.

- Ikusi da kontzeptu honetan sarturiko zenbait kontusail gaizki egotzirik daudela, bi ikuspuntutatik:

- Alde batetik, ohiko dirulaguntzei egotzen zaizkie, haien izaera kapitalekoa bada ere eta alderantziz

- bestaldetik, zenbait dirulaguntza, gure iritziz, zerbitzu prestazioen ondoriozko lansariak dira eta horregatik gastuen bigarren kapituluaren egotzi beharko lirateke. Zehazki, aztertu ditugun artean, Lehendakaritza, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Departamentuek izenpeturiko hitzarmenak leudeke, kobratuak izateko kasuan kasuko ordainagiria aurkeztea dutenak.

- Orokorrean, ez da betebeharrak gisa ikusten onuradun entitateek harturiko bestelako dirusarrerak edo dirulaguntza osagarriak buruzko informazioa eta ez da erlazioan jartzen Nafarroako Gobernuak emaniko dirulaguntzaren zenbatekoa haietako afiliatu eta kideek dakarten ahalegin ekonomikoarekin.

- Nafarroako Gobernuko departamentuek aplikaturiko jardunbideek ez dute bermatzen diruz lagunduriko ekintza eta programak kontzesioan aurreikusirik baldintzen arabera egin direla. Afera hori fiskalizazioan aurkituriko puntu ahul bat da nabarmenenetakoa, hain zuzen ere.

- Orokorrean, eragiketen emaitzen ondorengo ebaluazioarik ez da egiten, ez eta diruz lagunduriko ekintza edo programen betetze-mailaren ondoriozko oihartzun ekonomiko-sozialena ere.

Aurreko ondorioen emaitza gisa, Kontuen Ganbarak gomendatzen du ondoren aipatzen diren neurriak aztertu eta, hala bada, hartzea:

Foru Ogasunaren gaurko egoera ekonomiko-finantzarioak behar duen aurrekontu-zorroztasunak, Nafarroako Gobernuko aurrekontuaren barruan, dirulaguntzen duten garrantziarekin batera, arlo honetako politika zehatz-mehatz ezbaian jartzera, bai ikuspuntu kuantitatibotik, bai ikuspuntu kualitatibotik.

Emaniko dirulaguntzaren zenbatekoa onuradun entitateko kide edo afiliatuek dakarten ahalegin ekonomikoarekin erlazioan jartzea, haren zenbatekoak diru-ekarpenarekin harremana izan dezan.

Zenbat laguntza mota gehiago dira oparia dirulaguntza baino. Hori dela eta haiek emateko eta justifikatzeko jardunbidea erraztu egin liteke.

Onuradun entitateekin izenpetzen diren hitzarmenetan argi eta garbi gelditu behar dute justifikatzeko moduak, kasuan kasuko departamentuak aplikatu beharreko kontrol jardunbideek eta eskuratu beharreko kontrapartidek.

Saiatzea aurrekontu-egozketa gastuaren benetako izaerari egoki dakion, bai diruari dagozkionez, bai hartzaileari dagozkionez ere.

Kudeaketa onak onuradunek aurkezturiko justifikazioaren kalitateari buruz, haren epeari buruz eta hasiera batean diruz lagunduriko jarduerarekiko erlazioari buruz behar duen zorroztasuna aplikatzea eta, hala bada, itzulera eskatzeko tresnei ekitea, sor litezkeen erantzukizunak deusetan galarazi gabe.

Gaurko egoeran, orokorrean, ez dirudi egokiena denik onuradun talde zenbaiten langileria eta funtzionamendu gastuak diruz laguntzea, haiek garatzen dituzten kasuan kasuko programa eta ekintzen kaltean. Hori dela eta egoki deritzogu portaera hori aztertzeari eta, hala bada, gastu mota horretarako laguntzen aplikazioaren gehieneko portzentaia ezartzeari.

Emaniko laguntzen aplikazioa egokia dela a posteriori bermatzeko jardunbideak prestatzea, gehienbat zenbateko esanguratsukoak – adibidez zenbateko batetik goitikoak – edo gizartean duten eragin edo oihartzunagatik horrela jotzen direnak. Horretarako, dirulaguntza guztien portzentaia bat jardunbide horiek finantzatzeko erabil liteke. Horiek Nafarroako Gobernuko langileek edo hartatik kanpokoek gara litzakete.

Arau orokor gisa, dirulaguntza bat ematen denean, ez litzateke zenbatekoaren ehuneko 100 ordaindu behar. Praktika horri eusten bazaio, emateko eskabideak betebeharrak gehiago eskatu behar dira eta, hala bada, ondorengo kontrolarekin osatu.

Egokitzat jotzen den epean, laguntzek hiritarren bizimoduaren hobekuntzan eta lortu nahi diren beste helburu batzuen lorpenean duten ekarpen eta oihartzuna aztertu eta ebaluatzea.

b. Enplegua sustatzeko laguntzak.

- Laguntza horien oinarriko jardunbideak arautzen dituen eta kasuan kasuko administrazio unitateen jarduketa irizpideak zehazten dituen Erregelamendua bukatzeke dago.

- Laguntzak ongi kudeatzeko, tresna informatikoen laguntza eta erabiliera behar da. Une hauetan, jarduera batzuk informatizaturik daude eta beste batzuek aplikazioaren diseinua arian dute. Horiek ezartzeak erraztu egingen du haien kudeaketa ekonomiko-kontablea.

- Enpleguarendako laguntzen onuradunek, horiek hartu eta gero, bete edo luzatu beharreko obligazio eta agirien azterketan atzerapen nabarmena sumatu da. Atzerapen hori, kasu batzuetan, laguntzen izaera eta arauteriatatik justifikatzen da.

- Enpleguarendako laguntzetan, Administrazio nagusitik datozenak, oraindik ere, Estatuko arauteraren arabera zuzentzen dira, haien kudeaketa eta haien finantzaketa Nafarroako Gobernuari ez besteri badagokio ere.

- Prestakuntzarako laguntzen artean, ikusten da zehaztasunik eza dagoela haiek eman eta zenbatzerakoan, frogagiriaren kalitateari dagokionez eta dirulaguntzaren onuradunak erabiliriko bestelako finantza iturrien kontrolari dagokionez.

Gomendioak

Unitate bakoitzari aplikatzekoa den eta jardunbideak arautzen dituen erregelamendua bukatzea; partikularzki, justifikazio, onfotr kontrol eta laguntzen benetako oihartzunari buruzko gorabeherak biltzea.

Gaurko betebeharren eraginkortasuna aztertzea, laguntzak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzeke. Hortaz, eskatzen diren betebeharren zorrotasun eta egokitasunaren eta haiek kontrolatu eta jarraikitzeke benetako posibilitateen, alegia, behar diren baliabideen erabileraren artean oreka bat lortzen saiatu behar da.

Enpleguarendako laguntzak aztertzeke plana prestatza, sistematikoki haiek epeetan ongi aplikatzen direla ziurtatu ahal izateke.

Laguntzen kontrola hobetzeko neurri horien barruan, Nafarroako Gobernu Kontuhartzailetzako Auditoretza Atalak, berezko dituen jardunbideak aplikaturik, laguntzaren benetako eraginkortasuna egiaztatzeke eginkizun garrantzitsua betetzen ahalko dute.

c. Industri jarduera sustatzeko laguntzak.

Enplegu eta inbertsiorako zuzeneko laguntzak emateko jardunbidean, puntu ahul hauek nabarmenduko ditugu:

- Kasu batzuetan, pertsona bakar batek biltzen ditu eginkizunak.

- Espedienteko agiriak sakabanatzea.

- Inbertsio kontzeptua ez dago ongi zehazturik.

- Espedienteren batean, ikuskaritza fisikoa agirien bidezko egiaztapena da.

- Gizarte Segurantzarekiko eginbeharrak egunean izateko eta onuradunak agiriak igortzeko betebeharrak ez dira aski kontrolatzen eta jarraikitzen.

- Ikusten da programan aipatzen diren laguntzen onuradunak bete behar dituzten betebeharrak ondoren egiaztatzerakoan atzerapenak ikusten dira.

Gomendioak

Jardunbide eta irizpide idatzizko eskuliburu bat prestatzea, kasuan kasuko administrazio unitatearen jarduera modua adierazten duena, Ganbara honek aurkituriko puntu ahulak biltzen dituen, bereziki, laguntzen ondorengo frogatze, jarraitze eta egiaztatzekeari dagokionez.

3.1.5. Inbertsioak.

6. kapituluan aitorturiko obligazioek 28.293 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 91koa da eta gastu guztien ehuneko 12 egiten dute.

1994aren aldean, ehuneko 10 gutxitu da, hots, 3.186 milioi.

Koadro honetan kapitulu honek 1991tik 1995era bitarte izan duen bilakaera aztertzen da.

Ekitaldia	Zenbatekoa	Indizea	Aurrekontuaren %
1991	40.744	100	18
1992	38.125	94	17
1993	34.675	85	15
1994	31.479	77	14
1995	28.293	69	12

Ikus daitekeenez, 1991tik 1995era bitarte, inbertsioetarako hornidurak ehuneko 31 gutxitu dira, hots, 12.451 pezeta arrunt. Aurrekontu osoaren gaineko eragina ere ehuneko 6 gutxitu da.

Departamentuka, Herrilanek, 15.801 milioi, inbertsioetarako gastuaren ehuneko 56 egiten du.

Hortik aparte, Hezkuntza -3.159 milioi- eta Nekazaritza -2.300 milioi- nabarmentzen dira.

Inbertsiorako gastuaren izaerari dagokionez, Herrilanek bide sarean eginiko inbertsioaz gain, -15.322 milioi-, eraikinetan -5.343 milioi-, orubetan -1.158 milioi- eta altzari eta lanabesetan -1.425- erabilia da aipatzekoa.

Inbertsioen kontratazio publikoan legezkotasun hatsapena betetzen ote den, txosten honetako 4. Eraskinera igortzen da, non afera hori zehatz-mehatz aztertzen baita.

Azkenik, 1995eko Kontu Orokorrek, gure gomendioei jarraiki, obra handien burutzeari buruz informazioa badaukatela. Hala ere, informazioak hasierako salneurria eta urtean-urtean ordaindua besterik ez ditu adierazten.

Gure gomendioa da informazio hori osatzea, aurreikuspen, burutze eta ordaintzeke dagoenari buruzko datuak bilduz, bai zenbatekoari dagokionez, bai obra portzentaiari dagokionez. Halaber, obra bati loturiko kostu kontzeptu guztiak sartu beharko liriteke.

3.1.6. Kapital transferentziak.

7. gastu kapituluak 26.341 milioi ebiten duten obligazio aitortuak dauzka. Haien betetze-maila ehuneko 92koa eta guztien ehuneko 11 egiten dute.

1994tik, 1.1992 milioitan gehitu da, hots, ehuneko 5.

Departamentuka, esanguratsuenak Gizarte Ongizate -6.728 milioi-, Nekazaritza -6.309 milioi- eta Industria -4.974 milioi-.

Helburuei dagokienez, eragile hauek dira kontutan hartzekoak (zenbatekoa milioitan):

Sektoreak	Zenbatekoa	%
Enpresa eta ente publikoak	1.104	4
Udalak eta kontzejuak	8.408	32
Enpresa pribatuak	10.102	38
Familiak eta erakundeak	6.727	26
Guztira	26.341	100

Kapitulu honetan aplikatzekoak dira transferentziei buruz kasuan-kasuan egin eta ohiko izaerakoetan adieraziriko lanen ondoriozko ondorio eta gomendioak.

3.1.7. Finantza aktiboak.

3.094 milioiko gastua du. Haien betetze-maila ehuneko 99koa eta gastu guztien ehuneko 1 egiten dute.

1994aren aldean, 1.217 milioitan gutxitu dira, alegia, ehuneko 28, gehienbat, sektore pribatuari emaniko maileguak 1.011 milioitan gutxitu direlako.

Gastuaren izaera funtsean Sektore Publikoari (2.684 milioi) eta Sektore Pribatuari (203 milioi) emaniko mailegu eta aurrerapenak dira.

Aurrekontuetako gastu hauei buruzko iruzkinak balantzeko kasuan kasuko ataletan agertzen dira.

3.1.8. Finantza pasiboak.

9. kapituluako gastuak 138 milioi egiten dute. Gastu aurrekontuko betetze-mailarik txikiena dute, ehuneko 59 bakarrik.

1994ari dagokionez, ehuneko 69 gutxitu dira, gehienbat Zorraren eta maileguen amortizazio txikiagoatik.

Materializazioari dagokionez, 19 milioi Zor Publiko Bereziaren amortizazioari dagozkio eta 119 milioi Banco de Crédito Localren maileguen amortizazioari.

Hortaz, nabarmendu behar da kapitulu honen garrantzia, zor publikaoren eskasiaren epeak iragan ahala gehituko dena.

Bestaldetik, gogoarazi behar dugu 1995ean 20.000 milioi egiten zuen zorra luzatu zela, 1994ko zorraren parte bat zenbateko berean amortizatzeko. Nafarroako Gobernuak ibili duen irizpidea, gure ustez, ez da egokia, aurrekontuaren kitapenean ez baitu erregistratu ez zor berria ez aurrekoaren amortizazioa.

D I R U S A R R E R A K

3.1.9. Zuzeneko eta zeharkako zergak.

Atal honetan zuzeneko eta zeharkako zorren izaera eta betetze-mailari buruzko datu nagusiak aztertuko ditugu, egitura honen arabera:

- Gorabehera orokorrak, non ekitaldiko aurrekontuaren betetze-maila eta azkeneko ekitaldieta-ko bilakaera aztertzen baitira.

- Kontabilitateko irizpideak, ekitaldiari aplikatzen ahal zaizkionak egiaztatzen, zordunen atalean eginiko iruzkinak (2.1.5. Eraskina) kontutan harturik.

- Zerga ikuskaritza

- Zerga figura bakoitzerako, kasuan kasuko iruzkinak eta haien betetze-mailaren ondoriozko iruzkin bereziak

Ondoren aurreko atalak garatuko ditugu.

a. Alderdi orokorrak

“Zuzeneko zergak” izeneko 1 kapituluaren aitorturiko eskubideek 101.910 milioi egiten dute, haien betetze-maila ehuneko 109koa delarik. Zerga figuren arabera, betetze-mailarik handiena duena Sozietateen gainekoa da, ehuneko 136.

1994ari dagokionez, zuzeneko zergak ehuneko 22 gehitu dira. Horrek guztira 11.482 milioi pezeta egiten du dirusarreretan. Ia-ia gehikuntza hori PFEZari eta Sozietateen gaineko Zergari dagokie osorik, 9.572 eta 8.275 milioi, hurrenez hurren.

Kapituluaren osaketari dagokionez, aitorturiko eskubideak honela sailkatzen dira portzentatetan, aurreko ekitaldiarekin alderaturik:

Zuzeneko zergak	1994	1995	Desbider.
PFEZ	79	75	-4
Sozietateen gainekoa	16	21	5
Ondarearen gainekoa	4	3	-1
Ondorengotzei gainekoa	1	1	-
Guztira	100	100	-
Aurrekontuaren %	36	39	3

Ikus daitekeenez, sozietateen gaineko zergak eragin handiagoa du, PFEZak garrantzia erlatibo galdu duelarik kapitulu honetan. Bestaldetik, aipatzekoa da zuzeneko dirusarrerek ekitaldiko dirusarrerara guztien ehuneko 39 egiten dutela eta aurreko ekitaldiaren aldean ehuneko 3 gehitu direla.

Zeharkako zergak izeneko 2 kapituluak 92.972 milioiko eskubide aitortuak dauzka. Haren betetze-maila ehuneko 118koa da. Ia zerga kontzeptu guztiek ehuneko 100 baino gehiago egiten dute, “garrabideen gaineko zergak” ezik, ehuneko 88ko betetze-maila daukanak. Betetze-mailarik handiena berezien artean (ehuneko 127) eta ondare eskualdaketen artean (ehuneko 122) da.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, kapituluko betetze-maila ehuneko 20 gehitu da, osorik 15.455 milioi gehiagoko eskubideak egiten dituenak. Zerga figuren arabera, denak ehuneko 29tik (Eskualdaketak) ehuneko 8ra (Egintza Juridikoak) bitarte gehitu dira, “garrabideak” ezki, ehuneko 10 gutxitu baita.

Portzentatetan eta aurreko ekitaldiari dagokionez, 2 kapituluko osaketa ikus dezakegu:

Zeharkako zergak	1994	1995	Desbider.
Eskualdaketen gainekoa	5	5	-
Egintza juridikoen gainekoa	6	5	-1
BEZ	79	81	2
Bereziak	7	7	-
Garraibideen gainekoa	3	2	-1
Guztira	100	100	-
Aurrekontuaren %	33	36	3

Labur bildurik, zeharkako zergengatik biltzen diren ehun pezetatik 81 BEZaren ondoriozkoak dira. Bestaldetik, zeharkako zergen eragina % 3 gehitu da aurrekontuari dagokionez.

Labur bildurik, zuzeneko eta zeharkako zergek Nafarroako Gobernuaren dirusarreraren ehuneko 75 egiten dute, hots, 194.883 milioi.

Hurrengo koadroetan dirusarrerara horiek 1991tik 1999ra bitarte izaniko bilakaera agertzen da.

a. Pezeta arruntetan

Zuzenekoak	1991	1992	1993	1994	1995	95/91 ald.
PFEZ	57.728	59.842	63.098	66.401	75.972	32
Sozietateen g.	13.471	17.045	18.794	13.612	21.887	63
Ondarearen g.	1.626	1.872	1.607	3.031	3.365	107
Ondorengotzen g.	516	443	640	387	687	33
Guztira	73.341	79.202	84.139	83.429	101.911	39

Zeharkakoak	1991	1992	1993	1994	1995	95/91 ald.
Ondare Esk. g.	3.165	3.009	3.227	3.674	4.744	50
E.J.D.	3.870	3.213	2.543	4.463	4.800	24
BEZ	50.174	54.344	47.920	61.734	74.757	49
Bereziak	2.361	3.886	(*)7.096	7.646	8.671	267
Guztira	59.570	64.452	60.786	77.517	92.972	56

b. Zenbaki indizeetan, 1991 urtea 100 oinarritzat harturik

Zuzenekoak	1991	1992	1993	1994	1995
PFEZ	100	104	109	115	132
Sozietateen g.	100	127	140	101	163
Ondarearen g.	100	115	99	186	207
Ondorengo. g.	100	86	124	75	133
Guztira	100	108	115	114	139

Zeharkakoak	1991	1992	1993	1994	1995
Ond. eskuald.	100	95	102	116	150
E.J.D.	100	83	66	115	124
BEZ	100	108	96	123	149
Bereziak	100	165	(*)301	324	367
Guztira	100	108	102	130	156

(*) 1993an lehenbizikoz garraibideen gaineko zerga ezarri zen

Labur bildurik, bost urteetan, zuzeneko eta zeharkako zergak, nominalki, ehuneko 39 eta ehuneko 56 gehitu dira, hurrenez hurren.

b. Kontabilitateko irizpideak

Zerga-dirusarrerak, orokorrean, sortzapenaren irizpidearen arabera kontabilizatzen dira, Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailean bideratzen den egunari dagokionez, ez kasuan kasuko aitortpena aurkezten den egunari dagokionez.

Hala ere, Ondorengotzak, Ondare Eskualdaketak eta Egintza Juridiko Dokumentatuak, trataera jardunbideak informatizatzen ez dituzten bitartean, kutzako irizpidearen arabera kontabilizatzen dira.

Aplikatzan den prozesu informatikoak funtsean bermatzen du:

- Tributuek zergapeturik dauzkaten apunte guztiak (aitortpenak, kitapenak, aktak...), ondoren interfaserara eskualdatzen dira, haien kopuru eta zenbatekoa egiaztatzen direlarik.

- Interfasetik Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailean igortzen da, horrek erregistratzeko. Aplikatzan den sortzapen irizpidea une horietan aitortpenetarako gauzatzen da eta Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailean aurreko kobrantzarik erregistraturik ez daukaten gainerako apunteetarako, edo kuotaren zenbatekoa aurretik eginiko ordainketarela bat ez datorrenean.

Hala ere, eginiko azterketetan ikusten ahal izan zen:

- Apunte eta tributuez zergapeturik dauden guztiak ez dira interfaserara pasatzen dagokien ekitaldian, hurrengo koadroan ikusten ahal denez (zenbatekoa milioitan)

Eskualdatzearen eguna	Zenbatekoa	%
1995ean interfaserara eskualdatuak	92.980	98
1996an interfaserara eskualdatuak	1.374	2
Eskualdatzeke (1996ko iraila)	158	—
1995ean tributuetan zergapeturiko guztiak	94.512	100

Alegia, apunteen ehuneko 2 –1.532 milioi– zergapetzen denean ez beste ekitaldi batean eskualdatzen dira interfaserara. Kitapenen kasuan, portzentaia hori ehuneko 49koa da. Hori justifikatzen da sortzapena aginduzkoa den jakinarazpenaren menpe dagoelako. Aitorpenetan, ordea, aurreko portzentaia ehuneko 33 egiten du.

- Apuntuaren jatorriaren eguna eta tributua zergapetzen den eguna ez dira guztiz bat etortzen elkarrekin

Jatorriko data	Izenbatekoa (milioitan)	%
Jatorriko data, 1995	80.250	86
Jatorriko data, 1994	12.300	13
Jatorriko data, lehenago	430	1
1995ean zergapetu eta interfasera eskualdatutako guztiak	92.980	100

Alegia, 1995ean zergapetu eta urte berean interfaserara eskualdatutako apunte guztietarik, ehuneko 14ren jatorriko data ekitaldi hori baino lehenagokoa da.

Labur bildurik, zentzuzko moduan ziur egon gaitzeko aitortpenak Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailean erregistratzen dira, baina ezin dugu bermatu aurreko kobrantzarik hartu ez deneko kasuetarako srotzen direla edo behar den edo aitortpenari dagokion epean.

Aldian-aldikoak ez diren zergei dagokienez (ondorengotza, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gainekoei dagokienez), lehen esan bezala, funtsean, kutzako irizpidearen arabera kontabilizatzen dira. Hala ere, kobrantzaren kudeaketa Dirubilketa Zerbitzuari jakinarazten zaion kasuetan sortzapena ere aplikatzen da. Hala ere, 1995ean, azkeneko irizpide horrek kontabilitaturiko dirusarreraren ehuneko 1 ere ez du egiten. Zerga horien kontrol eta jarraipena akatsez beteri-ko jardubide eta aplikazioen bidez egiten da.

Aurreko emaitzak kontutan harturik, gomendatzen dugu, aurreko ekitaldian bezala,

Trataera informatikoaren jardunbidea arintzea, aurrekontu bakoitzak bertan sorturiko tributua izateko dirusarrerak adierazteko.

Falta diren tributua informatizatzeke jardunbidea osatzea.

c. Tributua ikuskaritza

Ikuskaritza Zerbitzuak aurkezturiko informazioaren arabera, 1995ean 3.625 milioi egiten zuen zorrari ekin zitzaion. Guztira 2.412 ikuskaritza akta dira eta 504 zerga-ordaintzaile.

Hurrengo koadroan zor hori biltzen da, zerga-ka (zenbatekoa milioitan):

Zerga	Zenbatekoa
PFEZ	2.093
BEZ	498
Sozietateen gainekoa	1.028
Ondarearen gainekoa	4
Eskualdaketan gainekoa eta beste	2
Guztira	3.625

Zerga horiek adostasun aktetan agertzen dira 2.957 milioitan eta desadostasun aktetan 668 milioitan.

Adostasun aktak aldian-aldian zergapetzen dira Ikuskaritzatik. Desadostasun aktak kudeatu eta bideratzeko tributuak bidaltzen dira, normalean errekurtsioen xede baitira eta haien zergape-tzea atzeratu egiten da.

1995ean ikuskaritza akta gisa kontabilizaturiko zenbateko, jatorriko urte eta izaerari dagokionez, informazio hau da nabarmentzekoa:

- 1995ean ikuskaritza aktengatik 5.431 milioi kontabilizatu dira. Kuotak eta zehapenak 4.412 milioi egiten dute eta 1 eta 2 kapituluetan egozten dira eta korrituak 1.018 milioi eta 3 kapituluaren egozten dira.

- Zenbateko horren ehuneko 58 1995ean ekini-ko aktei dagokie, ehuneko 39 1994an eta gainera-ko aurreko ekitaldietan.

- Tributu figurari dagokionez, kuota eta zeha-penaren eta korrituen zenbatekoak, milioitan, hurrengo koadroan azaltzen dira:

Zerga	Zenbatekoa
PFEZ eta atxikipenak	2.294
BEZ	10
Sozietateen gainekoa	3.120
Ondarearen gainekoa	5
Besterik	2
Guztira	5.431

Ikus daitekeenez, ia-ia kotabilizatu den dirusa-rre guztiak PFEZari eta Sozietateen gaineko Zergari dagozkie.

Hurrengo atalean gehiago zehazten dira alder-di hauek, zerga figura bakoitzari dagokionez.

d. Zerga figura nagusiak

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Haren eskubide aitortuek 75.972 milioi egiten dute, hots, 1994an baino 9.572 milioi gehiago

(ehuneko 14).

Ekitaldiko dirusarrerak iturri hauetatik datoz, portzentaian:

	%
Lan atxikipenak	80
Kapital atxikipenak	16
Zatiketak	5
PFEZaren aitortpena	(1)
Guztira	100

Sorturiko dirusarreretatik, ehuneko 1,5, 1.01 milioi, aitortpenen azterketetatik datoz. Dirusarrera horiek modu nabarmenean gehitu dira. Izan ere, 1994an kontzeptu horregatik bakarrik 40 milioi sortu ziren. Jatorriaren arabera, azterketa horiek honetatik datoz (zenbatekoa milioitan):

	Zenbatekoa
Lan atxikipenak	(45)
Kapital atxikipenak	4
Zatiketak	37
PFEZaren aitortpena	1.105
Guztira	1.101

PFEZeko dirusarreraren ehuneko 2,5 gutxi gora behera -1.878 milioi - ikuskaritza aktetatik datoz. Portzentaia hori aurreko ekitaldikoaren antzekoa da. Zerga horien jatorria hauxe da (zenbatekoa milioitan):

	Zenbatekoa
Lan atxikipenak	94
Kapital atxikipenak	347
PFEZaren aitortpena	1.437
Guztira	1.878

Zenbateko hori dagokioen kuota eta zehape-naz dago osaturik. Aktetako korrituak -416 milioi-3. kapituluaren kontabilizatzen dira.

PZEZean kontabilizatzen diren gainerako diru-sarrerak zergadunen kitapenen ondoriozkoak dira.

Ondoren, iruzkin batzuk eginen ditugu 1994ko ekitaldiari dagokion eta 1995ean aurkeztu zen PFEZaren aitortpen erantsiari buruz -11 koadro-. Aitortpen hori 1996ko urriaren 25ean dago presta-turik, guztira 243.486 aitortpen zirelarik.

11.A. Koadroa – PFEZen aitorten gaineratuak 1992/94
(milioika pezetatan)

	1991 urtea 196311 aitorp.	1992 urtea 221175 aitorp.	92/91 aldak. %	1993 urtea 231042 aitorp.	93/92 aldak. %	1994 urtea	94/93 aldak. %
Ohiko oinarri zergagarri		445.825		478.391	7	521.025	9
Murriztapenak	(2.077)	(4.032)	94	(4.985)	24	(6.108)	23
Likidazio-oinarria, guztira	*415.313	448.086	8	480.639	7	525.401	9
K. osoa/L. oinarria %		18		19		19	
Kuota osoa, guztira	78.302	82.468	5	90.320	10	98.947	10
Kenkariak:							
Familietakoak	10.026	6.792	(32)	7.117	5	7.408	4
Orokorrak	12.487	18.732	50	19.023	2	20.253	6
Inbertsioak	2.999	3.349	12	3.882	16	4.639	20
Bestelakoak	1.377	1.426	4	1.355	(5)	1.311	(3)
Kenkariak, guztira	26.975	30.297	12	31.377	4	33.611	7
Kouta osoaren kenkarien %		37		35		34	
Kouta likidoa	54.961	56.863	3	63.662	12	69.867	10
K. likidoa/Z. Oinarria %		13		13		13	
Konturako atxikipeak	56.059	60.276	8	63.829	6	67.932	6
Ordainketa zatituak	2.989	3.136	5	3.627	16	3.816	5
Konturako ordainketa, guztira	59.048	63.412	7	67.456	6	71.748	6
Autolikidazioaren kopurua	(4.087)	(6.549)	60	(3.794)	(42)	(1.881)	(50)

* Oinarri zergagarria.

1992ko PFEZen araudiaren araberako kenkari multzokatuak.

11.B. Koadroa -1994ko PFEZen aitorten gaineratua, tarteka
(Zenbatekoa milioika pezetatan)

Oinarri zerga (milioiak)	Zenbat aitorten	%	Oinarri zerga Kopurua	%	Kuota likidoa kopurua	%
0	4.008	2	0	0	6	0
>0tik 2ra	141.243	58	161.418	31	7.418	11
2tik 5era	83.832	34	244.414	46	32.226	46
5etik 10era	11.978	5	79.896	15	16.691	24
10 baino +	2.425	1	40.694	8	13.546	19
Guztira	243.486	100	526.422	100	69.887	100

96/10/25ean lorturiko datuak

Datu hauek aztertuz gero, hona hemen azpimarratu beharrekoak:

- 1994ko aitortena Foru Ogasunaren aurkakoa da 1962 milioitan, hau da, 1993 urtean baino ehuneko 48 gutxiago.

- Oinarri zergagarrian sartzen diren kontzeptuetan, lan-errendimenduak dira hazkunderik han-

diena eduki duena –ehuneko 12– aurreko ekitaldiarekin konparatuz, eta zenbaki absolutuetan hazkundera 45.594 milioi izan da.

Kapital higikorren errendimenduak ehuneko 14 egin du behera –7.046 milioi– aurreragoko hiru aitortenetan ikusi den gorantzako joera apurtuz.

Kapital higiezinaren errendimenduek gorabehera handiak izaten dituzte azken ekitaldietan, eta 1994ko aitortenean ehuneko 27ko gutxiagotzea eduki dute –423 milioi gutxiago–.

- Oinarri zergagarrien gutxiagotzea ehuneko 23 handiagoa izan da, eta honen jatorrian hauxe dago, pentsio-planei eman zaizkien kopuruak handiagoak izan direla, pentsio-plan hauek ehuneko 24 igo direlarik, hau da, 5.678 milioi.

- Bai likidazio-oinarria eta bai kuota osoa ere ehuneko 10eko hazkundea dute aurreko aitortenearekin alderatzen badugu, eta gehikuntza hau, kuota osoaren kasuan bederen, azken urteotan izan den batez besteko hazkundearekin bat dator.

- Kenkariak, osotara, ehuneko 8ko hazkundea izan dute aurreko aitortenearekin konparatuz, eta hala ere kuota osoarekiko portzentaian puntu bat behera egin dute, ehuneko 35etik ehuneko 34ra pasatu direlarik. Une honetan 1991ko aitortenean zeuden egoera berean daude, aitorten horretan bere ehunekorik bajuenetan zeudelarik.

Kenkarien izaeraren arabera, honako hauek azpimarratuko ditugu gauzarik nabarmenenak bezala:

- Familiarengatikoen artean –orokorrean ehuneko 5 igotzen direnak, eta kuotako kenkari guztien artean ehuneko 22 egiten dutenak–, gehikuntzarik handiena ezintasunetan gertatzen da, ehuneko 23 baita. Ondorengoengatikoko kenkariak-garrantzizkoena dena–, ez du apenas aldaketarik eduki.

- Kenkari orokorretan, gehikuntzarik handiena duena da alokairuei dagokiena, ehuneko 61.

- Inbertsioarengatikoko kenkarien barruan, aldaketarik handiena, termino erabatekoetan, etxebizitzarengatikoko inbertsioari dagokiona da –605 milioi egiten duen hazkundea–.

- “Bestelakoak” sailean dagoen ehuneko 3ko gutxiagotzea, inbertsioak eta enpresari zein profesionalen enplegu-sorrerak izan duen jaitziera –ehuneko 44– ikusirik azaltzen da.

Tartekako banaketari buruz esan behar da aurreko aitortenetako egitura egonkor mantentzen dela, orokorrean, eta erdiko tarteetan multzokatzeko joera badagoela.

SOZIALATEEN GAINENKO ZERGA.

Zerga honek 21.887 milioi jotzen duten eskubiak dauzka, eta honek esan nahi du aurreko ekitaldiarekin alderatuz ehuneko 61 igo direla, hau da, 8.275 milioi kopuru absolutuetan.

Portzentailetan, ekitaldiko dirusarrerak hauetarik datoz:

	%
Kapital higiezinaren atxikipenak	20
Aitortenak eta konturako ordainketak	80
Guztira	100

Aurreko ekitaldiarekin alderatuz, aitortenen eta konturako ordainketen ehunekoak 17 puntu gora egin du.

Zerga hau dela-ta sortutako zenbatekoaren jatorriari begiratzen badiogu, honako hau azpimarratu behar dugu:

- 4.278 milioi PFEZ dirusarreretan kendu den kapital-atxikipenen ehuneko 30ari dagokio.

- Betetzearen ehuneko 4 –894 milioi– aitortenen berraztertzeak dator. Kopuru hau ehuneko 60 handiagoa da aurreko ekitaldian sortutako kopurua baino.

- Ikuskapenak dirusarrera hauen ehuneko 11 ekartzen ditu, hau da, 2.429 milioi, guztira, aurreko ekitaldian 640 milioi izan ziren bitartean.

1995eko aurrekontuari egozten zaion aitortena 1994ko ekitaldikoa da. Aitorten gaineratua –12. koadroa– 1996ko ekainaren 17an lortu da, 7.615 aitortenen gainean.

Likidazioaren zenbatekoak 15.692 milioi egiten du, eta horretatik konturako ordainketak eta atxikipenak kentzen baditugu, 13.454 milioiko zenbateko garbia gelditzen zaigu.

Kopuru honetatik, ehuneko 89 Nafarroako arautegiaren bidez tributatzuten duten enpresei dagokie, eta gainerakoa, ehuneko 11, alegia, beste hainbat arautegiren bidez –Estatukoa edo Euskal Diputazioetakoa– tributatzuten dutenei.

Nafarroako arautegiaren bidez tributatzuten duten enpresei dagokienez, eta aitorten gaineratuaren arabera, hona azpimarratuko duguna:

- Kuota osoa eta likidazio-oinarriaren arteko portzentaia ehuneko 32 da –aurrekoan baino 4 puntu gehiago–, eta honek adierazten du kargatasen hobariak dituzten enpresak gutxiago direla

- Kenkariak eta hobariak 5.748 milioi egiten dute, hau da, kuota osoaren ehuneko 22 –1993 urtean baino 3 puntu gehiago–. Inbertsioarengatikoko kenkariak gorantz egin dute nabarmen, 1993ko aitortenean 842 milioi zirelarik, 1994koan 1.826 milioi izatera pasatu baitira –hau da, kuota osoaren ehuneko 7–.

12. Koadroa – 1993ko Sozietateen Aitorpen Gaineratua
(mila pezetatan)

Kontzeptua	Nafarroako arautegia		94/93 % aldak.	Beste hainbat arautegi		94/93 % aldak.
	1993	1994		1993	1994	
Oinarri zergagarria	(4.747.651)	57.129.126	(1.303)	431.854.096	780.775.976	81
O.Z. gutxiagotzea, 12/93 Foru Legea	7.831.050	11.743.330	50			
Likidazio-oinarria	53.526.447	81.939.750	53			
Kuota osoa	15.138.574	25.845.225	71	321.019.100	315.106.349	(2)
% Likidazio Oinarria/Kuota Osoa	28	32				
Kenkariak eta hobariak:						
Kenk. zerg. bik. eta hobaria	1.028.171	2.670.027	160	60.841.720	54.984.622	(10)
Enpleg. inb. kenk. eta 12/93 F. Legea	1.922.153	3.077.615	60			
Enpleg. inb. kenk. eta beste batzuk				54.613.668	59.787.347	9
Kenkariak eta hobariak, guztira	2.950.324	5.747.642	95	115.455.388	114.771.969	(1)
% Kenkaria/Kuota osoa	19	22		36	36	
Lehenengo urteetako e. galera	38.196	14.636	(62)	482.876	398.856	(17)
Kuota likidoa	12.288.943	20.215.111	64	206.569.383	202.285.758	(2)
Tributazio Nafarroari	6.731.652	13.495.007	100	1.324.523	2.197.376	66
% Kuota likidoa/Trib. Nafarroari	55	67		1	1	
Konturako atxikipenak	5.088.830	5.113.145	0	123.962.383	141.241.191	14
Konturako ordainketak	2.169.671	1.586.689	(27)	829.296	651.672	(21)
Autolikidazioaren zenbatekoa	4.561.980	11.908.318	161	495.228	1.545.704	212

• Nafarroako arautegiaren arabera tributatzen duten enpresetatik, Nafarroari dagokion kuota kuota likidoaren ehuneko 67 da, hau da, aurrekoan baino 12 puntu gehiago.

• 12/1993 Foru Legeak ezartzen dituen enpresen inbertsoetarako zerga-pizgarriei dagokienez, ondorengo hau esan behar dugu aitorpen gaineratuari buruz:

– Oinarri zergagarria gutxiagotzeak 11.743 milioi egiten du, eta guztira 445 enpresek aplikatzen dute. 1993 urtearekin alderaturik, gutxiagotzea 3.912 milioi handiagoa da eta 92 enpresa gehiagok aplikatzen dute.

– Kuotako hobariak 6 enpresa ukitzen dituzte –1993 urtean bakar bat baino ez–, eta 125 milioi jotzen dute –1993 urtean, 18.000 pezeta.–.

– 85 enpresek aplikatzen dituzte kuotako kenkariak 1993an, 42 enpresa–, eta 76 milioi egiten dute –1993 urtean 21,6 milioi–.

Kenkari hauei aitorpen gaineratuaren ondoriozko batez-besteko kopuruak aplikatzen badizkiegu, eta beste kenkari baten babesean sartu ezin izateagatik egin beharreko doitzeak kontuan hartu gabe, zerga gastuek edo dirubilketaren gutxiagotzeak 2.500 milioi egiten dutela jotzen da.

ONDAREA.

Dirusarrerak 3.365 milioi dira, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuz gehiagotzea ehuneko 11 da, hau da, 334 milioi gehiago.

Ia sortzen diren dirusarrera guztiak zergapekoen aitorpenetatik datoz, eta ehuneko 0,12 baizik ez du bere jatorria ikuskapenaren jarduketetan.

1995 urtean aurkezturiko Ondare aitorpena 1994ko Ondare kitapenari dagokio. Aitorpen gaineratuaren gaineko datuei dagokienez –13. koadroa–, ondoan datoz horren daturik nabarmenak.

13. koadroa. 1994-95eko ondare-aitorpen gaineratua
(milioi pezetatan)

Kontzeptua	Zenbatekoa 1993	Zenbatekoa 1994	94/93 aldak. %
Oinarri zergagarria	841.584	940.944	12
Murriztapenak	-254.640	-261.138	3
Likidazio-oinarria	586.944	679.806	16
Kuota osoa	5.111	6.377	25
Sartzeko kuotaren muga	2.182	3.074	41
Sartzeko kuota	2.928	3.302	13

• Zergan gutxienerako kopuru salbuetsita bezala -20 milioi- aurreikusten diren oinarri zergagarriaren murriztapenek oinarri horren ehuneko 28 egiten dute, eta 1993ko ekitaldiarekin alderatzen badugu, bi puntu txikiagoa da.

• Kuota osoa likidazio-oinarriaren ehuneko 0,9 da. 1993an 0,87 zen.

• Zergan aurreikusten diren muga eta murriztapenekin, sartu beharreko kuotak ehuneko 52 egiten du, hau da, 1993an baino 5 puntu gutxiago.

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA.

74.757 milioiko betetzea dauka, eta honek, 1994rekin alderatuz, ehuneko 21eko gehikuntza suposatzen du, hau da, eskubideen gehikuntza 13.023 milioi da.

Zergaren iturriak banakatzen baditugu, ondoko hau ikusiko dugu:

BEZ	1994	1995	Aldak. %
Norberaren kudeaketa	43.803	54.701	25
Hitzarmenaren doitzea	17.931	20.056	12

Hau da, norberaren kudeaketako BEZean gehikuntza nabarmena gertatu da, doitzetik datorrena gutxiago hazi den bitartean -erdia, ia-.

1995eko norberaren kudeaketako dirusarreretan, ehuneko ia 100 zergadunek aurkeztutako kitapenetatik datoz, zeren eta ikuskapenak ehuneko 0,2 baizik ez baitu sortu -99 milioi-.

1995 urteari dagokion BEZaren aitortzen gaineratua 139.180 aitortzen ganean eginda dago, 1996ko ekainaren 17an.

Urteko aitortzen gaineratu hau eta ekitaldi ekonomikoa ez datoz bat, aitortzen muga-egunaren ondorengo hilean aurkezten baitira; hau honela, abenduari eta 1995eko laugarren hiruhilekoari dagozkienak 1996ko ekitaldian sortzen dira. Egitako modu hau bat dator aurreko ekitaldietan aurrera eramandakoarekin.

14. koadroa. 1994-95eko BEZaren aitortzen gaineratua
(milioi pezetatan)

Kontzeptua	Zenbatekoa 1993	Zenbatekoa 1994	94/93 aldak. %
Erregimen orokorra	1.479.236	1.706.956	15
Erregimen erraztua	2.153	2.653	23
Sortutako BEZ	1.481.415	1.709.648	15
BEZ kengarria	1.007.231	1.239.618	23
Aldiko kitapena	48.218	49.760	3
Urteko erregularizazioa	423	441	4
Guztira	48.641	50.201	3

1995eko ekitaldiko kitapenek 50.201 milioi egiten dute. Zenbateko hau, hala ere, aurreko kitapen negatiboekin konpentsatua izan daiteke. Horrela, 1995eko hasieran, konpentsatu gabeko

kopuruak 10.264 milioi ziren, ekitaldiaren bukarran, aldiz, etorkizuneko aitortzen konpentsatu beharreko zenbatekoek 12.262 milioi egiten zuten bitartean.

3.1.10. Tasak eta bestelako dirusarrerak.

Aitortutako eskubideek 9.404 milioi egiten dute, eta betetze maila ehuneko 138 da, ekitaldiko dirusarrera guztien ehuneko 4 dena.

1994 urteari dagokionez, ehuneko 16ko gehiagotzea erakusten du, hau da, 1.223 milioi gehiago, gehienbat bestelako dirusarrerak artikulutik datozenak (isunak, zehapenak, gainkarguak eta berandutzeagatiko korrituak)

Dirusarrera hauen izaera honako hau da, joku tasak -2.539 milioi-, osasun eta gizarte zerbitzuak -1.566 milioi-, ohiko zorren korrituak -1.834 milioi- eta itzulerak -609 milioi-.

Kontuhartzaitza eta Kontabilitate Zerbitzuko Ikuskapen Atalak hainbat tasaren kudeaketari buruzko txosten sail bat prestatu du, eta ondoren azalduko ditugu ondorioz garrantzizkoenak zeintzuk izan diren:

ZEHAPENAK LAN-ARAUTEGIA HAUSTEAGATIK (30 milioiko betetzea)

Dirusarrera hauen gaineko kontrola eta jarraipena arrazoizkoa da, ondoren aipatuko diren salbuespenekin:

- Borondatezko epean kobratu ez den zorra Diruzaintzera igartzeko atzerapena.
- Igaro den zorraren ez da beti zorduna identifikatzen.

DIRUSARRERAK HEZKUNTZA ZERBITZUAK EMATEAGATIK (102 milioiko betetzea)

Dirusarrera hauen barruan Hizkuntz Eskola Ofizialaren matrikulak, Musika Kontserbatorioarenak eta dantza Eskolarenak berrikusi dira.

- Aipatu Zentroek batzuetan ez dituzte behar bezala ezagutzen Hezkuntza Departamentuari eman behar zaion informazioari buruzko betebeharrak eta prozedurak. Berauek indarreko arautegiak ezartzen ditu.

- Departamentuak ez ditu zentroetako bankukontuak berraztertzen.

- Orokorrean, matrikulengatiko dirusarrerak dagokion aurrekontu-lerroari aplikatzen zaizkio, bildutako dirua Dirubilketa Kontrolako Zerbitzura pasatu eta gero.

GARRAIO ZERBITZUAREN DIRUSARRERRAK (180 milioiko betetzea)

Hemen ondoren aipatzen diren dirusarrera hauek erregistratzen dira: garraiolarien azterketaren tasak, garraiorako baimenak eta garraioengatiko zehapenak.

Atera diren ondorioz inportanteenak honako hauek dira:

- Garraiolarien azterketaren tasak:

– Ez dago aplikatu beharreko tasa zehatza, eta administrazio-zerbitzuengatiko tasa arrunta eskatzen da.

– Dirusarrerak kutxa-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira, nahiz eta Garraio Zerbitzuak ondoren kobrantzaren kontabilizazioaren jarraipenean parte ez hartu.

- Garraiorako baimenak:

– Orokorrean baimen bereziak ematea, garraio-txartelak ematea eta berauek bisatzea egoki kontrolatzen da.

– Dirusarrerak kutxa-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira, kobratzeke dauden eskubideak sortzen ez direlarik.

- Garraioengatiko zehapenak:

– Kudeaketa-zentroak egoki kudeatzen ditu bideratzen dituen zehapen-espeditenteak; alabaina, hauen hasiera bide-segurtasuneko zerbitzuetako batek bidalitako legehausteagatiko salaketa-boletina egiten duenean izaten da; hortaz, honetan sartuta dauden administrazio-unitate guztien arteko koordinazio hobetzea komeni da, zehapena iraungi ez dadin.

3.1.11. Ohiko transferentziak.

Eskubideek atal honetan 18.181 milioi egiten dute, betetze maila ehuneko 102 da, eta honek dirusarrera guztien ehuneko 7.

1994 urtearekin alderatuz, gutxiagotzea ehuneko 1 da, eta honek 258 milioi egiten du.

1994 urtean dirusarrera hauek izan duten zenbatekoa eta jatorria ondorengo koadroan biltzen dira:

Sektorea	Zenbat	%
Estatua	2.102	12
Gizarte Segurantzza	14.819	81
Enpresa pribatuak	87	1
Europako Batasuna	1.173	6
Guztira	18.181	100

Gizarte Segurantzatik datozen dirusarreren nagusigoa azpimarratzekoa da –Hitzarmen Ekonomikoaren ondorio direnak– eta Europako Batasunetik datozenen gehikuntza –1993 urtean 164 milioi baino ez ziren izan–.

Lan zehatza bezala, Europako Komunitateko transferentzien marko orokorrari buruzko txostena egin da –ohikoak eta kapital transferentziak–, eta ondorioz nagusienak ondoren laburbiltzen ditugunak dira:

- Europako fondoaren kudeaketaren ondorioz Europako Batasunarekin (EB) izaten diren harremanak, egitura iraunkorrik izan ez eta euren funtzioak etengabe aldatu dituzten zenbait unitateren bidez gauzatu da. Honen salbuespena da Nekazaritza Departamentuak kudeatu dituela Feoga fondoak.

- Aurrekontu Orokorretara iristen diren fondoak eta Foru Komunitateak (Udalak, enpresak, hirirrak,...) jasotzen dituenak bereizi behar dira. Hala, zenbatekoaren aldetik garrantzizkoena den kontu-saila Feoga-Garantia izeneko da, eta berau hiritar pribatuei zuzendurik dagoenez, ez da azaltzen Nafarroako aurrekontuetan.

- Fondorik nagusienak banatub eta hedatzeko oraingo sistemarekin, Foru Komunitatearen kudeakatea honako hau da, jarduketak egitea izendatzen diren guztiak profitatu ahal izateko, baina aukera gutxi dago finantzazio gehiago lortu ahal izateko, aipatu fondoak kide diren Estatuentzako eta eskualdentzako kuoten bidez banatzen baitira, eta kuota hauek parametro estatistikoen bidez ezartzen baitira.

- Europako arautegiak ezartzen du programak kofinantziatuak izan beharra, hots, dagozkion nazioetako administrazioek baliabiderik ekartzea (Estatua, Foru Komunitatea-Autonomia, Toki Entitateak).

- Gaur egungo funtzionamendu-sistemarekin ez dago, benetan, Europako eragiketetan gastu eta dirusarreraren arteko korrelaziorik; hala, gastuak sortzapenaren arabera erregistratzen dira, eta dirusarrerak kutxa-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira.

- Orokorrean, ez da azterketarik egiten eta ez da prozedurarik ezarri Europako baliabideekin finantzatzen diren proiektuen egiazko oihartzuna baloratzeko. Lan Zuzendaritza Nagusiko Enplegu Sustapenerako Programa barruan egiten diren prestakuntza-ekintzetarako ematen diren baliabideen ebaluazioa salbuespena da. (ikus 3.3.1. atala).

- Azkenik, ondorengo koadroan EBtik 1992 eta 1995 bitartean etorri diren dirusarrerak azaltzen dira (milioitan):

Fondoa	1992	1993	1994	1995	Guztira
FEOGA	1.202	1.943	1.566	1.602	6.313
FSE	132	203	181	1.046	1.562
FEDER	1.251	1.246	446	1.668	4.611
Beste batzuk	11	14	39	55	119
Guztira	2.596	3.406	2.232	4.371	12.609

3.1.12. Ondare Dirusarrerak.

5. kapituluaren aitortzen diren eskubideek 4.795 milioi egiten dute, betetze maila ehuneko 135 da eta honen pisu erlatiboa ehuneko 1 da.

Kontzeptuka, azpimarragarrienak gordailuen korrituak dira –4.398 milioi– eta aurrerakin zein maileguen korrituak –335 milioi–.

1994 urtearekin alderatuz, kapitulu honetan aitortu diren eskubideak 1.988 milioi gehiago dira, batez ere gordailuengatik korrituak nabarmen gehitu direlako. Gehikuntza hau azaltzeko, Oroit.idazkiak honako arrazoi hauek ematen ditu, batez ere:

- 1995 urtean fondoak ohikoen eta apartekoen arteko bereizketa ezabatu da, eta horrela fondoaren errentagarritasuna hobetu da.

- Zor publikoa 1995eko maiatzean jaulki zen, aurreko ekitaldian urrian jaulki zen bitartean.

Kontu korranteetatik lortzen den errentagarritasuna, guztira, 464 milioi da, eta emaitza hau lehen eta bigarren hiru hilabeteetan hurrenez hurren ehuneko 5,92 eta 7,38 jotzen zuten korrituak aplikatzearen ondorioa da. Korritu-tipo hauek MIBOR delakoarekin loturik daude, hiru hilabeterako MIBOR ken 2,5 puntu, zehatz esanda.

Beste alde batetik, 643 milioi jotzen zuten geroratuko zorren korrituak ez zaizkio ekitaldiari egotzi, ez eta 11 milioi jotzen zuten premiamendu bideko zatikaturiko zorraren korrituak ere; dirusarrerak hauek kapituluaren kontabilizatu den ehuneko 18 egiten dute eta 1996ko aurrekontuetan erregistratuko dira.

3.1.13. Inbertsio errealeen besterenganatzea.

Kapitulu honek 1.681 milioiko dirusarrerak dauka, eta betetze maila ehuneko 160 da.

1994 urtearekin alderatuz, kapitulu honetan aitortuak ehuneko 121 gora egin du, eta honek esan nahi du dirusarreretan 919 milioi gehiago badirela. Gehikuntza honen arrazoia da etxebizitzak egiteko lurzoru gehiago saldu dela.

3.1.14. Kapital transferentziak.

7. kapituluaren aitorturiko eskubideek 3.644 milioi egiten dute, betetze maila ehuneko 82 da eta hau dirusarrera guztien ehuneko 1 da.

1994 urtearekin alderaturik, kapitulu honetan aitortu dena 596 milioi gehiago da; gehikuntza honen arrazoia da kanpotik jaso diren transferentziak gehitu egin direla –1995ean 1.134 milioi gehiago dira–.

Ondorengo koadroan transferentzia hauek aurkezten ditugu, norik eman dituen kontuan hartuta (zenbatekoa milioitan):

Sektorea	Zenbatekoa	%
Estatua	76	2
Enpresa publikoak	250	7
Udalbatzak	109	3
Sektore pribatua	21	1
Europako Batasuna	3.208	87
Guztira	3.664	100

Aurreko zenbatekoetan Europako Batasunetik datozenak nabarmentzen dira –batez ere FEDER eta FEOGA– baita enpresa publikoetatik datozenak ere –Retevisión-ekiko hitzarmena–.

Udalbatzen barruan Gipuzkoako Foru Aldundiak Leitzarango Autobiako bidezubia finantzatzeko egin duen ekarpena sartzen da.

3.1.15. Finantza-aktiboak.

Aitorturiko eskubideek 4.240 milioi egiten dute, betetze maila ehuneko 68 da eta hau dirusarrera guztien ehuneko 2 da.

Betetze maila hain txikia izatea azaltzen da aurrekontu bateratuan sartu delako diruzaintzako gerakina, edo aurreko ekitaldietako superabita, 5.653 milioi jotzen duena eta azkenik aplikatzen ez dena.

1994 urtearekin konparatuz, dirusarrerek 76 milioi gehiago baizik ez dute egiten.

Sailka, azpimarragarrienak toki entitateek Funtzionarioen Montepioari emandako kopuruetatik eta etxebizitzarako zein industriarako egindako mailegutik datozen diru-iztulerak dira.

3.1.16. Finantza-pasiboak.

23.000 milioiko dirusarrerekin, eta ehuneko 68ko betetze mailarekin, 1995eko dirusarreren ehuneko 9 egiten dute.

33.900 milioi jotzen zituzten beharrak aurreikusten ziren arren, azkenik jaulki zen zorrak –7. jaulkipena– 23.000 milioi jo zuen.

Halarik ere, eta lehen ere esan denez, 20.000 milioi jotzen zuen zorra jaulki zen, baita ere, eta hau beste hainbeste jotzen zuen 1994ko zorra amortizatzeke erabili zen. Eragiketa honek ez du aurrekontu-islarik izan, ez gastuetan, ez dirusarretan ere.

3.2. ESTATUAREKIKO HITZARMEN EKONOMIKOAREN PROGRAMA.

Atal honetan Estatuarekiko Hitzarmenarekin (aurrerakoan, Hitzarmena) loturiko aurrekontu-lerroen betetzea aztertuko ditugu, batez ere, 1994ko txostenean aipatzen genuen metodologiarekin zein Nafarroako Gobernuaren Kontabilitate eta Kontuhartzailatza Zerbitzuko Auditoretza Atalak eginiko berrazterketarekin bat etorriz.

1990eko uztailean izenpetu zen Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikotik datozen gastu eta dirusarrerei izen bereko Programan egiten zaie aurrekontua, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari atxikia, eta 1995 urtean ondoren datozen zenbatekoak bazituen:

GASTUAK

- Ohiko transferentziak Estatuari edo Estatuaren zama orokorrentzako ekarpena, 20.313 milioi.
- Gastuak transferentziak eskuratzeagatik, 0,1 milioi

DIRUSARRERAK

- Gizarte Segurantzaren diruzaintzarentzako ohiko transferentziak 14.076 milioi.

Gure iritziz, haatik, eta 1994ko txostenean esaten genuena errepikatuz, aurkezpen hau ez da erabat osatua, uste baitugu ezen, ondoren aipatzen diren kontzeptuak, Hitzarmenaren beraren ondorio direnez, bere Programan aurkeztu beharke lirakekeela, aurrekontua prestatzen eta betetzean gardentasun handiagoa izan zedin.

Hau dela eta, Ikuskapen Atalak berak honako kontusail hauek sartzen ditu bere berrazterketatxostenean:

GASTUAK:

Insalud saneatzeko zorraren interesak, 570 milioi, Aurrekontu eta Finantza Kudeaketa Programari egotzitakoak.

DIRUSARRERAK:

- Doitzea BEZ dela-ta, 14.000 milioi, Zergen Kudeaketa izeneko programari egotziak.

• Estatuaren zergetan 80,3 milioiekin parte hartzea, Aurrekontu eta Finantza-Kudeaketa programaren barruan erregistratuak.

Ondoren kontusail guztien alderdirik interesgarrienez mintzatuko gara, erabili den kontabilitate-irizpidea kutxa-irizpidea dela aintzat hartuz.

“Insalud saneatzeko korrituak” –570 milioi–.

1991koa baino lehenagoko ekitaldietan Insaludeko aurrekontuan izan ziren gastuen desbideraketan ondorioz, eta gastu hauek aurrekontuan biltzeko beharrezkoak aurrean, akordio bat izenpetu da, beste hainbat gauzen artean Estatuak desbideraketa horiek finantzatzeko dituela –561.122 milioi egiten dutenak–, Insaludi mailegu bat emanaz. Mailegu hori eman ahal izateko, Altxor Publikoak Zor Publikoa jaulkiko du, eta korrituak Insaludeko eta Komunitate Autonomoek konpentsatzeko dituzte, elkarrekin. Horren arabera, Nafarroako ondoren ikus daitezkeen korrituak ordaindu behar dituzte urteotan (milioi pezetatan):

Ekitaldia	Sortutako korrituak
1993	231
1994	404
1995	570
1996	559
Guztira	1.764

Beraz, egotzitako kopurua 1991ko abenduaren 31 baino lehenagoko jarduerengatik ordaindu beharreko korrituen hirugarren urtekoarekin bat dator.

“Estatuarentzako ohiko transferentziak edo estatuaren zama orokorrentzako ekarpena” –21.164 milioi–. Hitzarmenaren testuaren arabera, ekarpen hauen kalkulua ondorengo eskema honen arabera egiten da:

Zama orokorrentzako ekarpenaren kalkulua 1995ean

Kontzeptua	Zenbat
1990 oinarri-urteko ekarpena	61.827
Hezkuntzaren kostua	(12.882)
a) Oinarri-urteko ekarpen zuzendua	48.945
b) 1995eko gaurkotze-indizea	1,33464297
a x b Ekarpen likidoa	65.324
Insaludeko gutxiagotzea	(39.461)
Insersoko gutxiagotzea	(4.172)
1995eko behin-behineko ekarpena	21.691

Orain, kutxa-irizpidearen arabera kontabilizatzen denez, behin-behineko ekarpen honi hainbat doitze egiten zaizkio, aurreko ekitaldietako eragiketari edo/eta likidazioei dagozkienak, hain zuzen. 1995 urtean honako hauek izan dira:

1995eko behin-behineko ekarpenaren doitzeak

Kontzeptua	Zenbatekoa
1995eko behin-behineko ekarpena	21.691
– Nafarroaren Insaludeko kreditu gehiketetan parte hartzea	(527)
Kontabilizatutakoa, guztira	21.164

Ondoren, laburki hitz egingo dugu doitze hauei buruz. Nafarroak parte hartzen du Insaludeko ohiko aurrekontuan onetsi diren kreditu-aldakuntzetan. Horretarako, Foru Komunitatearen aldeko baliabideak egokitzen dira, hasieran izendatutako ei hasierako kredituen gainean egin aipatutako aldaketek dakarten aldaketa-portzentaia. Erregularizatzeko hau Hitzarmenak ezartzen dituen bideetatik egiten da, hau da, transferentziengatik diru-sarrerengatik eta behin-behineko ekarpena gutxiagotzeengatik –horretaz dihardu lehen aipatu doitzea–.

“BEZaren doitzea” –20.056 milioi–.

Hitzarmenean aintzat hartua, bere helburua da Foru Ogasunak Nafarroako lurraldean zerbitzu emateagatik eta ondasunak emateagatik Zergaren kudeaketan lortzen den dirubilketa eta Foru Komunitatean izan den egiazko kontsumoari legokiokeen dirubilketa teorikoa doitzea. Doitze hau, lehen bosturtekoan, bi Administrazioek adostu duten prozedura baten bidez lortzen da, eta aduanetan Estatuak lortzen duen dirubilketari koefiziente batzuk aplikatuz.

Goian esandako doitzea komunitateen arteko erosketetan BEZ-ek izango duen erregularizazio berriari egokitu behar zaio.

“Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren Transferentziak” –14.812 milioi–.

Gizarte Segurantzak kuoten bidez finantzatzen den aurrekontu-zatia dela-ta ematen dituen baliabideekin bat dator.

“Estatuko zergetan parte hartzea” –92 milioi–.

Hitzarmenak arautzen du Nafarroako toki entitateek Foru Komunitateak biltzen ez dituen Estatu zergetan parte hartuko dutela.

1995 urtean ekitaldi horri dagokion behin-behineko partaidetza jaso da –87 milioi–, baita 1994ko behin betiko kitapena ere –5 milioi–.

Hitz batez, 1994ko txostenean biltzen zen azken ondorioak bere hartan dirau, hots Estatuarrekiko Hitzarmen Ekonomikoari buruzko eragiketak zailtasun handikoak dira, berez, doiketa eta erregularizazio ugari behar dute, Foru Komunitatearen informazioa ezezik, Estatukoa ere izatea eskatzen dute, eta, gure ustez, aurrekontu eta kontabilitatearen aldeko tratamendu berezia eta osoa behar lukete, jarduketa guztiak kudeaketa publikoak eskatzen dituen gardentasun, justifikazio eta argitasunarekin agertuko badira.

Halaber, Hitzarmenaren indarraldiko lehen bosturtekoa bukatzen denean bi Administrazioek hurrengo bosturtekoan aplikatuko diren magnitude eta parametroak erabaki behar dituztelakoak ere bere hartan dirau, eta parametro horien artean nabarmenduko ditugu oinarri-urtearen ekarpen berria, Nafarroak betetzen ez dituen zama orokorren egozketa-indizea eta BEZ doitzekoak.

Gure gomendioa da ahalik eta lasterren konpontzea konpontzeke dauden arazoak, Foru Komunitatearen aginpideen esparruaren baitan.

3.3. AZTERKETA ERAGILEA: ERAGINKORTASUN, ZINTZOTASUN ETA EKONOMIAREN NEURKETA.

Atal honetan egin diren eragiketak aztertu eta gero atera diren ondorioak adierazi nahi dira, baliabide publikoen kudeaketa eraginkortasun, zintzotasun era ekonomiaren hatsapenen arabera egiten ote den ebaluatzen.

Ekitaldi honetan aztertu diren programak eta jarduerak honako hauek dira:

- Enplegua sustatzeko programa (1994-1995).
- Industria jarduera sustatzeko programa (1994-1995).
- Dietak, joan-etorriak eta bidaia-gastuak (1995).

Ondoren arestian aipatu ditugun programak eta jarduerak berraztertetik atera diren ondorioak behinenak azalduko ditugu.

3.3.1. Enplegua sustatzeko programa.

Gure ustez, programaren aurkezpena eta egitura ez da osoa, ondoren ematen diren arrazoiengatik:

- Helburuak garatu nahi den jarduera egoki ordezkatzeko duten arren, ez daude zenbatuta eta ez daude aurrekontu-kredituekin harremanetan.
- Eransten diren adierazleak eza daude berariz loturik helburuekin eta administrazio-kudeaketa zenbatera mugatzen dira.

- Helburuak bete ote diren edo ez jakiteko ez da jarraipen zehatza egiten, urteko Jarduerari buruzko Oroit-idazkia prestatzen bada ere.

- Nafarroako Gobernuaren gainerako programekin gertatzen den bezala, programak ez ditu zerbitzu orokorretatik eta laguntza-zerbitzuetatik sortzen diren zeharkako kostuak biltzen.

Gomendioak:

Zerbitzuak ahalegin osagarria egin dezan programari bere helburuak eta ekintzak zenbatzeko behar dituen baliabideak emateko, helburuak noraino bete diren egiaztatzea eta programa bete-tzean gerta litezkeen desbiderapenak aztertzea.

Ganbara honek aspaldidanik esaten duenez, Nafarroako Gobernuak gogoeta egin behar du egungo programakako aurrekontu-jardunaren eta egungo arautegiaren erabilgarritasunaz, ikusteko benetan erantzuten ote dien aurrekontu-tresna bati eskatzen ahal zaizkion baldintzei, hau da, Nafarroako Parlamentuarendako zein kudeatzaile-entako tresna baliagarria ote den, beti ere kudeaketa publiko egokia aldezteko asmoarekin.

Egungo aurrekontu-arautegiari buruz proposatu dugun gogoeta-epe horren barruan, karga orokorrek banatzeko sistema sinplifikatua ezartzeko aukera kontuan har dadila, zerbitzu publikoen kostuaren determinazio arrazoizkoa egitea ahalbideratuko duena.

Aurreko iruzkinek eta Nafarroako Gobernuak langabeziaren aurka aurrera daraman jarduketa beste hainbat aurrekontu-programetan bilduta egoteak galarazi digute programa betetzean lortu den zintzotasun, eraginkortasun eta ekonomiari buruzko iritzi orokorrik ematea.

Alabaina Zerbitzuak, kanpoan kontratatutako lanaren bidez, Europako fondoekin batera finantzatu den laguntzen eraginkortasuna aztertu du, eta zenbait arlotan, Oroit-idazkiak langabeziaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen du. Azpimarratzekoak:

- Enplegurako laguntzak

- Hainbat zerbitzuek eta are Administrazioek kudeatzen dituzten enplegurako laguntza-tipologia ugari badaude. Ugaritasun honek zailagotzen ditu inplikaturiko unitate administratiboaren arteko harremanak, erantzule den kudeatzaile publikoak egin beharreko jarraipena eta kontrola, baita balizko onuradunak laguntzak ezagutzeko bera ere.

- Laguntza askoren zenbatekoak egonkor irauten du 1986 urteaz geroztik, eta honek bere egiazko operatibitateari mugak ezartzen dizkio.

– Ez da sistematikoki ebaluatzen laguntza hauek Nafarroako ekonomian duten benetako oihartzuna, ez eta bertako biztanleen bizi-baldintzen hobekuntzan duen oihartzuna ere.

- Prestakuntzarako laguntzak

– Ez da behar bezala egiaztatzen prestakuntzarako ekintza aurrez ezarritako baldintzen arabera egin ote den, eta batzuetan, ez eta benetan egin ote den ere.

– Europako Gizarte Fondoak batera finantzaturiko prestakuntzarako programen ebaluazioari buruzko azterketaren ondorioak. Batera finantzaturiko prestakuntzarako laguntzen ebaluazioa egiaztatzeko asmoz, eta, baita ere, Europako arategiak ezartzen duen baldintza bat betetzeko asmoz, hirugarrenei kontratatu zitzaizen ebaluazio azterketa bat egitea. Ondorio nagusien artean honako hauek azpimarratu behar ditugu:

a) Ez dago zuzeneko harremanik enpresen behar egiazkoen eta ikastaroen eskaintzaren artean, hasieran prestakuntzarako eskaintzak gehiago hartu baitzituen aintzat ekintza edo ikastaro bereiztu gabeak enpresa bakoitzari prestakuntza espezifiko ematea baino.

b) Ikastaroen eskaintza errepikakorra izatera iritsi daiteke.

c) Hainbat ikasle prestakuntza-ekintzan sarrazten da eskatutako gutxieneko kopurua egiteko, beste arrazoirik gabe.

d) Prestakuntza-ekintzek ez dute zehatz ezartzen zeintzuk diren lortu nahi diren helburu operatiboak, eta horrek bereziki zailagotzen du emaitza praktikoen ebaluazioa.

Gomendioak:

Zerbitzuek egin dezatela era koordinatuan oroit-idazki edo txosten bat, Nafarroako Gobernuak langabeziaren aurka borrokatzeko dituen programa guztien eraginkortasun eta emaitzei buruzko ikuspegi orokorra emango duena.

Enplegurako laguntzen berraztertzea, ikusi ahal izateko ea eraginkorrak eta egokiak ote diren, baita zenbatekoan gutxiagotzea litekeena ote den ere, kudeaketa errazteko eta balizko onuradunari haien gaineko informazioa errazteko.

Laguntza finantzieroen zenbatekoa gaurkotzea egoki ote den aztertzea.

Jardunbide-multzo bat taxutu eta sistematikoki aplikatzea, baieztatu ahal izateko lortu nahi ziren helburuak lortzeko baliagarria izan dela laguntza.

Administrazioak berak edo hirugarrenek azterketak era ebaluazioak sistematikoki egitea, programako laguntzak aplikatzearekin gizartean lortu diren benetako emaitzak nolakoak izan diren aztertzeko.

3.3.2. Industria jarduera sustatzeko programa.

Gure ustez, programaren aurkezpena eta egitura ez da osoa, ondoren esaten diren hauengatik:

- Helburuak garatu beharreko jardueraren ordezkagarri badira ere, berau oso modu orokorrean baino ez dute definitzen, ez daude zenbatuta, ez eta aurrekontu-kredituekiko harremanean ere.

- Ez da helburuak noraino bete diren jakiteko baliagarria litzatekeen adierazle-zerrendarik gaineratzen.

- Helburuen betetzearen jarraipen espezifiko ez da egiten, zatikako Oroit-idazkia prestatzen bada ere. Oroit-idazkiak “inbertsioa eta enplegua sustatzeko” proiektuarekin loturiko jarduerak biltzen ditu bakarrik.

- Nafarroako Gobernuak aplikatzen duen gastua egoteko eta aurrekontuak prestatzeko sistemaren arabera, zerga mailako laguntzak zergak kudeatzeko programetan erregistratzen dira.

- Fiskalizatu den programa honetan ez dago jasoa laguntza-zerbitzuetatik eta zerbitzu orokorretatik datozen zeharkako kostuak, programa honetan bereziki handiak ez zirela izango egia bada ere.

Zati honetan sano egokiak dira aurreko programari buruz egin ditugun gomendioak, horietara jotzen dugu.

Aurreko iruzkinek eta programa betetzean emandako laguntzek zenbateko kostu osoa jotzen duten ez jakiteak eragozten digute programa betetzean erdietsi den eraginkortasun, zintzotasun eta ekonomia-mailari buruzko iritzia ematea.

Alabaina “Inbertsio eta enplegurako sustapena” proiektuaren Oroit-idazkiak hainbat informazio interesgarri ematen du azterketarako. Azpimarratzekoak:

- Departamentuak kudeatzen dituen laguntzen artean tipologia zabala da. Zabaltasun honen ondorioz gerta liteke kudeatzaile publiko erantzuleak egin beharreko kontrola eta jarraipena zailagoa izatea, eta balizko onuraduna dauden guztiak ezagutzera ez iristea.

- Orokorrean ez da egiaztatzen laguntzak aurreikusitako helburuak erdiesteko lagungarri izaten ari diren edo ez.

- Aztertutako aldian (1992-1995) 1.525 lanpostu diruz lagundu dira, batez ere automozio-industrietan –ehuneko 50– eta Iruñeko zein Tuterako aldean –ehuneko 78–.

- Inbertsiorako laguntzei dagokienez, eginarazi den inbertsioak 87.000 milioi jo du, eta enpleguan gertatzen zen bezala, automozioan biltzen da –ehuneko 50–, Iruñeko eta Tuterako aldeetan –ehuneko 84–.

- 1994 urtean bi baremo ezberdin erabili ziren, espedienteen sarrera-egunaren arabera, eta prozesu guztian azpimarratu beharrekoa honako hau da:

- 1994ko ekitaldiari egozten zaion gastuaren ehuneko 15 baremo horietan ezarritako irizpide orokor eta osagarrien bidez bideratu da; ehuneko 10, arautegi espezifikoa bidez; gainerako ehunekoan, baremoz kanpoko irizpideen arabera edo inbertsioaren garrantzia sozioekonomikoa aintzat hartuz.

- Aplikatzen den baremo aldaketarekin, Iruñeritik kanpo dauden eta enplegu-maila handiak dituzten enpresek egindako inbertsioak bultzatzen dira gehiago, enpresa berrientzako finantzazio berekia eta ekipo-ondasunetako inbertsioak saritzen direla, eta esistitzen diren enpresetako inbertsioen handiagotzea bereziki kontuan hartzen dela.

1996ko apirilean baremo berri bat onartu da, enplegu iraunkorraren eta lurraldeko industrien orekaren alde egin nahi duena.

- Laguntzen zerga-kostua. Azpimarratzekoak:

- P.F.E.Z. 1993 eta 1994ko aitortpenek –1994 eta 1995eko ekitaldietan aurkeztuak, hurrenez hurren–, 394 milioi jotzen duten kenkariak eskaintzen dituzte inbertsio eta enpleguarengatik kuantan, eta horietatik 338 inbertsioari dagozkio, 56 enpleguari dagozkion bitartean. Beste alde batek, eta azken aitortpenaren datuen arabera –1994–, gehieneko 5 urteko epean 452 milioi aplikatzeko geldituko lirake.

- Sozietateen gaineko Zerga. Kuotako kenkariak 5.044 milioi egiten dute 1993 eta 1994an, 1994ko aitortpenaren ehuneko 156 gehiagotu direlarik lehenagoko aitortpenarekin alderaturik.

- Inbertsioarengatik kenkaria mantendu egiten da PFEZn eta nabarmen egiten du gora sozietateen gaineko zergan; bitartean, enpleguarengatik kenkariak nabarmen egiten du behera.

Gomendioak:

Testu Birbildu bat idaztea egoki eta komenigarria ote den aztertzea, bai laguntzak eta baita berauek erregulatzen dituzten arauak ere eguneratu, taldekatu, kendu –hala badagokio– eta errazteko.

Laguntzak erdietsi nahi ziren helburuak lortzeko balio izan duela egiaztatzea ahalezko egingo duten prozedurak tinkotzea.

Laguntzen gaineko kontrola hobetzeko neurri-multzto honen barruan, bai Nafarroako Gobernuaren Kontuhartzailtzako Ikuskapen Sekzioak eta bai kanpoko profesionalak ere paper garrantzizkoa joka lezakete.

Zerbitzuek era koordinatuan oroit-idazki edo txosten bat egin dezaten, programaren eraginkortasunaren eta emaitzen ikuspegi osoa emango duena.

Azterketak edo ebaluazioak sistematizatzea, Nafarroako ekonomian laguntzak aplikatzearen ondorioz lortu diren egiazko emaitzak aztertu ahal izateko, eraginkorrak ote diren, unean uneko beharrei egokitzen zaizkien jakin ahal izateko.

Inbertsio eta enplegurako laguntzen aukeraketan aplikatzen diren baremoen egungo zailtasun teknikoa analizatzea. Honi gagozkiola, aztertu beharrekoa da proiektu handiak eta proiektu txikiak bereiztea komenigarria ote den, edo eta enpresari bakar batek aurkezten duena bereiztea egokia ote den.

Nafarroako Industria Plana prestatzea egokia ote den aztertzea. Planak Foru Komunitatean aplikatu beharreko industria politikaren taxuketa eta estrategia ezartzeko erreferentzia-eremua izateko balio lezake.

3.3.3. Nafarroako Gobernuaren dieta, joan-etorri eta bidai gastuak.

Egindako lanetik eta ekintza ondoretarako hurrengo gomendioak azpimarratuko ditugu:

Dietei buruzko erregelamendu berria egin dadila, arauak eguneratu eta Nafarroako Gobernuko departamentu eta zerbitzuen berezitasunak kontuan hartzeko.

Aldian aldiko kontuhartzailtza-txostenak egin beharra, bidai gastuei buruz, ezarritako arautegi eta prozedurari lotzen ote zaizkion ikusteko.

Azter dadila balizko gastu bilketa bat negoziatuz bidai gastuarengatik kostuetan egin daitekeen murrizketa, zerbitzuaren kalitatea eta arintasuna deustan galarazi gabe, urteko faktura gutxitzea lor daitekeelako.

4. GEHIGARRIA. KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AZTERKETA BEREZIA.

Arlo honetan egindako lana hurrengo gai hauetan gauzatu da:

- Kontratazio Administratiboko Batzordeak egindako Urteko Oroit-Idazkiaren zein Batzordeari berari departamentuek igorritako kontratuetatik ateratako datu eta ondorioen analisisa.

- Ganbara honen Jarduketa Planaren arabera, ekitaldi honetako lan berezia hauxe izan da: departamentu eta erakunde autonomo orori eskatzea 1994ko uztaila eta 1996ko martxoaren bitartean bukatu diren obrei buruzko informazioa, obrak 50 milioi baino gehiago egiten baldin bazuen. 1992ko Kontuei buruzko txostenean hasi eta iruzkindutakoaren jarraipena da.

- Gaiari buruzko txosten eta lanak, Sakanako autobari buruzkoa bereziki.

Hona hemen, lortutako ondorio nagusiak:

4.1. KONTRATAZIO BATZORDEAREN OROIT-IDAIZKIA ETA DEPARTAMENTUEK HORRI IGORRITAKO DATUAK.

Kontratazio Administratiboko Batzordeak igorri dituen Urteko Oroit-Idazkitik eta datuen fitxategi informatikotik datu eta ondorio multzoa atera ditugu eta horien artean hurrengoak azpimarratuko ditugu:

1. Departamentuek Batzordera informazioa igortzeari buruz, azpimarratzen dugu:

- Departamentuek oro har atzerapen handiaz igortzen dute informazioa.

- Ia ez da informazioarik igortzen kontratuen aldaketei buruz.

Gorabehera hauek mugatzen edo eta eragozten dute Batzordeari eratzkitako eginkizunen betetzea nahiz Foru Komunitateko Administrazio-ko kontratuen errealitateari buruzko benetako informazioa izatea.

Hortaz, eta aurreko Txostenetan bezala,

Gure gomendioa da Nafarroako Gobernuko departamentuek Kontratazio Administratiboko Batzordearekin dituzten betebeharrak bete ditzaten; bereziki, ezarritako epeen barruan egitea igorpena eta kontratu guztiek izandako aldaketa guztien berri ematea.

Bestetik, Batzordearen jarduketak, oro har eta Ganbara honek behin eta berriro azaldu duen bezala, Kontratuen Erregistro hau besterik ez du egiten eta ez ditu osoki betetzen indarrean den legeriak ezartzen dizkion eginkizunak.

Gure gomendioa da Batzordea giza baliabideez, tresnez eta eskumenez hornitzea, bere eragin-kortasuna hobetu eta Legeak agindutakoo eginkizunak bete ahal izateko.

Ekitaldi honetako oroit –idazkian agertzen den berrikuntza dugu enpresa publikoek 1995ean egin dituzten kontratuen zerrenda, funtzio publikoak betetzen dituzten tresna-sozietateenak baino ez badira ere. Beraz, kanpoan geratu dira industrian edo merkataritzan soilik aritzen direnak

2. Araudi erregulatzailaren ikuspegitik Batzordeak ohartarazi du Kontratuei buruzko Estatuko legea indarrean sartzeak “kontratu-prozedura berriak ezarri ditu, baina bai indarra hartzea urtearen erdialdera gertatzeak, bai foru arauetik gatazketan zein arauk duen lehentasuna erabakitzerakoan dauden interpretazio ezberdinek, Kontratuei buruzko Foru Legeak dakarren prozedimentu-sailkapenari eustea ekarri dute, egokiago zelakoan.”

Batzordeak, 1996an, jarraibideak eman ditu tarteko aldi honetan ezartzeko, kontratuei buruzko foru arautegiaren eta estatukoaren arteko gatazkaren ondoriozko segurtasun eza konpontzen ez den bitartean.

3. 1995ean guztira 1.136 kontratu igorri dira Batzordera eta horien bidez esleituriko zenbatekoak 16.128 milioi egiten du. 1994koarekin alderatuz gero, esleitutako kopurua ehuneko 23 jaitsi da, kontratuen kopurua ehuneko 17 jaitsi den bitartean.

Beste ekitalditan buruturiko jarduerarekin alderatuz, hurrengo koadroan 1991tik esleituriko zenbatekoen bilakaera azaltzen da, zenbaki indizetan emana, urte hori oinarritzko ekitalditzat edo 100 gisa hartu delarik.

Ekitaldia	Zenbatekoa	Zenbaki indizea
1991	30.594	100
1992	12.466	41
1993	23.030	75
1994	21.044	69
1995	16.128	53

Hau da, 1991tik esleipena ehuneko 47 jaitsi da.

4. 1944an egindako kontratuen xedea hurrengo koadro honek islatzen du:

Kontratura	Zenbatekoa			
	Zenb.	%	(milioitan)	%
Obrak	261	23	10.894	68
Hornidura	501	44	2.752	20

Laguntza teknikoa	345	30	2.384	12
Bestelakoak	29	3	116	-
Guztira	1.136	100%	16.128	%100

Datu hauetan aipagarria da hornidura kontratua izatea Administrazioak gehien erabiltzen duena –ehuneko 44–, kuantitatiboki obretakoak esleituriko zenbateko osoaren ehuneko 68a egiten badu ere.

5. Esleipen erari dagokionez, 1995eko kontratuak hurrengo koadro honen arabera burutu dira:

Esleipena	Zenb.		Zenbatekoa	
	Zenb.	%	(milioitan)	%
Enkantea	55	5	977	6
Lehiaketa	567	50	12.631	78
Zu. esleip.	514	45	2.519	16
Guztira	1.136	100	16.128	100

Ondorioz, lehiaketa da Administrazioak gehie erabiltzen duen bidea, esleitu kopuruaren hiru laurden hartzen duena.

Zuzeneko esleipenari gagozkiolarik, horra portzentaia kopuru-tarteka:

Kontratu mota	Zuz. esl. %	Kop. tartea
Obrak	91	25 milioira arte
Hornidura	80	5 milioira arte
Laguntza	87	5 milioira arte
Guztira	1.136 100	16.128 100

Hurrengo koadroan esleipen eraren arabera 1991tik egindako kontratuen kopuruaren bilakaera azalduko dugu, guztizkoaren gaineko ehunekotan emanda:

Ekitaldia	Enkantea	Lehiaketa	Zuz. esleip.
1991	1	8	91
1992	0,5	15	84,5
1993	0,3	21	78,3
1994	2	33	65
1995	5	50	45

Ikus daitekeenez, 1995ean lehenbiziko aldiz apurtzen da zuzeneko esleipenaren nagusitasuna, Administrazioaren esleipen sistema gisa, horren orde lehiaketa jarri delarik. Enkanteari

bagagozkio, kontratu gehiago izan bada ere, kopurua ez da gehitu –1994an, 1.530 milioi. 1995ean, 977 milioi–.

6. Nafarroako Gobernuko departamentuei dagokionez, 1995ean hurrengo alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Herrilan Departamentuak esleituriko zenbateko handiena biltzen du, obra kontratuetan, kontratuen kopururik handiena Hezkuntzari dagokion arren.

- Hornidura eta laguntza teknikoari buruzkoe-tan, Osasun Departamentua eta Lurraldearen Antolamendukoa dira jarduketarik gehien dituzte-nak horretariko bakoitzean.

- Enkanteari dagokionez, gehiago erabiltzen da Herrilan Departamentuan –1994an inoiz ez zuelarik erabili–. Azpimarratu, baita ere, Osasun departamentuak ez duela erabiltzen.

- Lehiaketa batik bat Osasun Departamentuan erabiltzen da –guztizkoaren ehuneko 49–, baina kuantitatiboki esleituriko zenbatekorik handiena Herrilaneakoari dagokio –guztizkoaren ehuneko 45–.

- Esleipen zuzena kopuru eta zenbatekoei dagokionez oro har Hezkuntza eta Osasun Departamentuetan erabiltzen da. Departamentuez ari bagara, ordea, Industriak eta Gizarte Ongizateak erabiltzen dute gehien, guztizkoaren ehuneko 80 eta 79, hurrenez hurren.

7. Batzordeak dituen datuen arabera ezin dugu aurrekontuan sartutakoa, esleitutakoa eta benetan burututakoaren arteko desbideraketei buruzko azterketarik egin, lehenago esan bezala, departamentuek ez baitzikiote Batzordeari igortzen betetzeari izandako inguruabarrak.

Hala ere, aurreko txostenetan Ganbara honek egindako analisiari jarraituz, obra kontratuak esleitzerakoan izandako beherakadeen gaineko azterketa egin da, eta horien emaitzak hurrengo koadro honetan eskaintzen dira:

Beherakadaren ehunekoa	Kontratu kopurua
0	42
0-10	79
10-20	55
20-30	38
30-40	37
40-50	7
Guztira	258(*)

(*) Hiru obra-kontratu kanpoan utzi dira, gai honi buruzko informazioa ondo ez zegoelako.

Laburbilduz, %24ko batez-besteko beherakada ikusten da –1994an %21 izan zen, hau da 3 puntu gutxiago–, nabarmenduz kontratuen %17an beherakada hori %30 baino handiagoa izan zela.

Hurrengo koadroan alderatzen dira 1994an eta 1995ean egindako kontratueta izandako beherakada portzentaiak.

Beherakadaren %	Kontratu %	
	1994	1995
0	15	16
0-20	53	52
20-40	27	29
40tik gora	5	3
Guztira	100	100

Hau da, halako egonkortasun bat ikusten da bi ekitaldiko datuak alderatuz gero.

4.2. 1996KO MARTXORA ARTE BUKATU DIREN OBRAK, 50 MILIOTIK GOITIKOAK.

Departamentu eta erakunde autonomoei eskatu zitzaizkien 1994ko uztaila eta 1996ko martxoa bitartean bukatu diren obrei buruzko informazioa, obrak 50 milioi baino gehiago egiten baldin bazuen. Eskatutako informazioak, funtsean, hurrengoak hartuko zituen: lizitazio kopuruak, obraren esleipena eta likidazioa eta bukatzeko eguna.

Jasotako informazioaren arabera ikusi ahal izan ditugun emaitzak ondoren paratuko ditugu.

1. 102 obra bukatu dira, guztira, aztertu den aldian. Hona banaketa, departamentuka eta esleipen sistemak:

Zentroa	Zenbat Obra	Esleipen sistema		
		L	E	Z
Ekonomia	1	1	–	–
Hezkuntza	16	13	–	3
Osasuna	1	1	–	–
Gizarte Ongizatea	1	–	1	–
Herrilanak	68	68	–	–
Nekazaritza	4	4	–	–
Industri	4	–	4	–
O-NOZ	7	7	–	–
Guztira	102	94	5	3

L: Lehiaketa

E: Enkantea

Z: Zuzeneko esleipena

2. Lizitazioaren eta esleipenaren kopuruak alderatuz gero, beherakadaren batez besteko ehunekoa 23 dela ikus daiteke. Horra zentroko banaketa:

Zentroa	Beherak. % esleip./lizit.
Ekonomia	23
Hezkuntza	10
Osasuna	17
Gizarte Ongizatea	22
Herrilanak	24
Nekazaritza	20
Industri	35
O-NOZ	17
Batez-bestekoa	23

Hau da, zentro guztietan ageri da lizitazio kopuruarekiko beherakada nabarmena, muturrak Hezkuntzan, ehuneko 10, eta Industrian, ehuneko 35, direlarik. Azpimarratzekoa da, halaber, Herrilantetan izandako beherakada, ehuneko 24, eta O-NOZeko ehuneko txikia, nolabait, 17a, alegia.

3. Esleipenaren kopurua likidazioarenarekin alderatzen badugu, batez-besteko gehikuntza ehuneko 19 da, 1992an gertatu zena baino txikiagoa, hala ere, ehuneko 24 izan baitzen.

Ondoren jarriko dugu alderaketa hori obra eta departamentuka, 1992an izandakoarekin konparatzeko.

Desbideraketa	Ehunekoa	
	1992	1995
Negatiboa	–	7
Gehikuntzarik gabe	15	5
%0-10	33	30
%10,01-20	29	23
%20,01-30	13	12
%30etik goiti	10	23
	100	100

Hau da, 1995ean nabarmen igo da ehuneko 30 baino gehiagoko aldea duten obraren kopurua, gehikuntzarik gabeko edo gehikuntza negatiboko obraren portzentaia jaitsi egin den bitartean. Ez zen halakorik gertatu 1992an.

Zentroa	Ehunekoak	
	1992	1995
Ekonomia	–	32
Hezkuntza	17	23
Osasuna	41	11
Gizarte Ongizatea	–	12
Herrilanak	30	19
Nekazaritza	2	8
Industri	7	15
O-NOZ	9	9
Toki Administrazioa	13	–
Lehendakaritza	6	–
Evena	0,5	–
Batez-bestekoa	24	19

Aurreko alderaketatik azpimarratuko dugu Osasun eta Herrilan Departamentuetan antzematen den gehikuntzaren portzentaiaren beherakada.

4. Hurrengo koadroan alderatzen dira, esleipen sistemaren arabera, lizitazio-, esleipen- eta kitapen-aurrekontuen arteko loturak dakarren aldaketa portzentaiak.

Esleipena	zenbat obra	% esleip./lizit.	% kitap./esleip.
Lehiaketa	94	(23)	18
Zuzenekoak	3	0	54
Enkantea	5	(33)	(4)
Guztira	102	(23)	19

Hau da, lizitazioaren beherakadari gagozkiolarik, enkantearen ehuneko nabarmenak da –ehuneko 33–; kitapen eta esleipen aurrekontuak alderatuz gero, zuzeneko prozeduraren ehuneko 54ko gehikuntza markatu eta enkantean izandako beherakada. Lehiaketak batez-bestekoaren inguruko portzentaiari eusten die.

5. Hurrengo koadroak erakusten du aztertutako obretan gertatu den bukatzeko aurreikusita zegoen egunaren eta benetan bukatzeko egunaren arteko aldea.

Aldea, egunetan	Obra kop.
Lehenago	10
Alderik ez	41
– 30 egun	7
30-90 egn	22
+90 egn	21
Daturik ez	1
Guztira	102

Hau da, obren ehuneko 50, gutxi gorabehera, bukatzen dira edo lehenago edo aurreikusitakoaren arabera; hala ere nabarmenak da obren ehuneko 21ean atzerapena gutxienez 90 egun izatea. Hori guztia ahaztu gabe epea dela hautatzeko prozeduretan gehien baloratzen den baldintzetako bat.

4.3. SAKANAKO AUTOBIDEA.

Irurtzun-Altsasu autobia – Sakanako autobiar buruzko fiskalizazio txostenetik, hurrengo ondorioak azpimarratuko ditugu, kontratazioaren azterketari dagokionez:

- Proiektuak (65 milioi). Proiektuak zuzeneko kontratazioen bidez, publikitatearekin, esleitu ziren, lizitazioengandik harturiko proposamenak baloratzeko txosten teknikoekin bat. Hala ere, esan behar dugu:

Normalean Administrazioak ez du justifikatzen kontraturiko proiektuak burutzeko adina baliabide ez dagoela.

Proiektuen zaintze eta kontrola gehitu beharra, haien kalitatea zaintzeko, eta proiektuetan esleipen-hartzaileari egotz dakizkiokeen akats, atzerapen edo ustekabekoak daudenean, ez dira behar diren kalteordainak eskatzen.

- Obrak (10.368 milioi). Horri buruz:

Esleipenei buruz: Lehiaketa izatea esleitzeko ohiko modua. Baldintza administratibo eta partikularren orrian kontratistak hautatzeko irizpideak aipatzen dira, baina ez da adierazten zer garrantzi erlatibo ematen zaion irizpide bakoitzari. Ondorioz, baldintza administratibo eta partikularren orrietan hautatzeko irizpideak alde aurretik baloratzen ez direnez, enpresek ez dute erreferentzia baliagarriak eskaintzak baloratu behar diren puntuei buruz. Funtsean, baremoak “a posteriori” ezartzen direnez, lizitazioen eskaintzak ezagutu eta gero, hautatzeko prozeduraren objektibotasuna muga daiteke.

Horrekin bat, esleipena txosten teknikoaren aurka edo halakorik gabe egiteak kontratistak hautatzeko prozedurak nahibezalakotasun handia erakusten du Administrazioaren aldetik kontratu horien esleipenean.

Aldaketei dagokionez, ez dira beti behar bezala bideratzen eta normalean aldaketa horiekin batera ez doa fidantzaren birdoitzea. Gainera, kasu batean ez ziren errespetatu proiektuan ezarritako salneurriak, aldaketaren ondoriozko aurrekia murriztu egin zelarik.

• Laguntza teknikoa (241 milioi). Aurreko lerroaldeetan adierazi ditugun akats berak dituzte laguntza teknikoko kontratuak. Bereziki, atal honetan, espedientean lizitatzailerek aurkezturiko agiriak ez direla agertzen ikusten dugu. Horrek eragozten digu a posteriori esleitze irizpideak baloratzea. Azkenik, laguntza teknikoari dagokionez, azaldu nahi dugu zuzendaritza teknikoaren eta obren kalitatearen kontrolaren eginkizunak gero eta gehiago pribatizatzen ari direla. Horrek gutxitu lezake administrazioak obren burutzearen gainean izan beharko lukeen kontrol-maila.

5. GEHIGARRIA. ERAKUNDE AUTONOMOAK.

Txosten honen I. atalean iruzkindutakoarekin bat, Foru Komunitateko Administrazioak, 1995ean, izaera administratiboko hurrengo Erakunde Autonomoak ditu (aurrerantzean EA):

- Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI)
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ)
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI)
- Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI)
- Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI)
- Nafarroako Mahastilan eta Enologi Zentroa (Evena)
- Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI), 1995ean sortua

Erakunde autonomo hauen gastu eta diru sarrerei dagozkien aurrekontu lerroak Nafarroako Gobernuaren aurrekontu betetzean bertan sartu dira.

1995ean eta gure gomendioei jarraiki, Gobernuak Kontu Orokorretan sartu ditu aurreko EAen banakako aurrekontu likidazioa, Nafarroako Emakumearen Institutuaren ezik.

1994an hasitako ildoari ekinez, ondoren jarri dugu 1995eko ekitaldiko aurrekontuaren betetzea-ri buruzko azterketa laburra.

5.1. 1995EKO AURREKONTUAREN BETETZE MAILA.

Azpimarragarriak:

– 1995ean, EAen gastu eta dirusarrera guztiak hurrengo koadroan islatu dira (milioitan):

EA	Gastuak	Dirusarrerak	Finantza beharrak
NAPI	352	28	(324)
O-NOZ	56.399	1.114	(55.285)
NLOI	425	–	(425)
EVENA	115	9	(106)
NGOI	12.100	834	(11.266)
NKGI	1.255	144	(1.111)
NEI	90	7	(83)
Guztira	70.736	2.136	(68.600)

1995an EAen gastuak guztira 70.736 milioi jotzen dute eta horrek Nafarroako Gobernuaren gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 29 egiten du. Erakundeka, O-NOZ eta NGOI nabarmentzen dira, horiek gastuen %97 biltzen baitute.

Dirusarrerek 2.136 milioi jotzen dute, hau da, Nafarroako Gobernuaren dirusarrera guztien %1. Erakundeka, O-NOZek eta NGOIk ehuneko 91 biltzen dute.

Gastuak dirusarreraren bidez ordaintzeko gaitasun maila batez-beste ehuneko 3 da.

EAen 1995eko finantziazio-beharrizanak guztira 68.600 milioi jotzen du, eta O-NOZek horren %81 eta NGOIk %16 eskuratzen dute.

• EAek egindako gastuaren izaera eta Nafarroako Gobernuaren kapitulu osoan duen garrantzia hurrengo koadro honetan azaltzen da:

Gastua	Zenbatekoa	%	Naf. Gob. Aurrekont. Kapitulu. %
Langileria	34.500	49	47
Ohiko ondasunak	13.942	20	66
Ohiko transf.	20.026	28	25
Inbertsioak	2.078	3	7
Kapital transf.	190	–	1
Guztira	70.736	100	29

EAen gastuen %97 ohikoak dira. Kapital gastuak ehuneko 3a dira, eta funtsean inbertsioei dagozkie.

Gobernuaren aurrekontu osoaren kapituluaren gainean duten garrantzi erlatiboaren arloan langileria eta ohiko ondasun eta zerbitzukoak nabarmentzen dira, kapituluotan gastatu denaren erdia inguru biltzen baitute.

• Dirusarrerei buruz, hurrengo koadroan islatzen da horien banaketa kapituluak (milioitan):

Dirusarrerak	Zenbatekoa	%	Naf. Gob. Aurrekont. Kapitulu. %
Tasak eta besteak	1.643	77	17
Ohiko transf.	472	22	3
Ondarekoak	2	–	–
Kapital transf.	19	1	1
Guztira	2.136	100	1

Antzematen da ohiko sarreren ia erabateko nagusitasuna, kapitalekoek ehuneko 1 eskas bes-

terik ez baitute egiten.

Aurrekontu osoaren gainean pisu espezifiko piska bat duten kapitulu bakarrak tasak eta ohiko transferentziak dira, dagozkien kapituluaren gainean %17 eta %3 egiten baitute.

5.2. 1994-1995 AURREKONTUAK ALDERATZEA.

15. koadroan alderatzen da EAen 1994ko eta 1995eko aurrekontu-kitapena. Aztertu ondoren azpimarratuko dugu:

15. koadroa. Erakunde autonomoak 1994-95 alderaketa

EA	GASTUAK			DIRUSARRERAK		
	1994	1995	%	1994	1995	%
NAPI	309	352	14	–	28	–
O-NOZ	54.906	56.399	3	1.060	1.114	5
NLOI	435	425	(2)	–	–	–
EVENA	146	115	(21)	18	9	(50)
NGOI	11.206	12.100	8	1.134	834	(26)
NKGI	1.279	1.255	(2)	202	144	(29)
NEI	–	90	–	–	7	–
GUZTIRA	68.281	70.736	4%	2.414	2.136	(12)

• EAen gastu guztien halako egonkortasun bat ikusten da, 1994arekiko gehikuntza ehuneko 4 baita: hala ere, azpimarratu O-NOZ ehuneko 3 gehitu dela eta NKGI ehuneko 8.

Gastuaren izaerari bagagozkio, hazkunderik handiena duen kapituluaren ohiko transferentzia da: 1.500 milioiko gehikuntza, gutxi gorabehera.

• Dirusarrerei dagokienez, jaitziera nabarmena ageri da osotasunari buruzkoan –ehuneko 12a– eta EA bakoitzean, O-NOZ salbuespena bada ere, ehuneko 5 hazi delako.

Izaerari bagagozkio, ohiko transferentzien kapituluaren da gehien murriztu dena –278 mlioi–.

• Finantza beharrianak ehuneko 4 gehitu dira, 2.733 milioiko gehikuntza, beraz. EAka, O-NOZek 1.439 milioi gehitu du eta NKGIk 1.194 milioi.

Ondorio gisa, 1994ko Kontuei buruzko txostenaren genioen ildotik, aurreko zifren garrantzi kuantitatiboak gogoeta egiteko aldia irekitzea eskatzen du, honako puntu hauei buruz:

a) Zenbait zerbitzu erakunde autonomoen bitartez emateari buruz, batik bat oinarritzko alorre-

tan (langileak, kontratazioa) behar duten autonomia ez dutenean eta erabilitako baliabideak beti ere bereziki esanguratsuak ez direnean.

b) Euren gastuak etenik gabe gehitzeak gastuaren arrazionaltasuna lortzeko politikak diseinatu eta ezartzera behartzen du, erdietsi nahi diren gizarte eta ekonomi helburuak eta Foru Ogasunaren finantza egoera kontuan hartuz.

6. GEHIGARRIA. ZUZENBIDE PUBLIKOKO ENTEAK.

Foru Komunitateko sektore publikoan dauden administrazio enteak honako hauek dira:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa.
- Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara.

Foru Sektore Publikoari buruzko ikuspegi oso-tua izateko asmoz, Kontuen Ganbara honek komenigarritzat jotzen du Txosten honetan ente

publikoon aurrekontu betetze-mailaren eta gainerako finantza-egoeren inguruko ezaugarriak. 5. eraskinean bildu dira.

Gure jarduketa enteon 1995eko finantza egoeren alderdirik behinenak agerian uztea besterik ez da. Merkataritza Ganbarari doakionez, kanpoko profesionariek egindako kontu-ikuskaritza txostena ere aipatzen da.

6.1. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren –NUP– 1995eko hasierako aurrekontuko gastu eta dirusarrak 5.065 milioi jotzen dute.

Aitorturiko betebeharrak 4.623 milioi jotzen dute eta beraz, %88ko betetze maila aurkezten dute. Aurreko ekitaldiari begiratuz gero, gastuak ehuneko 18 egin dute gora.

Euren izaerari dagokionez, betebeharrak hauek batik bat langileria –ehuneko 56– ohiko ondasun eta zerbitzu –ehuneko 22– eta inbertsio –ehuneko 18– gastuen artean banatzen dira.

1994arekin alderatuz gero, hazkunderik handienak izan dituzten gastu-kontusailak hurengoak dira: ohiko ondasun eta zerbitzuak –ehuneko 22–, inbertsioak –ehuneko 27– eta langileria –ehuneko 9–.

Aitorturiko eskubideek 5.034 milioi jotzen dute, hau da, %104ko betetze maila lortzen dute. Guztizko gehikuntza ehuneko 32 da, 1994arekin alderatuz gero.

Horien artean nagusi dira transferentzien bidez iritsitakoak –ehuneko 75– eta tasak eta bestelako dirusarrak –ehuneko 18–. Aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero, transferentziek izandako hazkundera azpimarratu behar –940 milioi gehiago 1995ean–.

NUPen 1995erako aurrekontu betetzeak 681 milioiko superabita erakusten du, hau da, aurreko ekitaldikoa baino 571 milioi gehiago. Hala ere, superabit horretako 280 milioi hurrengo ekitaldiko gastuei atxiki zaizkie.

6.2. NAFARROAKO SU-ITZALTZE ETA SALBAMENDURAKO PARTZUERGOKA.

Partzuergoaren 1995erako hasierako aurrekontuko gastu eta dirusarrak 2.073 milioi pezeta jotzen dute.

Aitorturiko betebeharrak guztira 1.631 milioi egiten dute, eta hortaz horien betetze maila guzti-

ra ehuneko 79 da. 1994koekin alderatuz gero, gastuak ehuneko 6 hasi dira.

Euren izaerari dagokionez, betebeharren ehuneko 86 ohiko gastuei dagokie, batez ere langileria gastuei –Partzuergoaren gastu guztien ehuneko 79–.

Kapital gastuek, inbertsioek guztizkoaren ehuneko 14 egiten dute, eta horien betetze maila %67 da soilik.

1994koekin alderatuz gero, langileri gastuak ez dira ia-ia aldatu. Aldea, ordea, inbertsioetan dago, 108 milioi gehiago.

Aitorturiko eskubideek 1.631 milioi jotzen dute eta horien betetze maila ehuneko 79 da, ehuneko 19ko gehikuntza 1994arekin alderatuz gero. Aitorturiko dirusarrak ohikoak besterik ez dira, eta horietatik ehuneko 100 ia-ia Nafarroako Gobernutik etorritako transferentzien bidez zertu da.

Partzuergoaren 1995erako aurrekontu betetzeak oreka erakusten du, gastuak eta egindako dirusarrak bat datozelako.

6.3. NAFARROAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRI GANBARA.

Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbararen 1995eko Urteko Kontuak kanpoko profesionari batek ikuskatu ditu. Horri buruz emandako txostenaren arabera, aipatu Urteko Kontuak “fidelki islatzen dute alderdirik behinenetan Ganbarak 1995eko abenduaren 31n zuen ondarea eta egoera, baita aipatu egunean bukatu den urteko ekitaldiko eragiketen emaitzak eta lortutako eta erabilitako baliabideak ere, orobat aurrekontua eta haren likidazioa...”

Kopuru garrantzizkoenei buruz, aipatu behar da Ganbararen ohiko dirusarrak 240 milioi egiten dutela eta ohiko gastuak 286 milioi ere. Kopuru horiek gainerako eragiketekin batuz gero, ekitaldiko emaitza negatiboa 47 milioi da.

7. GEHIGARRIA. ZERGA GASTUEN AURREKONTUAK.

7.1. ZERGA-GASTU KONTZEPTUARI HURBILTZEA.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 34 artikulua ezartzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Aurreproiektuan Oroit-idazkia gainera dadin, zeinak, beste hainbat gorabeheraren artean, tributu-irudiak ukitzen dituzten zerga-gastuen zenbatespena egingo baitu.

Artikulu honekin bat etorritz, 1995eko Oroit-idazkian ekitaldi horretako Zerga Gastuen zenbatespena egiten da. Testu hartan definitzen dira gastu hauek "hainbat zerga-hobari ematearen ondorioz izango bide den dirusarrera tributarioaren gutxitzearen kopuruzko adierazpena".

Zerga-hobariok hurrengoekin lot daitezke:

- Zergagaiarekin, salbuespen objektibo eta subjektiboak.
- Zerga oinarriarekin, murrizpenak.
- Karga tasarekin, tasa bereziak ezartzeko aukera.
- Kuotarekin, zerga-kenkari edo hobariak.

Hau da, zergen birbanatzeko helburua bete betean baieztatzen da zerga gastu hauen agertzearekin, haien helburua baita izaera ekonomiko eta soziala dituzten helburuak lortzeko orientabidea izan.

Horregatik garrantzizkoa da aurretik gastu hauek zenbat joko duten esango digun informazioa edukitzea, baita bere ezarpenean aurreikusten ziren helburu sozialen betetze maila berraztertzen duen ondorengo informazioa edukitzea ere.

7.2. 1995EKO ZERGA-GASTUEN ZENBATESPENA.

1995eko Oroit-idazkiko testuari gagozkiola, aldi hartako zerga gastuak zehaztu eta zenbatzeko jarraitu den metodologia laburkiro azaltzen da. Zehatzago esanda:

- Zeharkako zergen kasuan, Administrazio Zentralak aplikatzen duen zenbatespen-portzentaia hartzen da.
- Zuzeneko zergetan, oro har, zergadunek 1994ko ekitaldian aurkeztu zituzten aitorpenetatik abiatu gara (beraz, 1993an sorturiko zergei buruzkoak), denboraren arabera egozketa egiteko irizpidea kutzakoa hartuz. Halaxe egin dugu PFEZaren kasuan; Elkarteen gaineko Zergaren kasuan, ordea, erreferentzi ekitaldia 1993koa da, 1994ko informazio estatistikorik ez dagoelako.
- Lehenbiziko aldiz sartu da Aurrekontuan hurrengo ondoriozko zerga-gastuen zenbatespena:
 - PFEZn, famili kenketa eta etxebizitza inbertsiorako pizgarriak.
 - Ondare eta ondorengotza zergak.

Zenbatespen honen emaitza ondorengo koardroan adierazten da (milioi pezetatan):

Zerga	ZG	ZD	%
PFEZ	24.494	73.825	33,2
Elkarteen gaineko Zerga	6.100	16.150	37,8
Ondarea	1.580	2.800	56,4
Oinordetzak	99	550	18
Zuzen. zerg., guztira	32.273	93.325	34,6
Ondare Transmisioak eta Egintza Jur. dok.	538	8.000	6,7
BEZ	9.733	63.500	15,3
Bereziak	424	7.575	5,6
Zehar. zerg., guztira	10.695	79.075	13,5
Guztira	42.968	172.400	24,9

ZG: zerga gastuak ZD: zerga dirusarrerak

Beraz, esan daiteke zerga gastuek foru-kutxari eragiten diotela 42.968 milioko gutxiagotzea, beraz, zerga dirusarreraren laurdena, gutxi gorabehera.

Tributu-klasearen arabera, Zuzeneko Zergei aplikatzen zaizkien portzentaia dira nabarmentzekoak, bai Elkarthei –ehuneko 37,8– eta bai, neurri txikiagoan bada ere, PFEZri –ehuneko 33,2–. Edonola ere, ratorik handiena duen zerga Ondareari buruzkoa da, zerga-gastuak aurreikusitako dirusarreraren ehuneko 50a baitira.

Zeharkakoetan, BEZak du zerga-onuren ratio eta munta azpimarragarria.

Esan behar da 1995eko Kontu Orokorrek ez dutela zerga gastuen errealitatearen zehaztapen eta jarraipenaren gaineko aipurik egiten, indarreko legeriak ezartzen duenarekin bat etorritz.

Ondorioz, zerga gastuak hainbat aurrekontu eta gizarte-politikari buruzko helburuak lortzeko tresnarik eraginkorrenetakoak dira. Hortaz, behar bezala zehaztea eta jarraitzea zein aurreikusitako helburuei aplikatzen ari zaizkiela egiaztatzea alde batera ezin saihestu daitezkeen beharrak dira, are eta gehiago aintzat hartuz bere zenbatekoaren handia –adibidez, 1994ko zenbatespena urte hartan jaulki zen zorraren ehuneko 84 da–, eta Foru Ogasunaren gaurko egoera, aurrekontuaren alde-tik oso zorrozki jokatzea eskatzen duena.

Gomendioak:

Hala lortu nahi diren helburuei loturiko zerga gastuen zenbatespenari buruzkoetan sakontzen duten nola zenbatetsitako kopuruak egiazko kopuruekin alderatzen dituzten lanak egin daitezzen, sorturiko desbideraketak eta euren arrazoia

aztertuz, eta, hala badagokio, behar diren zuzentzeko neurriak hartuz.

Aurrekontuaren kitapenaren Oroit-idazkiarekin batera zerga gastuen aurreikuspenen betetze-mailari buruzko azterketa izan dadin.

7.3. ZERGA GASTUEN BILAKAERA, 1992-1995.

Aldi horretako aurrekontuetako oroit-idazkiarako datuak oinarritzat harturik aztertu da zerga gastuen bilakaera Nafarroan.

16. koadroan ageri dira, ekitaldika, gastuen zenbatekoa, aurreikusitako dirusarrerak eta zerga gastuen eta zerga dirusarreraren arteko ratioa.

Ikus daitekeenez, zerga gastuak nabarmen hazi dira aztertu den aldian, 1992an dirusarreraren ehuneko 13,61 izatetik, ehuneko 24,92 izatera

igaro dira 1995ean, azken ekitaldi horretan bikoiztu egin direlarik, ia-ia, 20.633 milioitik 42.968 milioira pasatuz. Zuzeneko zergetan azpimarra daiteke hazkundera, PFEZ eta Sozietateen gaineko Zergetan, batez ere.

Hala ere, esan beharra dago gehikuntza horiek ez datozela beti zerga gastuaren benetako gehikuntzarekin. Esate baterako, gerta daiteke ekitaldi jakin batean hastera zerga gastutzat kontuan izaten eta kontabilizatzen jada baziren kenkariak, arrazoi teknikoak zirela eta zerga gastuen aurrekontuan sartzen ez ziren arren. Adibidez, 1995ean zerga gastutzat hartu ziren famili kenkariak PFEZn.

Beste alde batetik, 17. koadroan ageri da zerga-gastuen bilakaera 1992ko ekitaldia oinarritzat hartuta. Ageri denez, PFEZ, BEZ eta zerga berezien gastuak bikoiztu egin dira.

16. koadroa. Zerga gastu eta dirusarreraren aurrekontua, 1992-1995
(milioi pezetatan)

Kontzeptua	1992			1993			1994			1995		
	Zerga gastuak (1)	Dirusarrera aurrekontua (2)	% (1)/(2)	Zerga Gastuak (1)	Dirusarrera aurrekontua (2)	% (1)/(2)	Zerga Gastuak (1)	Dirusarrera aurrekontua (2)	% (1)/(2)	Zerga Gastuak (1)	Dirusarrera aurrekontua (2)	% (1)/(2)
Pertsona fisikoen Errentaren gaineko Zerga	9.407	64.700	14,54	10.945	63.960	17,11	13.346	66.250	20,14	24.494	73.825	33,18
Ondarearen gaineko Zerga	0	2.100	0,00	0	2.300	0,00	0	2.350	0,00	1.580	2.800	56,43
Sozietateen gaineko Zerga	4.525	16.600	27,26	5.255	18.100	29,03	6.830	15.428	44,27	6.100	16.150	37,77
Ondorengoza eta Dohaintzen Zerga	0	525	0,00	0	540	0,00	0	600	0,00	99	550	18,00
Zuzeneko zergak, guztira	13.932	83.925	16,60	16.200	84.900	19,08	20.176	84.628	23,84	32.273	93.325	34,58
Ond. eskuald. eta Eg. Jur. dok. zergak	2.048	7.700	26,60	460	5.600	8,21	918	6.800	13,50	538	8.000	6,73
Balio Erantsiaren gaineko Zerga	4.535	57.400	7,90	5.560	61.800	9,00	7.021	59.000	11,90	9.733	63.500	15,33
Zerga bereziak	148	2.800	5,29	270	7.500	3,60	395	7.050	5,60	424	7.575	5,60
Zeharkako zergak, guztira	6.731	67.900	9,91	6.290	74.900	8,40	8.334	72.850	11,44	10.695	79.075	13,53
Guztira	20.663	151.825	13,61	22.490	159.800	14,07	28.510	157.478	18,10	42.968	172.400	24,92

17. koadroa. Zerga gastuen aurrekontua: aldaketa, 1992a oinarritzat harturik

Kontzeptua	1992	1993	1994	1995
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga	1	1,16	1,42	2,60
Ondarearen gaineko Zerga (*)	–	–	–	1,00
Sozietateen gaineko Zerga	1	1,16	1,51	1,35
Ondorengotza eta Dohaintzen Zerga (*)	–	–	–	1,00
Zuzeneko zergak, guztira	1	1,16	1,45	2,32
Ond. eskuald. eta Eg. Jur. dok. zergak	1	0,22	0,45	0,26
Balio Erantsiaren gaineko Zerga	1	1,23	1,55	2,15
Zerga bereziak	1	1,82	2,67	2,86
Zeharkako zergak, guztira	1	0,93	1,24	1,59
Zergak, guztira	1	1,09	1,38	2,08

(*) 1995ean egin zen kontzeptuoi buruzko lehen zenbatespena.

Azkenik, Administrazio Zentralak prestatu duen zerga gastuen aurrekontuarekiko alderaketa egin da, bi egoerek izan ditzaketan zailtasun eta alde teknikoak gogoan hartuta.

Alderaketa hori 18. koadroan jaso dugu eta azpimarratuko dugu:

– Oro har, zerga gastuen osaketa antzekoa da bi administrazioetan; bi heren zuzeneko zergei dagozkie eta gainerakoa zeharkakoei. Zerga irudiei buruzkoan, ordena amanakomuna da eta PFEZ, BEZ eta Sozietateetan biltzen da, funtsean.

- Zeharkako zergetan, Estatukoak bezalako ehunekoak ezartzen ditu Nafarroak, “de facto”.

- Azaleratzen den joera da zerga gastuak gorantz doazela, oro har, bi administrazioetan, gehikuntza handiagoa delarik Nafarroan.

- Zerga gastua/zerga dirusarrera ratioaz, bestalde, Nafarroak zatidura handiagoak ditu, PFEZn batez ere –1995ean sartu diren alde teknikoengatik, hein batean–. Beste alde batetik, deigarria da Sozietateei buruzko zerga gastuak askoz gehiago izatea Estatuan Nafarroan baino, inbertsioari eta jarduera ekonomikoari laguntzeko neurriak hor diren arren.

18. koadroa Aurrekontu dirusarrerren gaineko zerga gastuak: Nafarroa-Estatua alderatzea

Kontzeptuak	1992		1993		1994		1995	
	Nafarroa	Estatua	Nafarroa	Estatua	Nafarroa	Estatua	Nafarroa	Estatua
Pertsona fisikoaren Errentaren gaineko Zerga	14,54	13,00	17,11	11,90	20,14	15,25	33,18	20,20
Ondarearen gaineko Zerga	0,00	15,30	0,00	14,00	0,00	63,13	56,43	84,30
Sozietateen gaineko Zerga	27,26	24,10	29,03	26,10	44,27	53,17	37,77	44,40
Ondorengotza eta Dohaintzen Zerga (3)	0,00	2,00	0,00	3,00	0,00	20,00	18,00	20,00
Beste zerga batzuk (1)	0,00		0,00		0,00		0,00	5,30
Zuzeneko zergak, guztira	16,60	15,60	19,08	14,50	23,84	20,47	34,58	24,50
Ond. eskuald. eta Eg. Jur. dok. zergak	26,60	26,60	8,21	8,20	13,50	13,37	6,73	6,70
Balio Erantsiaren gaineko Zerga	7,90	7,90	9,00	9,00	11,90	11,92	15,33	15,50
Zerga bereziak (2)	5,29	5,30	3,60	6,00	5,60	5,62	15,60	6,00
Zeharkako zergak, guztira	9,91	7,40	8,40	7,90	11,44	9,52	13,53	11,90
Zerga gastuak/I. eta II. kapiutuetako dirusarrerak	13,61	12,00	14,70	11,50	18,10	15,53	24,92	18,78

(1) Beste zerga batzuk: Nafarroan: ez dago informaziorik.

Estatua: 1994: Zerga berezia, egoiliar ez diren higiezin gainekoa.

1995: Zuzeneko beste zerga batzuk

Kontzeptu honetan 1994ko urtea hartu da kalkulu oinarritzat, estimazioa duen lehenbizikoa baita.

(2) Zerga bereziak: Estatua: 1992: kontsumoen gaineko zergak (Luxuaren gainekoa eta zerga bereziak) eta kanpo salerosketen gaineko zergak.

1995: Zerga bereziak eta petrolioaren errenta.

(3) Nafarroa: 1995ean egin zen kontzeptuoi buruzko lehen zenbatespena.

8. GEHIGARRIA. ENPRESA PUBLIKOEN SEKTOREA.

Gehigarri hau honela banakatzen da:

- 1995eko Enpresa Publikoen Sektorearen azterketa, baita aurreko ekitaldiarekin alderaturik dauden aldaketarik garrantzizkoenena.
- 1995eko Kontu Orokorretan islatzen den informazioa.
- Enpresa publikoen Urteko Kontuen gaineko Ikuskapen Txostenetan ikusten diren gorabeherarik azpimarragarrien laburpena.
- Enpresa hauen kopuru ekonomiko-finantziaroen alderdirik nabarmenenei buruzko iruzkinak.

8.1. ENPRESA PUBLIKOEN SEKTOREAREN OSAKETA.

19. eta 20. koadroetan Nafarroako Gobernuaren jabetzako den Enpresa Publikoaren Sektorearen osaketa agertzen da.

19. koadroak enpresa batzuen berri ematen du, zeintzuk eta Nafarroako Gobernuak gehien goz partaliertzen dituen, hau da, kapital sozialaren ehuneko 50 edo gehiago bere esku dagoena,

dela zuzenean, dela tarteko enpresen bidez. Horri buruz esan behar da Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak bakarrik jotzen dituela Enpresa Publikoaren Sektoreko sozietatetzat Administrazioaren partaidetzaren aipatu den portzentaia baino handiagoa duten enpresak.


20. koadroak beste hainbat enpresen berri ematen du, eta enpresa hauetan Nafarroako Gobernuak parte hartzen du, baina gutxiengoa dauka.

1994ko egoerarekin konparatuz, izan diren aldaketarik nabarmenenak honako hauek izan dira:


